ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko martxoaren 30a > Astelehena > VII. urtea > 227. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Alternatiba Eraikitzen proiektuak afiliatuen %30aren babesa izan zuen"

**Ander Rodriguez**
EB-Berdeak > 08



**G2a** Rallyarekin hasi zuten zapatuan Huhezinema > 29

**ANTZUOLA**
Eztala zelaian belar artifiziala ipintzeko lanak hasi dituzte > 20

**FUTBOLA**
Aretxabaletako gazteak Liga Nazionalera igo berri dira > 24

**ENBOSKADA**
Agur-kontzertu hunkigarria egin zuen Arrasateko taldeak > 32



**HELMUGA** Mikel Landa Naturgas Energia taldeko txirrindulari arabarra Gorlako helmugan pozik; atzean, Caja Ruraleko Garikoitz Bravo. JOSETXO ARANTZABAL

**TXIRRINDULARITZA** > GORLAKO IGOERA

# Mikel Landa izan zen irabazle Gorla gainean

**AZKEN ERASOA** Helmugarako kilometro bat falta zela, Caja Ruraleko bi aurkari gainditu zituen

**DEBAGOIENDARRAK** Penabadek, Caballerok eta Arnaizek lasterketa utzi egin zuten > 22-23

**OÑATI** > KOBAZULOAK

## Mikroklima ondo dago Arrikrutzen

Bisitek leizean izan dezaketen eragina aztertu dute > 11

**ZERBITZUAK** > ADINDUNAK

## Protestak, zaharren egoitzetan

Lan baldintzak salatzeko, hainbat mobilizazio > 06

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 03
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40



Aramaioko umeak. SAN MARTIN ESKOLA

**EUSKARA** > KORRIKA

## Euskararen maratoiari ongietorria

Korrikari harrera egiteko zain daude asko; Aramaiotik ez da pasako, baina txikiek korrika egin dute > 20

Iritsi dira martxoko opariak eta sari nagusia! Badago zuretzat?

Zoaz 7. orrialdera








ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda

**ERREPIDEAK** > ZIRKULAZIOA

# Kontrol kanpaina, bi gurpildun ibilgailuek arauak bete ditzaten

**BI ASTE** Martxoaren 23an hasi eta apirilaren 5era bitartean, ertzainek motor, ziklomotor eta bizikleten kontrol kanpaina berezia egiten dihardute

**KONTROLAK** Kaskoaren erabilera, dokumentazioa eguneratua izatea eta zaraten inguruko arauak errespetatzea hartuko dituzte bereziki kontuan

**ISTRIPUAK** Iaz Gipuzkoan zortzi gidari hil ziren, 57 larri zauritu eta 217 arin, Ertzaintzak erregistratutako motor, bizikleta eta ziklomotor istripuetan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Bi gurpil eta abiadura; batetik bestera mugitzeko ibilgailuak dira motorrak, ziklomotorrak eta bizikletak. Ibilgailu horien kontrol kanpaina berezia egingo du Herrizaingo Sailak apirilaren 5era bitartean. Nahitaezkotzat jo du Ertzaintzak Euskadiko Trafikoaren Segurtasunerako Planaren harira ibilgailu horien gidariek izaten dituzten istripuen aurka borrokatzea, eta horretarako areagotu dituzte kontrolak.

Kanpainan kontuan hartuko dituzte oinarrizko neurriak betetzea, kaskoaren erabilera, dokumentazioa eguneratua izatea (gidabaimenak, IAT azterketak eta aseguruak) eta zaraten inguruko arauak errespetatzea. Bestalde, abiadura eta beste ohitura txar batzuen aurrean ere kontzientziazio lana egingo dute.



Elorregin hainbat txirrindulari taldean errepidean. JOSETXO ARANTZABAL

**GIPUZKOAN 3.895 DENUNTZIA IAZ**

Motor gidaria da Jose Luis Arregi antzuolarra, eta ondo iruditzen zaio kontrolak egitea, batik bat paperei dagozkienak: "Asegururik izan ez eta beste bat motorrarekin joz gero, edo alderantziz jotzen zaituenak asegururik edo gidabaimenik ez badu edo lapurtutako motorra gidatzen badihardu, larria izan daiteke benetan". Hura ez dute kontroletan geratu, baina Donostian, motor asko ibiltzen den hiria izanik, ikusi ditu motor gidariak ertzainek edo udaltzainek geratuta. "Joan den astean Donostian motor txiki bat gidatzen zihoala alaba geratu eta paperak eskatu zizkioten".

Kanpainaren helburua da motor, ziklomotor eta bizikleta istripu kopurua jaistea. 2008an, Gipuzkoan, motor gidariek 1.450 denuntzia jaso zituzten arauak hausteagatik, txirrindulariek 32 eta 2.413 ziklomotor gidariek.

Bestalde, Ertzaintzak erregistratutako istripuen arabera, iaz txirrindulari bat hil zen, 13 larri zauritu eta 58 arin; motor gidarien kasuan zazpi izan ziren hildakoak, 28 larri zaurituak eta 102 arin; ziklomotorretan, 16 gidari larri zauritu ziren eta arin 57.

Motorren arriskuaz kontziente da Jose Luis Arregi, eta, kontrolak egitea ondo dagoela esan arren, zera gaineratu nahi izan du: "Guri arauak betetzeko eskatzen diguten neurrian, guk, motorzaleok, egiten ditugun eskariak ere bete beharko lituzkete; esaterako, errepideak konpontzea edo babes hesiak ipintzea".

**BIZIKLETEN KONTROL BEREZIA**

Kanpaina horretan lehen aldiz kontrol berezia egingo da bizikleten zirkulazioaren gainean, eta garrantzi handia emango diete Zirkulazio Araudi Orokorrak ibilgailu horien inguruan jasotzen dituen arauei; batez ere kaskoaren erabileraren gainekoei. Betetzen ez dituztenei araudiko informazioa gogoraraziko zaie.

Araudiak jaso arren, askotan espaloien inguruko araua ez da betetzen. Arau horren arabera, "bizikletak eta ziklomotorrak, eurentzat bereziki egokituta ez dagoen bidea bada, eskumako bazterbidetik ibiliko dira, ibiltzeko modukoa eta behar besteko zabaleraduna bada; hala ez balitz, beharrezkoa zaien errepideko zatia erabiliko dute. Bihurgune asko dituzten jaitsieretan, segurtasun arrazoiek ahalbidetzen dutenean, gidariak bazterbidea utzi eta errepidearen eskuinaldetik ibili ahal izango dira. Bizikletek elkarren ondoan zirkulatu ahal izango dute, betiere bikoteka eta errepideko eskuineko bazterretik ahalik eta hurbilen. Ikuspena ona ez bada edo zirkulazioa areagotzeko arriskua eraginez gero, ilaran jarri behar dute. Azkenik, autobideetan bazterbidetik baino ezingo dute zirkulatu".

Txirrindularia da Benigno Menor *Txiki* eta uste du badirela txirrindulari batzuk arauak hausten dituztenak: "Gero gainontzekook ordaintzen dugu haien jokabide eskasa". Haren esanetan, "jende askotxo dago arauak betetzen ez dituena; semaforoetan gorri egon arren aurrera egiten dutenak, kaskorik gabe ibiltzen direnak… Bizikleta gainean errespeta gaitzaten eskatzen dugu, baina gero badira txirrindulariak arauak errespetatzen ez dituztenak"; hortaz, ondo ikusten du kontrolak egitea.

*Txiki*-k lehen kaskoa gorroto zuen; orain, ordea, ez da kaskorik gabe irteten. "Kurtzetan behera istripua izan genuen orain dela urte asko. Denok kaskorik gabe gindoazen eta lagun batek buruan ebakia egin zuen. Gertaerak zer pentsatua eman zidan". Txirrindularieen artean moduan, auto gidarien artean denetarik dagoela uste du: "Batzuek errespetatu egiten gaituzte eta beste batzuek ez. Taldean goazenean jasotzen dugu kexa asko. Bi ilaratan, paraleloan, joatearen aldekoa naiz ni, hortik gora ez zait ondo iruditzen", esan digu.

Bi gurpilen gainean eta arriskua errepidean. Kontrolak eta kanpainak ez daudenean ere, arauak betez arrisku horietako batzuk saihesteko modua dago.

## Herriarteko bideetan kasko barik ibiliz gero, 150 euroko isuna jaso dezake txirrindulariak

Ertzainek kontroletan arreta handia ipiniko diote kaskoaren erabilerari. Motor eta ziklomotor erabiltzaileek derrigorrez erabili behar dute kaskoa herri barruko zein herriarteko errepideetan. Txirrindulariak derrigortuta daude kaskoa erabiltzera herri arteko bideetan; herri barrukoetan Udalek aukera dute kaskoaren erabileraren araudia egokitzeko. Kaskorik ez erabiltzea arau-hauste larria izanik, gidariek 150 euroko isuna jasoko dute; motor eta ziklomotor gidariei, gainera, gidabaimeneko hiru puntu kenduko dizkiete. Gainontzean, txirrindulariek zirkulazio arau orokorrei erreparatu beharko diete eta isunak egindako arau-hausteen araberakoak izango dira.


Bizikletarako kaskoa. GOIENKARIA

**SINDIKATUAK** > BATZARRA

# Eskualdeko ELAko ordezkariek asanblada egin zuten Oñatin

Han izan zen Adolfo Muñoz 'Txiki', sindikatuko idazkari orokorra

"Gobernuaren politikak aldatu" eta patronalari, "txantajea egitea" egotzi zion



Asanblada ostean, ELAko kideek manifestazioa egin zuten Oñatin egubakoitzean. JASONE ZABALA

**T. MADINA/J. ZABALA** > OÑATI
Aberastasuna banatzearen aldeko kanpaina eskualdeetara eraman gura izan dute ELA sindikatukoek, eta hala, Debagoieneko eta Debabarreneko ordezkariek asanblada egin zuten Oñatin joan den egubakoitzean. Bertan, Adolfo Muñoz *Txiki*-k esan zuen, enpleguaren arloan "suntsipena eta txantajea" direla nagusi.

Egungo krisia etekinen krisia dela gaineratu zuen eta patronalak ez duela enplegua sostengatzeko ahaleginik egiten. Fiskaltasuna aldatuta gastu soziala igo beharra dagoela ere gaineratu zuen Muñozek.

**ALDAKETA POLITIKOAK**
Arlo politikoan, agintarien aldaketa posible baten inguruan galdetuta, esan zuen politikari ezberdinak izan arren, politikak berdinak izan daitezkeela eta horren kontra lan egin behar dutela sindikatuek. Sindikatuek mobilizazioak egiten jarraitu behar dutela gaineratu zuen Muñozek, eta ez dietela gobernuei nahi dutena egiten utzi behar; bide beretik esan zuen agerikoa dela egungo ekonomia ereduak porrot egin duela: "Gurean lehiakortasunaren izenean gobernuek enplegukolokatasuna bultzatu dute etengabe azken urteetan". Esan zuen, baita ere, mobilizazio adostuak egiteko prest dagoela ELA. Asanblada egin ostean, sindikatuko kideek manifestazioa egin zuten Oñatiko kaleetan zehar *Aberastasuna banatu* lemapean.



MIREN ARREGI

## Gernikako erailketa salatu zuten, Emakume Sailak deituta

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako plataformak deituta, joan den astelehen gauean Gernikan izandako erailketa salatu zuten eguen arratsaldean, Arrasateko plazan. Emakumeen kontrako eraso berri hori salatuz, kalera irten ziren hainbat herritar, tartean herriko politika eta sindikatuetako hainbat pertsona. *Emakumeei erasorik ez* lelopean, ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten herriko plazan bildutakoek. Ertzaintzaren datuen arabera, eztabaida baten erdian senarrak labana hartu eta Izaskun Jimenez hil eta haren alaba zauritu zituen.

> LAPURRAK

## Bi zapata dendetan lapurreta eta ohosteko saiakera izan ziren eguenetik egubakoitzera artean

Bergarako Barrenkaleko Yoar zapata dendan eguena eta egubakoitza bitarteko gauean atearen gaineko kristalak apurtuta sartu ziren lapurrak. Dendako jabeak esan digunez, "diru kutxan geneukan diru apurra baino ez zuten eraman, kopuru txikia. Zapatarik eta poltsarik ez zuten lapurtu eta ordenagailua ukitu arren, ez zuten hura ere eraman. Denda barruan kristal zatiak, estolda baten zatia, gortina eskegitzekoa bere lekutik kanpo eta bihurkin bat aurkitu genituen". Bidekurutzetako Lonbide zapata dendan ere gau berean lapurreta saiakera egin zuten eta han ere bihurkina utzita joan ziren. "Atearen gaineko aldean leihotxo bat daukagu eta hura apurtu zuten arren, ez ziren dendara sartu", esan digu Lonbidekoak.

> IRUZURRAK

## Ertzaintzak hainbat iruzur eta faltsifikazio egiten dabiltzala ohartarazi die herritarrei

Ertzaintzak estanpatxoaren iruzurra deiturikoa egiten dabiltzala ohartarazi du. Azken asteotan estanpatxoaren iruzurra izenarekin ezaguna dena egiten duten hainbat kasu antzeman izanak, herritarrak ohartarazi beharrera eraman du Ertzaintza.

Iruzur egileetako batek buru-ahalmen gabeziak dituenaren plantak eginez biktimari ustez berrogeita hamar edo ehun euro dituen gutunazal bat ematen dio. Orduan, bigarren iruzur egile bat agertuko da. Horrek biktima konbentzituko du aipatutakoa bezalako diru kopurua biltzeko eta horrela gutunazalean dagoenaren truke emateko. Iruzurra beteko da biktimak bere dirua gutunazalean dagoenaren truke ematen duenean, gutunazalean paper zatiak baino ez daude-eta.

**INGURUMENA** > EDUKIONTZI MARROIAK

# Konposta jasotzen duten aretxabaletarrak, Lapatxeko plantara

Aldundiaren eskutik, bosgarren edukiontzia erabiltzen dutenekin bisitak antolatzen dihardute prozesua ikus dezaten

**IKER BARANDIARAN**> BERGARA

Zapatuan Aretxabaletako, Azkoitiako eta Donostiako 165 lagun izan ziren Lapatxeko konpostgintza planta ikusten. Bertaratutako guztiak materia organikoa biltzeko bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia deritzona erabiltzen dute.

Ekimen aitzindari hori oraindik herri gutxi batzuetan abian jarri dute, eta Debagoienean aretxabaletarrak dira lehenak. Horren harira, Aldundiak erabaki zuen erabiltzaile horiei konpostgintza planta erakusteko bisitak antolatzea.

Lehena zapatuan izan zen eta datorren zapatuan, apirilaren 4an, beste bisita bat egingo dute.

**GIPUZKOA OSORA ZABALTZEA**

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa entitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko departamentuak antolatu dituzte bisitok. Horren helburua da aipatutako herritar boluntarioei aukera ematea janari hondarren tratamenduaren proze- suaren azken emaitza gertutik ikusteko.

Esperientziari 2008ko maiatzaren bukaeran ekin zioten, eta poliki-poliki zabalduz doa. Gaur egun, 4.689 familia boluntario daude Donostiako Amara auzokoak eta Aretxabaleta, Azkoitia, Azpeitia, Zarautz eta Zumaiakoak.

Lehen fasean landare materia organiko gordina bakarrik batzen zuten, baina dagoeneko hasiak dira bigarren fasean janari prestatuen hondarrak ere batzen. Bigarren fase horretan Lapatxen urteko 1.500 tona tratatzea espero dute; eta ekimena Gipuzkoa osora zabaltzea, hain zuzen ere.



Zapatuan hainbat aretxabaletar izan ziren Lapatxeko konpostgintza planta ikusten. ALDUNDIA

**etxeko leihotik**



Usoa Agirre > 'uagirre@goiena.com'

## Biziaren alde, biziaren kontra

Abortuaren lege berria dugu azken aldian guztion ahotan. Googlen Espainiako Gobernuak egin duen abortuaren lege proposamenaren gaineko informazioa bilatzen hasiz gero, kontrako ehundaka artikulu topatuko ditugu. Objetibotasunetik urrun, benetan kanpaina ona egiten dabiltza elizaren eta ultrakontserbadoreen bozgorailuak. Abortuaren lege berriak dioena jakiteko zaila dago, benetan.

Oraingo legediaren arabera abortua delitua bada ere, legeak hiru egoeratan abortatzeko baimena ematen du: a) Emakumearen osasun fisiko edo psikikoa arrisku larrian dagoenean, epe zehatzik gabe; b) Bortxaketa kasuetan, haurdunaldiaren lehenengo 12 asteen barruan eta d) Fetuak malformazio larriren bat duenean, lehen 22 asteetan.

**"Akaso batzuek ez dute bizitzerik merezi eta beste batzuek bai?"**

Ulertzen ez dudana da orain arte legediak kasu horietan abortua baimentzen bazuen, oraingo lege proposamena zergatik den “biziaren kontrakoa”. Batzuek ez dute bizitzerik merezi eta beste batzuek bai? Edo beste interesen bat dago hor tartean? Oso zaila da gaur egun osasun publikoan abortatzea eta pribatutik egin behar izaten dute emakume askok, dirutza ordainduta. Galduko duten diruagatik ote?

Abortuaren gaian hari-mutur asko daude eta hobe genuke denok gaiari sakonetik heltzea, azaleko demagogia kontuekin aritu baino.

**> Erabakia hartzea**

**Abortatu edo ez erabakitzea zaila emakumearentzat. Erabaki hori hartzera bultzatzen zaituen egoera ere ez da erraza izaten. Emakume horiek babestea eta informatzea funtsezkoa izan beharko litzateke.**

**> Exenplua**

**Itzali zenuten argia zapatuan ordubetez? Ez? A ze energia xahutzaileak zareten! Guggenheimen bai, han itzali zituzten gauero altzairua argiztatzeko erabiltzen dituzten argiak. Exenplua ematen, aizue.**

**ZABORRA** > ERRAUSTEGIAREN KONTRA

# Etxez etxeko zabor bilketaren aldeko 270 sinadura jaso dituzte egunotan ibarrean

Eguenean Arrasaten, eta egubakoitzean Oñatin batu zituzten sinadurak; eta eguaztenean, Eskoriatzako herriko plazan egongo dira 18:30ean

**IKER BARANDIARAN**> OÑATI

Errauskailuen kontrako plataformen koordinadorak etxez etxeko zabor bilketa bultzatzen dihardu. Horretarako, Legebiltzarrak proposamena tramitera onar dezan, sinadurak jasotzen dabiltza. Hala, proposamena eztabaida dadin, gutxienez 30.000 sinadura jaso behar dituzte apirilaren 30a aurretik. Orain arte, Gipuzkoako beste zonalde batzuetan ibili dira.

Gure ibarrean ez dago errauskailuaren kontrako plataformarik oraindik. Arrazoi horregatik, plataforma horietan parte-hartze handia duen Ezker Batua-Berdeak taldeko kideak dabiltza Debagoienean sinadurak jasotzen. Eguenean, Arrasaten ekin zioten; eta egubakoitzean, berriz, Oñatin izan ziren zeregin horretan. Bi egunetakoak batuta, 270 bat sinadura jaso dituzte orain arte. Ezker Batua-Berdeak taldeko Juan Luis Merinok azaldu zigun ekimen hori ez dela EB-Berdeen kontua: "Guk horren ardura hartu dugu, ibarrean ez dagoelako beste talderik, baina interesatu guztiei deia egiten diegu ekimena bultza dezaten".

**EGUAZTENEAN, ESKORIATZAN**

Horrez gain, Merinok nabarmendu zuen eguaztenean, apirilaren 1ean, Eskoriatzako herriko plazan egongo direla 18:30ean: "Gure asmoa da Debagoieneko herri guztietara joatea".

Merinok gehitu zuen, baita ere, ibarreko beste alderdi eta talde batzuek ere atxikimena adierazi diotela errauskailuen kontrako plataformaren asmoei, baita gizabanakoek ere; eta horretan ekingo dutela azpimarratu zuen. Horren harira, esaterako, joan den asteko osoko bilkuran Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek bere babesa eman zion ekimenari.


Gambrinus
garagardotegia
Otalora 40-42
Arrasate
Tel.: 943 53 35 28
2x1
produktu guztietan
Astelehenetik ostiralera:
19:00etatik aurrera itxi arte.
Larunbata eta Igandeetan: 7:00 - 13:00



Zapatuan Iturbideko langileek herriko plazan egin zuten kontzentrazioa. JOSETXO ARANTZABAL

**ZERBITZUAK** > ZAHARRAK

# Protestak ibarreko zaharren egoitzetan

Greban dauden Iturbide egoitzako langileek asanblada egingo dute astelehenean; eta Eskoriatzako eta Bergarako langileek, geldialdiak

**I.BARANDIARAN/E.MENDIBIL** > BERGARA

Iturbide egoitzako langileek elkarretaratzea egin zuten zapatuan Arrasateko herriko plazan. Hainbat langile greban daude eta eguenean udaleko ordezkariekin izandako batzarrak ez zion arazoari konponbiderik eman.

Langileen eskaera da egoitzako beste langileek dituzten eskubideekin parekatzea: hala nola, egutegia, baja kasuak eta beste. Langileek jakinarazi dutenez, Udalak soldaten gainean egindako proposamena ez dute txarto ikusten, baina gauza gehiago daude hobetzeko.

**ASTELEHENEAN, ASANBLADA**

Mobilizazioekin jarraitzeko, astelehenean langileek asanblada egingo dute Iturbiden, 22:00etan.

Horrez gain, eguaztenean ESK sindikatuko batzorde orokorrak batzarra egingo du Arrasaten ibarreko batzordeak eskatuta. Iturbideko langileen alde egingo dute prentsaurrekoan.

**BERGARA ETA ESKORIATZA**

Bestalde, Eskoriatzako eta Bergarako egoitzetan azpikontratutako langileek geldialdia egingo dute gaur, astelehena, 08:00etatik 09:00etara eta 22:00etatik 23:00etara. Baita elkarretaratzea deitu dute Samsic Iberia enpresaren bitartez Bergaran azpikontratutakoek (65 langile dira) ere gaurko. San Martin plazan elkartuko dira, 20:15etik 20:45era.

Eguaztenean ELAko ordezkariek bilera egingo dute Donostian, lan hitzarmenaren negoziazioak desblokeatzeko ahalegintan. Orain dela bi astetik etenda daude patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazioak. Bergarako egoitzaren kasuan ELA eta LAB elkarlanean dabiltza eta Eskoriatzan ELA da ordezkaritza duen bakarra. Eskoriatzan 11 dira azpikontratutako langileak, Eclat enpresaren bitartez. Gipuzkoako egoitzetan egoera ezberdina denez, kasu bakoitzaren araberako mobilizazioekin dihardute han eta hemen.

**DIPUTAZIOA** > OGASUN SAILA

# Errenta aitorpena kanpaina abiatzear da

Aitorpenak aurkezteko epea apirilaren 21ean zabalduko dute

**E.M.** > BERGARA

Errenta eta ondarea aitortzeko kanpaina abiaraziko du Diputazioak datozen egunotan. Kontuan hartzeko datak honako hauek dira: autolikidazio proposamenak onartzeko epea apirilaren 15etik maiatzaren 8ra izango da zabalik; errenta mekanizaturako hitzordua apirilaren 20tik ekainaren 12ra eskatu beharko da; eta aitorpenak aurkezteko epea apirilaren 21etik ekainaren 25era izango da zabalik. Edozein kontsultarako telefonoa hauxe duzue: 902 10 00 40.

**IRUZURRARI AURRE**

Zerga iruzurrari aurre egiteko Ikus izeneko sistema informatikoa jarriko du martxan Foru Aldundiko Ogasun Sailak. Indra enpresak diseinatuko du sistema berria, eta hiru helburu ditu: arriskutsutzat hartzen diren zerga ordaintzaileei buruzko informazio osoa eta etengabea edukitzea, ikuskatzeen planak azkartzea eta espedienteen jarraipena eta ebaluazioa erraztea. Diputazioak ahalegin berezia egin nahi du aurten iruzurraren aurka. Pello Gonzalez Ogasun diputatuaren arabera, sistema informatiko berria da bideetako bat. Horrez gain, plan espezifiko bat jarri dute martxan, eta iruzurraren aurkako lantaldea ere handitu ko dute. Iaz, guztira, 335,7 milioi euroko iruzurraz konturatu zen Diputazioa.


Ogasun departamentuaren bulegoa Bergaran, Toki Ederren. GOIENKARIA


Juan Mari Otaegi. ARTXIBOA

**CES** > IZENDAPENA

# Juan Mari Otaegi CES batzordeko presidente berria

Otaegik Euskadiko Kutxako presidente izateari utziko dio bihar, martitzena, Mondragon Taldean erretiroa hartzen duelako

**E.M.** > BERGARA

Juan Mari Otaegi Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko (CES) zuzendari izendatu dute. 65 urte betetzean, Otaegik Euskadiko Kutxako presidente izateari utziko dio bihar, martitzena, eta kargu berrian hasiko da lanean. Besteak beste, CES delakoak Jaurlaritzaren legegintza-ekimenen gainean txostenak egiteko zeregina dauka.

Juan Mari Otaegiren izendapena joan den astean adostu zuen CESeko taldeetako batek. Aipatutako taldean zortzi kontseilari daude, merkataritza ganberak, aurrezki kutxak, kooperatibak, elkarte anonimoak, arrantza eta nekazaritzako erakundeak, kontsumitzaileak eta Euskal Herriko Unibertsitatea ordezkatuta daudela.

**AGUSTIN MARKAIDERI LEKUKOA**

Agustin Markaide izango da Mondragon Taldeko Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidentea, Juan Mari Otaegiren lekukoa hartuz. Markaidek eguaztenean, apirilaren 1ean, ekingo dio zeregin berriari. Agustin Markaide Eroski Taldeko zuzendari orokorra da 2001. urtetik eta bere ibilbide profesionala talde kooperatiboan eman du.

auzorik auzo

**APOTZAGA** > Eskoriatzako mendebalean dago Apotzaga, hirigunetik bi kilometro eta erdira. Ikustekoak dira San Migel parrokia, San Bernabe ermita eta hilerria; baina batez ere auzotik ikusten den paisaia da nabarmentzekoa.

**Garikoitz Ibabe** > Auzo-alkatea

# "Konpromisoa dago auzoko errepide sare guztia asfaltatu eta txukun jartzeko"

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

**Garikoitz Ibabe da Apotzagako auzo-alkatea. 18 baserri daude auzoan, baina horietako bitan ez da inor bizi. Gaur egun nekazaritzatik bakarrik bizimodua ateratzen duenik ez dagoela dio Ibabek.**


Garikoitz Ibabe, Apotzagan. IKER BARANDIARAN

**Gaur egun zein da Apotzagako auzotarrek duten kezka nagusia?**

Batez ere, denbora luzeen kentzen digun gaia azpiegiturena izaten da. Urak, errepidea, basoko pista... horiek mantentzen ematen dugu denbora.

Argi dago, baina, azkeneko urteetan autobidearen gaiak buruhauste asko eman digula.

**Autobidea auzotik pasatuko da; nola eragingo du horrek auzoan?**

Autobideak eragin handia izan du auzoan. Alde batetik, desjabetzeak egon dira. Gai hori partikularrekin landu da, eta batzuei asko eragin die.

Bestalde, autobideak eragin zuzena izan du auzoan. Horren harira, auzo bezala eskakizun batzuk egin ditugu. Gainera, autobidea zuzenean pasatzen ez den tokietan ere eragina nabarmena izan da. Bi zabortegi egin dizkigute: hegoaldera bat eta iparraldera bestea. Obretatik atera diren zikinkeriak batzeko leku moduan erabili dira leku horiek.

**Lanak amaitzear daude; nola geratuko da auzoa?**

Gure helburua da bazterrak ahal den txukunen ixtea. Bestalde, auzorako bideak konpontzea eskatuko dugu. Zenbait egunetan auzorako errepidea itxita izan dugu; eta, itxita egon ez den egunetan, errepidea ez da egon behar bezalako egoeran.

**AHTren ibilbideak izango du eraginik Apotzagan?**

Ez; hasiera baten, ez da auzotik pasatuko. Baina autobidearen lanek ere aldaketak izan dituzte eta gerta liteke trenaren lanetan ere aldaketak egotea. Horregatik diot hasiera baten ez dela pasatuko, baina oso gertutik pasatzen denez, gerta litekeenari begira gaude.

**Nola daude saneamendu lanak auzoan? Hau da, nondik hartzen duzue ura, gasa...**

Oraindik Udalarekin hitzartu gabe dugun gaia da hori. Ura Urkulutik hartzen dugu, ur munizipala. Bestalde, auzoko ura daukagu, guk gestionatzen duguna; ez da kontsumorako, baina erabiltzen dugu; nekazaritzarako, adibidez. Horretaz gain, gasa dago sartuta auzoan, propanoa deritzon gasa da.

**Baserrietarako errepide guztiak asfaltatuta daude?**

Bai, errepide guztiak asfaltatuta daude. Auzoak daukan berezitasun bat da, baserri ia guztiak elkartuta daudela. Horrek samurtu egiten du errepideak egoera onean egotea, eta baita argiteria ona izatea ere.

Bestalde, konpromisoa dago auzoko errepide sare guztia asfaltatzeko; izan ere, autobideko lanek egiterakoan zerbitzu bide moduan erabili da.

**San Migel jaiak ospatzen dituzue irailean.**

Patronalak San Migelak dira, baina San Bernabe eguna ere ospatzen dugu.

**Gainera, jende asko biltzen du Apotzagan egiten den 4x4 auto-en txapelketak.**

Bai, herriko talde batek antolatzen duen ekitaldia da. Autobideko lanek utzi duten zabortegia erabili izan dute; baina hori txukun jartzen dutenean, ez dakit toki egokia izango den.

HILERRIA

## "Lehengo usadioak errespetatuz eginda dagoen hilerria da"

Apotzagako berezitasun bat hilerria da: "Aipatzekoa da borobila dela eta etxe bakoitzak bere lur zatia daukala hilarri diskoideo batez markatuta, antzina egiten zen moduan", dio Ibabek. Esan behar da, baina, ez dela antzinako hilerria. "Lehengo modura eginda dago, baina ez da antzinakoa", gaineratu du.

Auzora ez da jende askorik joaten hilerria bisitatzera, baina joaten diren guztiek bisitatzen dutela dio. Orain arte, auzotarrak hilerrian lurperatuak izan dira, eta auzotarrek egin izan dute lan hori. Orain, Udalak eskaintzen du hildakoa lurperatzeko zerbitzua.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Martxoko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

SARRERAK
• Maite Beitia Abarrategi (Aramaio)
• Juanjo Madinabeitia Arando (Arrasate)

ZIRA
Mikel Larrañaga Arana
(Arrasate)

LIBURUAK
Angel Bergaretxe Abarrategi
(Arrasate)

KAMISETAK
• Marijo Erostarbe Garitano (Oñati)
• Lorea Zurutuza Alberdi (Bergara)
• Joseba Agiriano Barandiaran (Bergara)
• Marga Mercader Sologaistoa (Arrasate)

SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA
Jose Luis Carnicero
(Bergara)
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

Martxoaren 1eko hauteskundeetako emaitza txarren ondorioz, Mikel Aranak hartu du EB-Berdeak taldean Javier Madrazoren lekua. Ander Rodriguez EB-Bko kidea izateaz gain, sektore kritikokoa ere bada. Rodriguezen ustez, hauteskundeetako emaitzek "euskal ezkerraren krisia" berretsi besterik ez dute egin, eta "inoiz baino boto gutxiago" jaso dutela dio.

**Ander Rodriguez** > EB-Berdeak taldeko zinegotzia Arrasaten

# "Alternatiba Eraikitzen proiektuak afiliatuen %30aren babesa izan zuen"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Ander Rodriguez Arrasateko Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia da. Gainera, orain gutxi sortu zen Alternatiba Eraikitzen taldeko sorreran egon zen Rodriguez. Mikel Aranak esan du talde kritikoarekin elkartzekoa dela. Rodriguezekin izan gara Euskal Herriko ezkerrak bizi duen egoera aztertzen.**

**Mikel Aranak hartuko du Madrazoren lekua EB-Berdeak taldean. Nola ikusten duzu aldaketa?**

Aldaketa nominal bat da. Aurpegi aldaketa egongo da, baina horrekin ez diogu EB-Berdeak taldeko arazoari aurre egingo, ezta euskal ezkerrak dituen arazoei ere. Operazio endogamikoa izan dela esan daiteke.

**Gainera, EB-Berdeak taldeko kontseiluak informe politikoa babestu zuen. Informe horretan, hauteskundeetako emaitzen hausnarketa egiten da: dio hiru faktorek baldintzatu zituztela emaitza txarrak. Ados zaude informearekin?**

Konponbidea ez da egokia izan, ezta hauteskundetako emaitzen analisia ere. Esan behar da bipartidismoa beste hauteskunde batzuetan ere egon izan dela. Bigarren arrazoia esan dute izan dela gizarteak ez duela ulertu EB-Berdeak taldeak Eusko Jaurlaritzan egin duen lana. Guk onartzen dugu lan horrek alde positiboak izan dituela; baina, egia da, taldeak aldaketa sozialerako tresna bezala duen irudia konprometituta geratu dela. Azkenik, harrigarria da erantzukizuna sektore kritikoari botatzea, azken urteetan sektore kritikoak ez duenean taldearen norabidean parte hartu.

Gure apustua Kontseilu politikoan argia izan zen: EB-Berdeak taldearen disoluzioa, bere bideragarritasuna kolokan jarri delako. Gure apustua kapital politikoa ezker berri bat sortzeko erabiltzea da: ezker euskalduna, soberanista eta eraldatzailea.

**Mikel Arana EBko kritikoekin elkartzekoa da.**

Aranak esan du kritikoen zati batekin elkartuko dela; hau da, EPAkoekin. Alternatiba Erakintzen sortu genuen EB-Berdeak taldeko kideak taldetik kanpo utzi gaituzte. Gainera, instituzioetan ditugun karguak uzteko eskatu dizkigute.



Ander Rodriguez. GOIENKARIA

**Zein da Alternatiba Eraikitzen taldearen egoera gaur egun? Hauteskundeetako emaitzak eragina izan du talde horren eboluzioan?**

Gure helburua sistema kapitalistaren esplotazioaren aurka dauden indarrak proiektu berean elkartzea da. Ikusten genuen Euskal Herrian ordezkaritza duten edo ez duten ezkerreko talde politikoen artean batek ere ez zuela leku hori betetzen. Gure ustez berebiziko garrantzia du lan horrek; eta horretarako sortu genuen AE. Euskal ezker antikapitalista eratzeko asmoarekin sortutako taldea da.

Hauteskundetako emaitzek berretsi egin dute guk diogun euskal ezkerreko krisia. Inoiz ez dute ezkerreko alderdiek hain boto gutxi jaso hauteskunde batzuetan.

BILERA

**"Aranak esan du kritikoen zati batekin elkartuko dela, hau da EPAkoekin"**

HELBURUA

**"Euskal ezker antikapitalista eratzeko asmoarekin sortutako taldea da AE"**

EUSKAL HERRIA

**"Euskal Herriko arazoak ez du uzten estatus politikoa erabakitzen"**

**EBko sektore kritikokoa zara, zergatik? Zerekin zarete kritiko?**

Kokatzen naizen sektoreari kritiko deitzea posizio politiko bati adjektiboa jartzea besterik ez da. EB-Berdeak taldearen norabidearekin kritikoak gara, baina era berean modu positibo batean subjektu politiko berri bat sortzeko pausua eman dugu. Ezarritako ordena gainditzeko dagoen beharrei erantzungo dion subjektu politikoa izango da.

**Ezkerreko alternatiba izan nahi duzue. Ezker Batuaren barruan ala alderditik kanpo?**

Alternatiba Eraikitzen sortu dutenen artean EB-Berdeak taldeko kideak daude, orain kanpoan dauden kideak eta baita inoiz EB-Berdeak taldeko kideak ez direnak izan ere. Hortaz, euskal ezker zabalago bat hartzen du.

**Ze indar daukazue EB barruan?**

Azken kongresuan afiliatuen %30aren babesa jaso genuen; baina militantzia barruan daukagun babesa handiagoa da.

**Mikel Aranak kritikoei eskatu die euren karguak uzteko, karguak ez direlako pertsonalak, alderdiarenak baizik. Zer diozu?**

Datozen bi urteetan herritarrek babesa eman ziguten programarekin jarraituko dugu; izan ere, hori da herritarrekin hitzartu genuen kontratua. Batzuk uste dute partiduaren burokraziaren arabera, herritarrekin hartutako konpromisoak bizi dugun egoeraren arabera ezkuratu daitezkeela. Gure programa defendatzen jarraituko dugu, gure erantzukizuna hori delako.

**Alternatiba Eraikitzen erakundea sortzeko agirian, Euskal Herria subjektu burujabetzat hartu duzue eta etorkizuna erabakitzeko eskubidea aldarrikatu duzue.**

Euskal Herrian munduko sistemaren ondorioz eta ohiko ezkerreko taldeen ondorioz sortutako arazo guztiak ditugu. Baina, gainera, beste aldagai bat ere badugu. Eta aldagai horrek zuzenean egiten du talka alternatiba izateko kontzepzioarekin, eta mugimendu politikoak sortzeko aukerarekin: Euskal Herria eta Espainiako estatuaren artean dagoen gatazkak ez die uzten euskal herritarrei euren estatu politikoa erabakitzen.

Arazo honek Euskal Herriak bere etorkizuna erabakiko duen irtenbide demokratikoa behar du.

**Esan daiteke, Euskal Herrian identitatearen arazoak arazo sozialak alde batera utzi dituela?**

Gatazkaren irtenbideak agertoki politikoaren egoera aldatuko luke; ezkerraren eta eskuinaren arteko borroka izango litzateke, hau da, sistemaren gestioa eta hori gainditu gura dutenen arteko borroka. Agertoki berri horrek langileen indarra indartuko luke, Euskal Herriko iragan gertuan gertatu izan den bezala.


aek
ongi
etorri
euskaraz bizi
nahi dugunon
herrira
16.
korrika
www.korrika.org
badator!
Tutera-Gasteiz 09
martxoaren 26tik apirilaren 5era

## kale inkesta

# Zer deritzozu Korrikari? Parte hartuko duzu? Garrantzitsua da etorkinek euskara ikastea?



**Itziar Agirre**
Langilea
Antzuola

Plazara etorriko gara behintzat jendea animatzera. Garrantzitsua da kanpotik datozenek euskara ikastea. Eurek moldatu beharko dute gurera. Kataluniara joaten bagara katalana ikasi behar dugu. Eta hemen?



**Jone Agirrezabal**
Ikaslea
Bergara

Euskarak aurrera egiteko ekimen ona iruditzen zait, baina nik ez dut korrika egingo. Gainera ez naiz herrian egongo. Eskolan etorkin dezente ditugu, eta ikasten dute euskara. Horrela izan behar du gainera.



**Maria Aurelia Masayz**
Langilea
Bolivia

Ez nuen Korrika ezagutzen, baina ederra izango da. Bolivian badugu kitxua hizkuntza, eta eskoletan ikasten dute. Ondo deritzot, sustraiak hor daude-eta. Gura nuke egunen baten euskara ikastea ere.



**Maria Eugenia Igarza**
Langilea
Bergara

Korrika bezalako gero eta ekimen gehiago beharko dugu aurrerantzean. Lehen ere laguntzarik gabe egindakoak gara, eta orain ere egingo dugu. Nik ere parte hartuko dut: korrika ez dakit, animatuz seguru.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Baldosak apurtuta**
Euririk ezean ahaztuta geundela zirudien, baina aste bukaeran euria hasi orduko arazo batekin konturatu da irakurle bat: "Bergaran ibili nintzen zapatu goizean eta kaleko hainbat tokitan baldosak apurtuta daude. Horietako bat zapaldu eta praka barrenak blai eginda geratu zitzaizkidan. Eskatuko nuke lehenbailehen konpontzeko, berriz euria hasi arte itxoin barik".

ARRASATE
**> Ospitaleko larrialdiak**
Zauri batekin Arrasateko Ospitaleko larrialdietara joan zen mutil batek deitu digu esanez denbora mordoa egon zela zain. "11:00etan joan eta zauria sendatu zidaten, baina16:00ak arte egon nintzen zain eta sendagileak ikusteko hartu ez ninduenez alde egin nuen. Ondo dago kasurik larrienak lehenengo ikustea, baina hainbeste denbora zain edukitzea ez zait bidezkoa iruditzen".

OÑATI
**> Zahor ondoko oinezkoen pasabidea**
Oñatiar batek deitu digu esanez, Zahor lantegiaren aldameneko oinezkoen pasabidean kamioiek aparkatzen dutela. "Etxera joateko handik pasa behar dut eta kamioiak egonez gero bidera atera behar izaten naiz. Ikusmen urritasuna dut eta arriskutsua da, egunen baten auto batek harrapatuko nauen beldur naiz. Udaltzainengana ere jo dut, baina oraingoz ez da arazoa konpondu".

## usteak uste

**Jon Berezibar**

# "Azkena ez ote da izango"

Horixe erantzun ziguten goiko aldean daukazuen inkesta egiterakoan batek baino gehiagok, fidakaitz. Argazkirik gura ez eta ezin haien arrapostuak tarte horretan jaso. Korrika heldu da eta " berria" ere. Aldaketa. Ezin esan ezustean harrapatu gaituenik fronteak. Lainotzar ilunak aspalditik ditugu gainean, baina hasi da trumoi hotsa eta txalaparta baina ozenago entzungo dugu , argi denez. Sasoi on zein txar ugari bizi izandako adineko emakume talde batek egin zigun izenburuan idatzitako galdera. Kalea, halere, beti geratuko zaigula zioten andreek. Azaldu genien aurten euskaraz ikasteko ahalegina egindako etorkinei eman gura zizkietela eskerrak Korrikakoek. Atzera ere mesfidati, lainotzarrei begira. "Haiek ere etorri ziren" batek, atzamarren muturrak bildu eta erakutsiz. Asteburuan igaroko da Korrika guretik.

## zorroztailea



**Elena Laka**

# 'Oimbéa'

"Euskaditik Kongora. Bernardo Atxagak mapa berri bat marraztu du *Zazpi etxe Frantzian* nobelan. (...) Oraingoan euskal idazleak abentura eleberrien atzealdea islatu nahi izan du. (...) Nobelak mundu izugarri baten alde bat kontatzen du, literatura mota honetan kontatu ohi den estaldura ideologikoaren eta poetikoaren atzean dagoena"
El País > 2009-03-28



Kontatzen du Atxagak nobela honetan Kongoko *twa* jendeak argitasun bat sumatzen zuela batzuetan gorputzaren inguruan, *oimbé* deitzen zena, eta haren kolorea aldatu egiten zela aldartearen arabera. *Oimbé*a morea zen pertsona triste sentitzen zenean, urdina pozik zegoenean, eta gorria edo beltza, berriz, larritzen zenean.

Nobelaren protagonistetako bati, Kongon kokatuta dagoen militar buru belgiarrari, hain zuzen ere, kolonizatzaile denez sarraskigilea ofizioz, poeta sentibera bihotzez, atentzioa ematen dio *oimbéa*-ren kontuak; eta adiskidetasunezko formula moduan erabiltzen du bertako beltzarengana gerturatzeko, modu horretan bere izugarrikerien lekuko mutu den horrengana gerturatzeko.

Kolonizatzaile europar kultuari bitxikeria begitantzen zaio Afrikako beltzen mundu-ikuskera, morroiek argitasuna sumatzea gorputzaren inguruan, kolore ezberdinekoa pertsonaren egoeraren arabera.

**"Kolonizatzaileari bitxia begiztatzen zaio Afrikako mundu-ikuskera"**

**"Krisiak eragindako langileen 'oimbé'-a gorria da"**

Mende bat beranduago, Afrika erdialdetik gero eta gertuago dagoen Europako bazter honetan, argi-kutsadura larregi daukagu norberaren *oimbé*-an erreparatu ahal izateko. Hala ere, ez dago aztia izan beharrik egoeraren arabera, pertsona bakoitzaren aldartearen kolorea igartzeko, koloreak kolore eta tradizioak tradizio.

Egin beharreko hausnarketa txiki hau da asmatzeko Atxaga beraren *oimbé*a une honetan lasaitasunezkoa izango dela (horia?). Patxi Lopezena, berriz, garaipenezkoa: urdina izan daiteke, nahiz eta euskaldunen artean, Patziku Perurenaren arabera, urdina kolore nahasia izan. EAJko kideek *oimbé* beltza dute, momentuz, Diputazioetako lubakietan. Euskaldunona oro har, kolorea edozein dela, iluna da bai. Eta krisiak eragindako langile guztiena, duda barik, gorria. Izaskun Jimenez, berriz, *oimbé*-rik gabe geratu da, dagoeneko. Morea, baina, berak guri guztioi utzitakoa: amorruarena, emakume zapalduekiko elkartasunezkoa.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Irati Agirreazaldegi, Jon Berezibar, Julen Iriondo **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati> 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19 Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



**> ARRASATE**
Antzerkia, ikasleen heziketarako tresna moduan, Amaia antzokian apirila bukatu arte **> 14**



**> BERGARA**
Estatu osoko gazteek auzolandegia egingo dute uztailean Mizpirualde egoitzan **> 17**



**> ELGETA**
Madrilgo dirulaguntzekin egin beharreko teilatuen konponketa lanak esleituta daude **> 20**

**OÑATI** > KOBAZULOAK

# Ikerketa batek dio bisitek ez dutela Arrikrutzeko koba hondatzen

**DATUAK**
Airearen tenperatura, presio atmosferikoa, $CO_2$ kontzentrazioa eta hezetasuna neurtu dira

**TENPERATURA GORA**
Bisitari askotariko egunetan tenperatura igotzen da, baina ez du eragin nabarmenik



Kobazuloaren sarreran, estazio klimatikoaren aldamenean eman zituen hainbat azalpen Vladimir Oterok. IRATI AGIRREAZALDEGI

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI

Bisitariek turismorako egokitutako kobazuloetan kutsadura termiko, kimiko eta biologikoa sor dezakete, airearen edo harriaren tenperaturan eragin eta korrosioa sortuz kobazulo barruan espeleologoendako interesgarriak diren formazioetan. Kobazulo turistikoetan beharrezkoa litzateke bisitarien kopurua mugatzea kontserbaziorako. Horren garrantziaz jabetuta, Oñatiko Arrikrutzeko kobetan mikroklima azterketa egin dute zabaldu zenetik iazko urtearen amaierara bitartean Alfonso Antxia elkarteko Vladimir Oterok, Jabier Lesek eta Rakel Malandak.

"Turismo mota hau bultzatu nahi dugu eta horretarako beharrezkoa da ikerketak egitea ikusteko ea koba hondatzeko arriskurik dagoen ala ondo dihardugun lanean. Natura baliabide bat bisitariendako zabaltzen denean, kontuan izan behar dira horrelakoak", esan digu Oñatiko Garapen Turismo Agentziako teknikari Ikerne Altubek.

**LAU ESTAZIO KLIMATIKO**

Azterketarako datuak hartzeko lau estazio klimatiko ipini dituzte: kanpo aldean, kobazuloko sarreran, hartzen gelan eta pasabide amaieran. Aparatu horiekin neurtu dute airearen tenperatuta, hezetasuna, presio atmosferikoa eta $CO_2$ kontzentrazioa. Horietaz gain, arrokaren eta sedimentuaren tenperatura ere neurtu dituzte hartzaren gelan, eta uraren tenperatura azken estazioan. Datu horiek hilabetean behin jasotzeaz gain, kobazuloko gidariek emandako bisitari kopuruaren eta ordutegiaren gaineko datuak ere kontuan hartu dituzte.

**ASTE SANTUAN ETA UDAN ALDAKETAK**

Egubakoitzean jakinarazi zituen emaitzak Vladimir Oterok eta konparaketarako Aloña Mendi Espeleologia taldeak aurrez egindako azterketan oinarritu da.

Arrikrutzeko 53. galerian ipinitako estazio klimatikoekin aztertu da sektore horretako masa gaseosoa eta zein eragin izan duen gizakiaren (bisitarien) presentziak kobazuloan.

"Kobazulo gehienek kanpoko tenperaturaren antzerako hozberoa dute, baina gizakiok sartzen garenean beroa jariotzen dugu. Arrikrutzeko batez besteko tenperatuta 10 gradu ingurukoa da eta gizakiona 36 gradukoa; ur lurruna eta $CO_2$ ere isurtzen dugu eta horrek kobazuloan eragin dezake", azaldu zuen Oterok.

Kobazuloa turismoarendako zabalik egon den lehen urtean egin da azterketa eta ikusi da urtebetean ez duela eraginik izan kobazuloko masa gaseosoan. "Bisitari gehien egon den sasoian, Aste Santuan edo udako oporretan, esaterako, tenperatura aldaketa txikiak sumatu dira bisitarien presentziaren eraginez, baina kobazuloa berehala itzuli da bere ezaugarri naturaletara; hortaz, ez da kontuan hartzeko moduko aldaketa", esan zuen Vladimir Oterok bisitaren ostean.

**AURTEN ERE AZTERKETA**

$CO_2$a da aldagai esanguratsuenetako bat eta modu naturalean mantendu dela dio azterketak, baita bisitari kopurua handiagoa izan denean ere. "Datuei erreparatuta ikusi da gorengo baloreak udan neurtu direla eta hilabeterik hotzenetan beherakada nabarmena izan dela. $CO_2$ iturria materia organikoaren deskonposizioa da batik bat, errekak kanpoan hazten direnean korronteen arrasteak eragindakoa. 2001ean Aloña Mendi Espeleologia taldeak egindako azterketari erreparatuz gero, ikus daiteke $CO_2$ datuak apur bat igo direla Hartzen estazioan, baina, bisitarien presentziak ez du eraginik izan. 2008an gehienezko balorea 1.765 ppmkoa izan da eta sifoiaren aldean 1642 ppmkoa; gainontzeko estazioetan 1.250 ppmtik beherakoak izan dira balore gorenak".

Hortaz, lehen urteko azterketaren ostean, esan daiteke 35.000 bisitariek eragindako ingurumen-inpaktuak ez duela aldatu natura egoera kobazuloan aztertu diren guneetan. "Klimaren eragina aztertzeko urte bat ez da nahikoa eta guk bost urte eskatzen ditugu gutxienez", dio Oterok. Arrikrutzen, oraingoz, aurten ere azterketa egingo da.

## Makarroien gelan beste estazio bat jartzea aholkatu dute

Bisitariek ikusten duten beste geletako bat da Makarroien gela. Orain ez dago datuak hartzeko inolako gailurik han, baina azterketa egin duen taldeak aholkatu du beste estazio klimatiko bat ipintzea kobazuloko pasabidearen ekialdean dagoen gelan. Izan ere, aire poltsa itxi bat sortzen da gainontzeko gelekin lotura gutxi duelako. Aire korronterik ez dagoenez beste geletan baino tenperatura altuagoa suma daiteke. Hortaz, toki horretan bisitek eragin gehien izan dezakete ingurumen-inpaktuan.



Vladimir Otero Arrikrutzeko eta Aloña Mendi Espeleologia taldekoekin. I. A.

**ARRASATE** > KORRIKA KULTURALA

# Korrikari ongietorria egiteko, ekintza ugari gaztetxoenendako

## Zapatuan tailerrak, herri probak, jokoak, kantu-txikiteoa eta beste egin zituzten Arrasaten

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Korrika bi urtetik behin etortzen da gurera eta hori gertatzen denean, nahiz eta berehala igarotzen den, euskarari eta ospakizunari ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatzen dira euskaltzale asko eta asko, txiki zein nagusi.

Datorren asteburuan zeharkatuko du Debagoiena Korrikak, eta horren aurretik gaztetxoenek Korrika Txikiak ere egingo dituzte. Ez hori bakarrik, urte hasieratik Korrika Kulturala ere indarrean dago. Ikaragarria da AEKren eta beste hainbat elkarteren eta herritarren lana. Hala, asteburu honetan bertan Arrasaten hainbat ekitaldi egin dituzte *Ongietorri, euskaraz bizi nahi dugunon herrira* lelopean.

Txatxilipurdi elkarteak Larunblai ekimenaren barruan, hainbat tailer jarri zituen zapatuan Seber Altube plazan; eta horietan txikienek Korrikaren txapak, giltzatakoak eta lekukoak egin zituzten. Ez hori bakarrik; jolasak eta herri probak ere izan ziren.

Eguerdian, berriz, Portaloi elkartekoek kantu-txikiteoa egin zuten; eta konpartsa ere ibili zen kalejiran. Pena, euriak partehartzea gutxitu egin zuela.

**ARRATSALDEZ ERE BAI**

Eguna bukatu aurretik, baina, Biterin ume ugari batu zituzten, han ere jolasak egiteko. Txikienetik hasi eta nagusietara arte zain daude guztiak Korrika noiz heldu. Ongietorri berari!




Txatxilipurdik egin ohi dituen tailerretan, Korrikaren inguruko *ekoizpena* egin zuten zapatuan: txapak, giltzatakoak, lekukoak... JOSETXO ARANTZABAL




Herri probak eta jokoak (argazkian) egin zituzten Biterin. J.A.




Korrikaren eta euskararen lagun izatea, eta AEKri babesa ematea da ekimen erraldoiaren helburua. J.A.

**ARRASATE** > ZIRKOA

# Klasikoa, baina oraindik jarraitzaileak dauzkana

Asteburuan Holiday zirkoa izan da Arrasaten, Arruena parkean; tigreak, zaldiak, pailazoak eta trapezistak izan dira protagonistak



Zaldiek dotoretasuna eta abilezia batu zituzten ikuskizunean. JOSETXO ARANTZABAL



Pailazoek umorea izan zuten lagun, aurkezpenak egiteko. J.A.



Tigreekin, ume eta gaztetxo asko jarlekuei itsatsita egon ziren. J.A.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Behin baino gehiagotan gertatu zaigu Arrasateko sarreran, Eroskiren inguruan, hain klasikoa den karpa ikustea. Azken urteotan tarteka ikusten dugun karpak Holiday zirkoa izena dauka.

Zirko horrek ez dauka jatorri, ez etxe ezta kokapen zehatzik. Holiday zirkoaren atzean antzinako tradizioa dago. Barniol familiak XX. mende hasieran ekindakoa beste hainbat belaunaldik jarraitu dute. Nongoak diren? Esango dugu uneoro errepidean daudela eta hor bizi direla.

Eguenetik atzora–domeka–arte, hainbat emanaldi egin dituzte; eta gaur atsedena egin ostean, alde egingo dute beste leku batera. Aste barruan ez horrenbeste, baina asteburuan jende nahiko izan dute.

**TIGREEK, IKUS-MINA**

Ikusleak jarlekuetara itsatsita uzten dituen ikuskizunetako bat tigreena da; hala ere, Ramsaanen aginduak betetzen dituztela ikusteak txikienak pixka bat lasaitzen ditu. Bestela, Gonzalez bikote trapezistaren eta soka gainean zintzilikatuta egoten den Gino Gonzalez mexikarraren ikuskizunak ere arnasestuak eragin zituzten une batzuetan.

Pailazoek, malabaristek eta bestelako artistek ere txalo zaparrada handiak jaso zituzten, baina txikienek gehien gozatu zuten beste unetako bat zaldien ikuskizuna izan zen. Zaldi ederrak, arinak eta gauza asko egiteko gai direnak, jakina.

Badirudi, batzuen ustez zirkoa ikuskizun zaharkitu eta ez oso etikoa den arren, beste batzuen gustukoa ere badela oraindik.

**BERGARA** > IKASTAROA

# Tai-chi eskola jaso zuten zapatuan Ipintzan 25 lagunek

Saio berezia egin zuten Tokitsu-Ryn eskola ezagutzera emateko helburuarekin



Zapatuan, tai-chi ikastaroko ikasleak ariketak egiten. J.A.

**I.A.** > BERGARA

Tokitsu-Ryn eskola ezagutzera emateko asmoz zapatuan hiru orduko tai-chi saioa egin zuten Ipintza institutuan.

Espainiako Tokitsu-Ryn eskolako zuzendari teknikoak gidatu zuen saioa eta 25 lagun inguruk hartu zuen parte, tai-chi eskoletako ohiko ikasleak gehienak.

Tai-chi eskola bakoitzak bere forma edo metodologia du eta Tokitsu-Rynena sei pausotan banatuta dagoela azaldu zigun Bergaran tai-chi eskolak ematen dituen Salva Gonzalezek. Zapatuko saioan lehenengo hiru atalak landu zituzten: estimulu ariketak egin ostean, bestelako ariketak egin zituzten modu estatikoan zein dinamikoan; azkenik tai-chiarenak diren berezko ariketak egiten jardun zuten.

**GORPUTZ ETA BURUKO OSASUNA**

Tai-chi-a erabil daiteke gorputza lantzeko eta baita borrokarako ere, baina gurean gorputz zein buruko osasunerako erabili ohi da batik bat. Zapatukoa moduko saio bereziez gain, ohiko eskolak ere izaten dira horretarako.

**HEZKUNTZA** > XIX. ESKOLA-ANTZERKIAREN JARDUNALDIAK

# Antzerkia, ikasleen heziketarako tresna moduan


Apirilaren 28an Markeliñe antzerki taldeak *Igandeetan piratek jai* obra –irudian– antzeztuko du. MARKELIÑE

Ikasleek antzerkia egin eta ikusteko aukera izaten dute jardunaldiotako hiru faseetan; bihar hasi eta maiatzaren 12an amaituko da ekimena

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasateko Udaleko Hezkuntza Sailak Kultura Sailarekin elkarlanean antolatzen dituen eskola-antzerkiaren jardunaldiak bihar hasiko dira. Antzerkia hezkuntza adierazpen moduan landuz, ikasleen artean antzerki zaletasuna bultzatzea dute helburu; ikasleak antzerkira hurbiltzea, finean.

Ikasleak, gainera, ez dira entzule pasibo soilak izango; antzezle lanak ere egingo dituzte. Hau da, antzerki zaletasuna helarazteko metodorik eraginkorrena jarriko dute praktikan: ikasleak antzezle, ikasleak diren ikusleen aurrean. Hori guztia gutxi balitz, ikasleek antzerki talde profesionalen lanak bertatik bertara ikusi eta Amaia antzokia barrutik ezagutzeko aukera izango dute, eta agertokiaren bestaldeko sekretuak lehen pertsonan ezagutu ahalko dituzte, besteak beste.

**ADIN ASKOTARIKO IKASLEAK**

Hainbat ikaslek hartzen dute parte eskola-antzerkiaren jardunaldietan; Arizmendi ikastolakoak eta Arrasate institutukoak guztiak. Hala, Haur Hezkuntzako azken bi mailetako, Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleek hartuko dute parte. Eta, betiko moduan, jardunaldiek hiru fase izango dituzte.

**HIRU FASE**

Lehen fasean, DBHko ikasleek lau obra antzeztuko dituzte LHko laugarren, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleen aurrean. Bihar eta etzi antzeztuko dute Amaia antzokian; hauexek dira antzeztuko dituzten lanak: *Gaixo*, *Itsuak*, *Hollywoodeko izarra*, *Lan baten bila* eta *Amona honekin... kontuz*. Bi emanaldi egingo dituzte eguneko, 10:30ean eta 14:45ean. Entseguak Amaia antzokian bertan burutu dituzte.

Bigarren fasea, bestalde, maiatzaren 7an eta 8an eroango dute aurrera. Egun horietan, ikasleek Amaia antzokiko instalazioak modu didaktikoan ezagutuko dituzte, Andoni Zubiaga antzokiko arduradun teknikoaren laguntzarekin.

Azkenik, jardunaldien hirugarren fasean, jardunaldietan parte hartuko duten ikasle guztiek antzerki talde profesionalen zazpi emanaldiz gozatu ahalko dute. Antzezlanok lau egin ezberdinetan izango dira: apirilaren 21ean eta 22an eta maiatzaren 5ean eta 12an.

**BI UDAL SAILEK KUDEATUA**

Eskola-antzerkiaren jardunaldiak Hezkuntza Sailaren ekintzen barruan kokatutako ekimena da. Aurrekontuaren ia zati osoa ordaintzen du Hezkuntza Sailak: 12.493 euro, hain zuzen. Bestalde, Kultura Sailak 1.000 euroko inbertsioa egin du, obren egileen eskubideak ordaintzeko. Hortaz, aurrekontu osoa 13.493 euro da. Edozelan ere, Kultura Sailaren azpiegitura da jarduera garatzeko ezinbesteko laguntzaz arduratzen dena. Hau da, batetik, Amaia antzokiko instalazioak uztea eta antzokiko arduradun teknikoaren laguntza Kultura Sailak koordinatzen du.

ANTZEZLAN PROFESIONALAK

## 2092 ikasle eta lau obra, zazpi emanalditan

Guztira lau antzerki talde profesionalek hartuko dute parte XIX. Eskola-Antzerkiaren jardunaldietan: Gar, Txalo, Markeliñe eta Malas Pulgas antzerki taldeek, hain zuzen. Gar taldeak emanaldi bakarra egingo du *Hire zain* obra taularatzeko, maiatzaren 12an. Beste taldeek, berriz, bi emanaldi egingo dituzte, 10:30ean eta 14:45ean: Txalok *Kanpanila eta Peter Panen itzala* obra antzeztuko du Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzat (maiatzak 5); Markeliñek *Igandeetan piratek jai* lana Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleentzat (apirilak 28); eta Malas Pulgas taldeak *Tormeseko Lazaro txikia* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat (apirilak 21). Guztira 2.092 ikaslek ikusiko dituzte antzezlanak.


JUAN MANUEL BERRUETA

## Gurean bizi diren soraluzetarren urteroko afaria

Badira urte batzuk Arrasaten bizi diren edo bertan lan egiten duten soraluzetarrak bildu eta mahaiaren bueltan esertzen direla bapo afaltzeko. Eta aurten ez dute hutsik egingo. Hala, dagoeneko urteroko ohitura bihurtu den afaria egubakoitz honetan egingo dute, apirilaren 3an. Afaria Alkartu elkartean egingo dute eta izena eman gura duenak ahalik eta lasterren egin beharko du, 660 76 80 19 telefonora deituz. Irudian, orain dela zortzi edo bederatzi urte egin zuten afariaren osteko argazkia.

**ERRETIRATUAK** > ABAROAKO BATZAR OROKORRA

# Lekualdaketa eta presidente berria, berbagai nagusiak

**J.B.** > ARRASATE

Abaroa elkarteko urteko batzar orokorra gaur egingo dute, 17:00etan. Batzarreko gaien artean, garrantzitsuenak dira egoitzaren lekualdaketa eta presidente berriaren aukeraketa. Hala, 2010ean zabaltzekoa den egoitza berrirako lekualdatzearen nondik norakoak jorratuko dituzte; eta amaieran presidente berria aukeratuko dute. Bi dira hautagaiak: egun presidentea den Juan Luis Lizarralde eta egungo idazkari Jose Riviere.

**TABERNA ETA LEKU BARIK**

Erretiratuek egun bizi duten egoera ez da onena, taberna barik eta euren ustez nahikoa ez den eraikineko gune batean daude-eta. Baina, Rivierek adierazi duenez, "espero genuen zerbait zen eta egoerara egokitzen saiatu gara".

> TXATXILIPURDI

## Ludotekek egitarau zabala gertatu dute eguazten eta eguenerako, Korrika datorrela ospatzeko

Txatxilipurdik Korrikaren etorrera behar den moduan ospatuko du. Aurreprestaketak egin ostean –testigu erraldoiak eta ludoteken koloreen araberako petoak egin dituzte, besteak beste–, eguaztenean Korrika Txikirako entrenamendua egingo dute. Eguenean, berriz, Korrika jaia ospatuko dute, txosna eta guzti (17:00-20:00).

**Josu eta Krutxo** > Bidaiariak

# "Denok daukagu ametsetako bidaia bat eta gu geurea egiten gabiltza orain"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Mozarten hiritik bidali dute azken kronika. Arrasateko bikote hori urte erdiko oporraldia hartu eta Europatik bidaian ibiliko dira autokarabanan. Urtarrilean atera ziren eta lehen geldialdia Alpeetan egin zuten. *Goiena.net*-en bloga ere badaukate eta bertatik jarrai daiteke haien esperientzia.**

**Urtebeteko eszedentzia hartu eta bidaia gehienon ametsa da, ezta?**

Autokarabanan ibiltzea beti gustatu izan zaigu eta duela urte batzuk bat alokatu eta Kroaziara joan ginen. Primeran pasatu genuen. Joan den urtean gurea erosi genuen eta Krutxok urte sabatikoa eskatuta zuen; hortaz, plana ia berez atera zitzaigun: furgonetan eta ezagutzen ez genituen Europako herrietara joateko aukera ezin hobea zen. Denok daukagu ametsetako bidaiaren bat. Hau da gurea, orain egiten gabiltzana.

**Eta blogarena nolatan?**

Beti izan dugu oporrak idazteko eta bideoan grabatzeko ohitura eta hasieratik aurtengo bidaia idazteko asmoa genuen. Bloga edukiz gero, ematen du behartuta zaudela gauzak pixkanaka kontatzera. Bidaia luzea izango da eta lan hori ondo antolatu behar da, ezin da bukaerarako utzi. Gainera bloga hor dago nahi duenak irakur dezan, eta argazkiak ikusteko. Eta, batez ere, familiak eta lagunak, horrela ez ditugu aspertu behar etxera gonbidatzen bazkaritxo batera eta gero bidaiako argazkiak ikustera.

**Zeintzuk dira gutxi gorabeherako asmoak, nondik ibiltzeko asmoa daukazue, zein ibilbide?**

Europako erdialdetik joango gara Itsaso Beltzeraino, hau da, Suitza, Austria, Hungaria eta Errumaniara. Handik iparraldera, Poloniara, gero Lituania, Letonia, Estoniara eta handik Eskandinaviara. Horiek asmoak dira, eta gauzak edozein momentutan alda daitezke. Orain Vienan gaude eta dena pentsatuta bezala doa, baina....

**Bidaiaren hasiera Frantziako Alpeetan izan zen, hotzak jota eta sustotxo batekin, ezta?**

Kriston sustoa izan zen. Bigarren astean erori zen Josu eskiatzen Chamonixen eta klabikulako ligamenduak apurtu zituen eta hurrengo egunean ebakuntza egin zioten. Hor ibili ginen bidaia jarraitu edo etxera bueltatu ezin erabaki. Azkenean erabaki genuen jarraitzea. Egun horietan hotz handia egin zuen, gauean -10º, -18º bitartean, baina berogailuarekin ez dago arazorik. Horregatik Krutxok gaua nirekin ospitalean pasatu zuenean, hurrengo egunean kanpinera bueltatzean, dena izoztuta topatu zuen furgonetan, hodiak, txorrotak, biltokiko ura, baita mahai gainean utzi genuen botilakoa ere izoztuta ....baina Chamonixetik jaitsi ginenean, dena hasi zen berriro funtzionatzen, ezer gertatu ez balitz bezala..

**Inbidia apur bat emateko ere balioko du blogak, edo? Zer komentatu dizue jendeak?**

Jendeari bloga asko gustatu zaio. Zelako enbidia eta halakoak urtarrilean esaten zizkiguten, justu-justu irten baino lehen eta normala dela uste dugu, ze denok amets egiten dugu bidaiaren batekin, bakoitzak bere bizitzako bidaiarekin, jakina..

**"Bloga idatzita, ez dugu zertan itzultzean familia eta lagunak argazkiekin aspertu"**

**"Austrian gaude orain eta asmoa da ekialdera joan eta Eskandinavian amaitzea"**

BLOGA

**> BIDAIA OSOA SAREAN**
Bi bidaiarien istorioak: www.goiena.net/blogak/bidaiariak .



Bi bidaiariak Alpeetan.. FLICKR/BIDAIARIAK



J.B.

## Taula elektronikoa Garibain

Datozen autobusen orduak eta ibilbidearen xehetasunak azaltzeko panel elektronikoa ipini dute dagoeneko Arrasaten. Lurraldebusen taula elektronikoa da eta Garibaiko geralekura doazen hurrengo autobusen berri ematen du. Momentuz hori da herriko geralekuetatik halako taula-elektronikoa daukan bakarra.

**MERKATARITZA** > SUSTAPEN KANPAINA BERRIA

# Afariak zozketatzen hasiko dira gaurtik, Ibai-Arte txartela dutenen artean

30 afari zozkatuko dituzte maiatza artean; aurrerago zinemarako sarrerak eta bidaiak ere oparitzen hasiko dira

**J.B.** > ARRASATE

Bezeroen leialtasuna saritzen segitu gura dute merkatarien elkartekoek. Horrela, gaur hasi eta maiatzaren 2ra artean erosketan Ibai-Arte txartelarekin egiten edo puntuak batzen dituztenean artean afariak zozkatuko dituzte. Guztira 30 izango dira Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak bezeroen artean oparituko dituen afariak Hilarionen, Santa Ana hotelean, Buenuenan, Txokon eta Arteaga landetxean, hain zuzen ere.

**AURKI OPARI GEHIAGO**

Dendarien elkartetik diotenez afarien zozketa euren asmoen hasiera besterik ez da, aurrerago zinemarako sarrerak edota bidaiak zozkatuko dituzteeta. 3.000 onuradun inguruk izango du, hortaz, sustapen hauetan parte hartzeko aukera. Horixe da, elkartetik azaldu moduan, Ibai-Arteren txartela daukaten lagunen kopurua, hain justu ere. Txartela egiteko kanpainak, hala ere, bere horretan segitzen du eta elkartera atxikitako saltokietan egin daiteke, orain arte moduan. Lehen sustapena 200 punturekin hasten da, 10 euroko opari txeke batekin.

> INEM

## Irailera bitarteko formazio eskaintza gertu daukate

Langabezian daudenendako doako formazio ikastaroak antolatu dituzte Arrasateko INEMeko bulegokoek. Ikastaro bakoitzak 15 laguneko taldea izango du eta debagoiendarrek daukate haietan izena emateko lehentasuna.

Apirilean hastekoak dira: kudeaketarako aplikazio informatikoak, erabiltzaile mailako informatika, kudeaketa komertzialerako ingelesa, web eta multimedia diseinatzailea eta 2D eta 3D planoen diseinua. Bastida akademian eta Bergarako Ikasin dira ikastaro gehienak. Maiatzera begira, nomina eta Gizarte Segurantzan aditu ikastaroa antolatuko dute eta irailean ere makina-erreminten alorrekoak edota erizaintzakoak antolatuko dituzte. Informazio eta xehetasunak INEM erakundearen bulegoetan bertan eska daitezke dagoeneko.

**ZERBITZUAK** > AGORROSIN EKINTZA GUNEA

# Urpekaritza ikastaroa berriz egingo dute

47 lagunek hartu dute parte urpekaritza 'bataioan' eta hegats bakarreko urpekaritzan; Kirol Zerbitzuak balantze ezin hobea egin du



Irudian egunotan Agorrosinen egin den urpekaritza ikastaroko partehartzaileak uretan murgilduta. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Kirol Zerbitzuak, ur jarduera zabal eta askotarikoa eskaintzeko asmoz, urpekaritza astea egin du martxoaren 23tik 26ra, Gipuzkoako Urpekaritza Jardueren Federazioarekin batera. Hori horrela, lau egunean hegats bakarreko urpekaritza ikastaroa eta urpekaritza *bataioak* egiteko aukera izan dute hainbat lagunek.

Hain justu ere, 47 pertsonak hartu dute parte. Hala, Kirol Zerbitzuak "balantze ezin hobea" egin du.

**IKASTARO GEHIAGO**

Urpekaritza *bataioari* dagokionez, izandako arrakasta ikusita, lehen mailako bestelako urpekaritza ikastaroak emateko aukerak aztertzen dihardute Kirol Zerbitzuan. Ikastaro hori ere Federazioarekin batera antolatuko dute.

Ikastaroak aurrera eginez gero, uda hasieran, ekain edo uztailean edo irailean egingo dute. Ikastaro horrek atal teorikoaz gain igerilekuan eta itsasoan egin beharreko atalak ditu eta 25 metroko sakoneko murgilketak egin ahal izango dituzte parte hartuko duten kideek.

**HEGATS BAKARRAK EROSI**

Hegats bakarreko igeriketari dagokionez, jarduera hori sustatzeko hegats batzuk erosteko aukera ere aztertzen dihardute. Hegatsok Agorrosingo erabiltzaileek erabiltzeko aukera izango lukete.

Bestalde, igerilekua dinamizatzeko ahaleginarekin jarraituz, maiatzerako eskimotaje ikastaroa antolatuko dute, seguruenik, Beti Busti piraguismo taldearekin elkarlanean.

**ASTE SANTUAN, ZABALIK**

Aste Santuan kirol eremuak irekita egongo dira Eguen-santutik Pazko-astelehenera arte.

Apirilaren 14tik 19ra, ordea, Agorrosin Ekintza Guneko kirol eremua itxi egingo dute. Izan ere, garbiketa, aurrezaintza eta konponketa lanekin batera berdegunean egiten dihardute igerileku berrirako ur eta argi hornikuntza lanak egingo dituzte.

Horrekin batera, desinfekzio eta legionella tratamenduak ere egingo dituzte.

**EMAKUMEA** > IKASTAROA

## Lotura afektiboen gaineko ikastaroa, emakumeendako

Ongizate Sailak antolatu du eta izenematea zabalik dago, doan

**M.B.** > BERGARA

Udaleko Gizarte Ongizate Departamentuak emakumeei zuzendutako lotura afektiboen gaineko ikastaroa antolatu du. Harreman afektiboak nola sortzen ditugun aztertu eta landuko da Ongizate Sailak antolatutako ikastaroan.

**HIRU HELBURU**

Ikastaroaren helburuak hiru dira: batetik, eredu tradizionalak aztertzea; bestetik, lotura afektiboak eraikitzeko dugun moduaz kontzientzia hartzea; eta azkenik, erlazioen transformazioa indartzea.

**HAINBAT GAI LANDUKO DIRA**

Hori horrela izanik, besteak beste honako gaiak landuko dira ikastaroan: rolak eta estereotipoak; autoestimua eta erlazioak; gune pertsonala: dependentea/independentea; maitasuna eta dependentzia emozionala; eredu tradizionalak; eredu berria eta harremanak besteekin.

**IZENEMATEA**

Ikastaroa apirilaren 20an hasi eta ekainaren 22an amaituko da, astelehenetan, 15:00etatik 17:00etara, eta saioak izango dira kultura etxean. Plaza mugatuak dira; hortaz, izena lehenbailehen ematea gomendatu dute Udaletik. Bestalde, doan da eta gaian interesa duen edozein emakumeri irekita dago. Informazio gehiagorako eta izena emateko Gizarte Zerbitzuetara zuzendu edo deitu 943 77 91 65 telefono zenbakira.

Zumelaga
JATETXEA
Aste bukaeratan
MENU BEREZIAK
23,50€
San Antonio 5
BERGARA 943 76 20 21

**IKASTAROA**

## Haurrak eta musika berbagai Uned-en

Musikak haurraren heziketa prozesuan duen garrantzia aztertuko dute

**M.B.** > BERGARA

Bergarako Uned zentroak *Musika eta haurrak: ikasten eta irakasten* delako ikastaroa antolatu du Hobetuz-ekin batera.

Adituen esanetan, haurrak musikarekin eraiki, erantzun eta amestu egin dezake, besteak beste, eta hori funtsezkoa da haren heziketa prozesuan. Uned-ek antolatutako ikastaroarekin haurraren heziketa eta garapen prozesuan musikak duen garrantzia balioetsi nahi dute.

Ikastaroan parte hartuko dute gaian adituak diren irakasleek, eta haurraren heziketan ardura berezia duen edonorentzat prestatutako ikastaroa da.

Ikastaroa gaur, astelehena, hasiko da eta ekainaren 19an bukatuko da.

### oharrak

BATZARRA

**> Bergarako lorategi historikoen aldeko taldeak batzarrerako deia egin du**

Herriko lorategi historikoen gaur egungo egoera eta ekintza proposamenen gainean berba egiteko batzarra deitu dute. Bihar, martitzena, izango da, 19:00etan, kultura etxean. Interesa duten herritar guztiei egiten diete dei hitzordurako.

BATZARRA

**> Orfeoiak ezohiko batzarra egingo du bihar, martitzena**

Orfeoiko zuzendaritzak dei egiten die taldeko kideei bihar, hilak 31, egingo duten ezohiko batzarrerako. Haurren koruen gaia landuko dute batzarrean. Lehenengo deialdia da 21:00etan eta bigarrena 21:30ean.

HITZALDIA

**> 'Euskaldunak eta Nafarroa' delako sortako hitzaldia**

Iñaki Egañak *1936. Memoria* delako hitzaldia egingo du apirilaren 1ean, eguaztena, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. *Euskaldunak eta Nafarroa* sortako azkeneko hitzaldia izango da.

HERRI BAZKARIA

**> Erramu-zapatuan egingo den herri bazkarirako txartelak salgai daude tabernetan**

Herri bazkariko txartelak salgai daude Ariznoa, Kortazar, Frontoia eta Pol-Pol tabernetan. Txartelaren prezioa 18 euro da. Bazkaria Udal Pilotalekuan izango da, 14:30ean. Gainera, mahoiz jantzita joateko dei egin dute antolatzaileek.

OZAETAKO ETXEAK

**> Jarri dituzte ikusgai babes ofizialeko etxeetarako onartu eta ez onartuen zerrendak**

Ozaetan eraikitzen dihardute babes ofizialeko 27 etxebizitzen, garajeen eta trastelekuen zozketarako aurkeztu direnen zerrenda –onartuak eta ez onartuak berezita– ikusgai dago udaletxeko iragarki taulan eta *www.bergara.net* helbidean. Erreklamazioak aurkez daitezke apirilaren 8ra arte.

ZERGAK

**> Udaleko trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzeko epea zabalik dago**

Borondatezko epea zabalik dago maiatzaren 29ra arte. Hortik aurrera errekarguarekin eskatuko da.

BEGIRALEAK

**> Uztaileko udalekuetarako begirale euskaldunak behar dira**

Izenematea da martxoaren 23tik apirilaren 8ra arte, Agorrosin kiroldegian dagoen Xipizaro ludotekan. Ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 17:00-20:00, eta zapatuetan, 10:00-13:00. Informazio gehiago 943 77 91 60 zenbakian.

JENDARTEA > AUZOLANDEGIAK

# Estatu osoko gazteek auzolandegia egingo dute uztailean Mizpirualde egoitzan

Udalaren ekimenez egingo da auzolandegi hori; uztailean, bi hamabostalditan banatuta egingo dute eta helburua da belaunaldien arteko elkarbizitza bultzatzea



Mizpirualde egoitzako edadetuek gazteen laguntasuna jasoko dute eta eurekin paseatu, kartetan egin, egunkaria irakurri eta beste hainbat gauza egingo dute. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Uztailean, lehenengoz, auzolandegia egingo da herrian. Mizpirualde egoitzan egingo da, eta izaera sozio-asistentziala izango du; hain justu, belaunaldien arteko trukerako egoki ikusi dute bai Udalak, baita Mizpirualdeko arduradunek ere. Hori horrela, auzolandegiko parte-hartzaileek goizetan egoiliarren dinamizazioan hartuko dute parte egoitzako animazio lantaldeko profesionalekin batera. Hori guztia, betiere, egoitzako psikologo, begirale eta gizarte laguntzaileaen gidaritzapean.

Eusko Jaurlaritzak udarako daukan auzolandegi programaren barruan dago Mizpirualdekoa. Hain justu ere, Udalak proiektua Jaurlaritzan aurkeztu zuen eta hark egoki ikusi du Begrako Mizpirualden auzolandegia egitea. Gainera, Estatu osotik etorritako gazteek hartuko dute parte.

**PROIEKTUAREN HELBURUAK**
Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzen dira, euren borondatez eta ordainetan ezer jaso gabe, aldi batez elkarrekin bizi eta gizarte osoarekin zerikusia duen proiektu batean parte hartzeko asmotan. Hori horrela, Mizpiruaideko auzolandegiaren helburu nagusia da belaunaldien arteko elkarbizitza bultzatzea, baina horrekin batera badira beste batzuk ere, besteak beste: gazteen arteko elkartasuna bultzatzea, egoitzako giroa animatzea, herritarrek adineko pertsonek gizartean duten zeregin garrantzitsuaz jabetzeko aukerak garatzea eta oroimen historikoa gorde eta mantentzea, nagusien ahozko ekarpenak batuz.

Hori horrela, auzolandegira datozen gazteek honelako jarduerak egingo dituzte nagusiekin: psikomotrizitate ekintzak, egunkaria irakurtzen lagundu, kartetan egin, paseatzera lagundu, jaiak eta jolasak antolatu eta egoitza herrira zabaltzea.

**HERRIA ERE EZAGUTUKO DUTE**
Auzolandegia bi txandatan egingo da: uztailaren 1etik 15era eta 16tik 30era.

Bestalde, parte-hartzaileek astelehenetik egubakoitzera hartuko dute parte egoitzako egunerokoan, goizez.

Arratsalde eta aste bukaeretan herria eta inguruneak ezagutzeko aukera izango dute, eta Udalak ekintza zerrenda bat ere prestatuko die, uztailean egongo diren ekitaldiak aprobetxatuta. Esaterako: San Martzialeko erromeria, San Kristobal jaiak, Turismo Bulegoarekin bisita gidatua, Oñatiko Arrikrutz kobetara bisita, mendira irteera, kostaldera irteera, herriko elkarte batean afari edo bazkaria eta beste hainbat.

JENDARTEA > KEXUA

# Mantentze gimnasiako taldea kexu da Agorrosinen egin duten eskariari ez diotelako erantzun

Ikastaroaren kuota "jakinarazi gabe" igo dietela-eta azalpenak eskatu zituzten, idatziz, Agorrosinen otsailaren 12an; ordutik hona zain daude

**M.B.** > BERGARA
Udaleko mantentze gimnasiako ikastaroa egiten diharduen taldea –martitzen eta eguenetan Mariaren Lagundian diharduen taldea– kexu da. Ikastaroaren kuota "abisatu barik igo" dietela-eta, horren gaineko argibide eske idatzia aurkeztu zuten otsailaren 12an Agorrosin Ekintza Gunean eta ordutik hona "zain" daudela diote.

**AZALPEN ESKE**
Mantentze gimnasiako ikasleen esanetan, ez daude konforme urtarrilean jasotako erreziboarekin. "33 euro kobratu digute eta irailean kontratatu genuen ikastaroa 21 eurogatik". Horren harira, honako azalpenak eskatu dizkiote Kirol Zerbitzuari egindako idatzian: batetik, jakin nahi dute ea zein den igoeraren arrazoia, eta galdetzen diete kirol arduradunei: "2008ko KPI %1,50 izanda, aplikatu diguzuen igoera da %57koa. Legala izan daiteke hori?".

Bestetik, azaltzen dute ikastaroan izena emandakoan jakin izan balute urte hasieran hainbeste igo zitekeela prezioa, hainbatek ez zukeela izena emango.

**BAZKIDEAK ETA EZ BAZKIDEAK**
Hirugarren puntuan azaltzen dute Agorrosinen galdetu duten arren ez dutela inolako azalpenik jaso. "Erreklamatzeko esaten digute", diote, "edo gutxiago ordaindu nahi baldin badugu –30 euro–, Agorrosingo bazkide egiteko. Non dago logika? Bi kirol praktikatzea edo bat beharrean bi instalakuntza erabiltzea merkeagoa da?", galdetzen dute. Bukatzeko, zera galdetzen dute: "Ezinbesteko baldintza da igerilekuko bazkide izatea beste kirol bat egiteko prezio egokian?

> JENDARTEA

## GKEen erakusketa ikusteko azken eguna da gaur, astelehena

Udalak diruz lagundutako zortzi gobernuz kanpoko erakunderen proiektu bana egon da ikusgai egunotan osoko bilkuren aretoan, eta gaur, astelehena, da ikusteko azken eguna. *Bergara solidarioa* du izena eta helburua erakundeok egindako proiektuak herritarrei ezagutzera ematea, informazio panelen bitartez. Parte hartzen duten erakundeak hauek dira: Mundu Solidarioa Helburu, Oscar Romero Solidaritza Batzordea, TAU Fundazioa, Bubisher elkartea, Komite Internazionalistak, Felix-Baltistan Fundazioa, FISC eta Mundukide.




Argazkian, Korrika 15eko lekukoa Olakua eta San Lorentzo kaleetan. GOIENKARIA

**EUSKARA** > KORRIKA 16

# Korrika Txikia eta Korrika Kulturala, aste bukaerako protagonistak

Korrika Txikia barikuan egingo dute herriko eskoletako ikasleek

Domekan 03:30ean egingo diote ongietorria Korrikari Udana gainean

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

*Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugun herrira!* lelopean Korrika 16a aste bukaeran helduko da Oñatira. Hain justu ere, domekan 03:30ean helduko da Udanara. Horren harira, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte; besteak beste, Korrika Txikia eta Korrika Kulturala egingo dituzte egubakoitzean eta zapatuan.

**KORRIKA TXIKIA**

Herriko ikastetxetako neskamutikoek Korrika Txikia egingo dute barikuan, 10:30ean. Plazan elkartuko dira ume guztiak eta ondorengo ibilaldia egingo dute: Kale Barritik Etxaluze aldera egingo dute, eta Euskadi etorbidetik Santa Marina plazara helduko dira. Bakardade kaletik plazara jaitsiko dira.

Zapatuan, berriz, Korrika Kulturala ospatuko dute. 18:30ean txorimaloak irtengo dira kalerik kale. Ondoren, 19:30ean dantzariak ibiliko dira herrian zehar. Afaldu ondoren musika izango da protagonista: 22:30ean bertso saioa egingo dute Ona taberna aurreko plazan, eta ondoren herriko musika taldeek kontzertua egingo dute. Guztiak jai giroan ibiliko dira Korrikari ongietorria egin arte: Udanan bilduko dira 03:30ean eta herrigunean 04:15ean.

**KILOMETROEN SALMENTA**

Korrika 16ak Oñatin egingo dituen 17 kilometroen banaketa asteon egingo dute zozketa bidez. Oraingoz 15 kilometro saldu dituzte Arrasateko AEKn.

> DEIALDIA

### Ipuin kontaketa Haur Liburuaren Eguna ospatzeko

Nazioarteko Haur Liburuaren Eguna ospatzeko, egubakoitzean ipuin kontaketa saioa egingo dute haur liburutegian, 18:00etan. 6 urtetik gorako umeendako saioa da eta gonbidapenak haur liburutegian banatuko dituzte. Plazak mugatuak dira.

Marian Santamaria eta Benjamin Barandalla ipuin kontalariek ahozko tradiziozko zenbait ipuin kontatuko dituzte. Ordubete inguruko saioa egingo dute.

> DEIALDIA

### Udaltzain lanpostuko lehen azterketa barikuan egingo dute

Udaltzain plazak betetzeko deialdiko lehen azterketa barikuan egingo dute ETEOn, 10:00etan. Test azterketa teorikoa egingo dute. 97 hautagaik dute aurkezteko eskubidea. NA eroan beharko dute.

Martxoaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen behin-behineko zerrendan 94 hautagai onartu zituzten, baina alegazioen ondoren hiru hautagai gehiago onartu dituzte.

> AZPIEGITURAK

### Epele eta Zubillaga arteko bidegorrirako hiru alegazio

Epele eta Zubillaga arteko bidegorriaren proiektua jendaurrean egon den bitartean, hiru alegazio jaso dituzte udal bulegoetan. Alegazioak Garapen Iraunkorreko Departamentuari bidaliko dizkiote udal arduradunek. Udalak, berriz, begi onez ikusten du Epele eta Zubillaga arteko bidegorrirako aurreikusten duten ibilbidea. Bidegorria 2011rako bukatu gura du Foru Aldundiak.

## Leongo argazki lehiaketako seigarren saria Feliz Sanchezek

Leongo Peñas de Prado mendi taldeak deitutako argazki lehiaketako seigarren saria irabazi du Felix Sanchez oñatiarrak *Mirando hacia la cima* argazkiarekin. Hain zuzen ere, 2007ko Zegama-Aizkorri maratoian Esteban Monje madrildarrari egindako argazkia da. Guztira, 160 argazki aurkeztu zituzten eta 30 onenekin erakusketa egin dute. Felix Sanchezen bi argazki daude erakusketan.




FELIX SANCHEZ

**oharrak**

HITZALDIA

**> Garapen iraunkorrari buruzko hitzaldia ikastolan**

Steve Carrek egingo du hitzaldia eguenean, hilaren 2an, 18:30ean Txantxiku Ikastolako aretoan.

HITZALDIA

**> Ahotsaren garrantziari buruzko hitzaldia**

Ganbara Txikik antolatuta *Ahotsaren garrantzia haurrarengan* delako hitzaldia egingo du Mirari Perez mediku-foniatrak. Hitzaldia kultura etxean egingo du apirilaren 1ean, 18:30ean.

**HITZALDIA** > KULTURA ETXEAN

# Kubako Iraultzaren gaineko hitzaldia egongo da bihar

### Berbaldiaz gain, Inkernu tabernan argazki erakusketa jarri dute egunotan

**M.B.** > ESKORIATZA
Bihar, martitzena, Kubako Iraultzaren gaineko hitzaldia egongo da Eskoriatzako kultura etxean, 18:00etan. Mundukideren bidez, Truke Programaren barruan, Gilberto Blanco eta Emilio Rodriguez Peñate kubatarrak *La revolución cubana 50 años después* izeneko berbaldia egitera etorriko dira.

Hitzaldi hori egingo dutenak, esan bezala, Truke Programan dabiltzanak dira. Gogorarazi behar da, horren harira, aurten, Mundukide Fundazioak urtero antolatzen duen Komunitate Garapenerako Esperientzien Truke Programak hamar urte bete dituela; hori dela eta, aurreko urteetan parte hartu duten gonbidatuak egongo dira gurean egubakoitzera arte, apirilak 3. Hemen daudela aprobetxatuz, biharko hitzaldia antolatu dute Mundukidek, Lankik eta Eskoriatzako Udalak, elkarlanean.

**ARGAZKI ERAKUSKETA**
*La revolución cubana 50 años después* hitzaldiaz gainera, Kubako Iraultzaren gaineko argazki erakusketa ere jarri zuten joan den astean Inkernu tabernan. Guztira, 20 argazki inguru daude ikusgai han, Euskadi-Kuba taldeak utzitakoak. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu du esandako argazki erakusketa.

**GAZTETXOAK** > UDALEKUAK

# Foru Aldundiko udalekuetan izena eman daiteke egunotan

### Izenematea barikuan amaituko da eta zozketa apirilaren 23an egingo dute

**M.B.** > ESKORIATZA
Gipuzkoako Foru Aldundiak 7 eta 13 urte bitarteko umeendako antolatzen dituen udalekuetan izena emateko epea dagoeneko zabalik dago. Barikura arte (apirilak 3) apuntatu ahalko dira Eskoriatzako Gazteria Zerbitzuan, honako ordutegian: martitzenean eta eguenean 09:00etatik 13:30era eta 14:00etatik 16:30era. Telefonoz ere eman daiteke, 943 71 46 88 zenbakira deituta. Diputazioak, bestalde, Internet bidez eskaera egiteko aukera ematen du, *www.gipuzkoa.net/oporraldi* atarian.

**1.970 PLAZA**
Aldundiak 1.970 plaza eskainiko ditu aurtengo Udalekuak 2009 programan. Udalekuetako txandak zazpi edo hamar egunekoak dira. Plaza horien zozketa apirilaren 23an egingo dute.

## oharrak

KORRIKA
**> Korrika Txikia egingo dute umeek eguenean herriko kaleetan**
Eguenean, 14:45ean, Eskoriatzako herriko ikastetxeetako ikasleek Korrika Txikia egingo dute kaleetan zehar. 16:30ean, txokolatea izango dute herriko plazan; nork bere edalontzia eraman beharko du; eta 17:00etan, haurrek bertsoak abestuko dituzte toki berean. Ordu erdi geroago, tailerrak egongo dira ludotekakoekin. Korrikako materiala salgai egongo da han.

ZERGAK
**> Trakzio mekanikoko ibilgailuen tasa ordaindu behar da**
Aurtengo urteari dagokion trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzeko epea iritsi da Eskoriatzan. Hain zuzen ere, zerga-ordainketa helbideratuta daukaten herritarrei apirilaren 8an egingo zaie kobrantza; ordainketa helbideratu gabe dutenek, berriz, apirilaren 8ra arte izango dute zerga hori borondatez ordaintzeko.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
**> Arantzazuko erromesaldira joateko autobusa antolatu dute**
Datorren zapatuan, apirilaren 4an, elizbarruti osoarekin batera Arantzazurako igoaldia egingo dute eskoriatzarrek. Horrenbestez, autobusez joan nahi duten herritarrek izena eman behar dute eguaztena, apirilak 1, baino lehen. Prezioa hamabi euro da. Autobusa 08:20an irtengo da Eskoriatzatik Oñatira joateko.

Leizarra musika eskolaren logotipo berria. GOIENKARIA

**MUSIKA** > LOGOTIPOA

# Leizarra musika eskolak logotipo berria du, haize instrumentu antza duena

### Arkupera joatearekin batera, eskaini beharreko irudiaren kalitatea hobetu beharra zegoela uste zuten Leizarrakoek; logotipoa horren emaitza da

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA
Aretxabaletako Leizarra musika eskolak logotipo berria estreinatuko du aurki. Oraindik horrekin funtzionatzen hasi ez badira ere, hemendik gutxira hori erabiltzen hastea espero dute hango arduradunek.

Sinbolo berria musika eskolaren hiru inizialek osatzen dute. Modu horretan, hasierako helburua betetzea lortu izan da: elementu "sinplea eta garbia" izan dadila: "Eskolaren izena sartzea ahalbideratzen du logotipo berriak, gehiegi kargatu barik", jakinarazi dute.

Arduradunen asmoa irudiak "mugimendua" transmiti zezala zen, eta pozik daude lortutako emaitzarekin. Formari dagokionez, bestalde, haize instrumentu baten antza du: hiru puntuek hiru hitzen ibilbideak eta kanpaia giltzaren irudia erakutsi gura dute.

**ERABILTZAILEEI BEGIRA**
Gainera, erabilitako letrak ere zainduak izan direla azaldu dute arduradunek: "Minuskulak erabili izanak bere esanahia dauka; horien bidez, musika eskolaren izaera ludikoena eta sortzaileena helarazi gura izan dugu". Horren harira, gogorarazi dute musika eskolako erabiltzaile gehienak umeak eta gaztetxoak direla. Leizarrakoen arabera, "logotipo horrekin eurengana gerturatzea lortuko dugula iruditzen zaigu".

Musika eskolaren sinbolo berriaren kolorea ere ez zen bat-batean erabaki: antzerkiaren munduarekin lotutako kolorea da hori, antzerkietako oihalak eta eserlekuak askotan kolore horretakoak izaten dira-eta.

**JATORRIA**
Azkenaldian hainbat aldaketa izan ditu Leizarra musika eskolak; tartean, instalazioena. Joan den urtean Arkupe kultura etxeko azken bi solairuetara pasatu zen eskola.

Toki aldaketa horrekin batera logotipo berria ere sortu beharra zegoela pentsatu zuten arduradunek: "Aldaketa ez zen mugatu behar eskolak eta ekimenak eraikin berrian egin behar zirela. Horrekin batera, eskaintzen dugun irudiaren kalitatean ere aurrerapausoa eman beharra zegoela iruditu zitzaigun". Aldaketa hori dagoeneko errealitate bihurtu da.

> ARETXABALETA

### Mitarte kaleko lanak adjudikatuko dituzte gaurko osoko bilkuran

Gaur, astelehena, osoko bilkura egingo du Aretxabaletako udalbatzak, arratsaldeko seietan. Horretan, besteak beste, hondakinen bajaz, Hiri Antolaketako arauen aldaketaz, Euskaltegiko Udalaren ordezkarien izendapenaz, Mitarte kaleko lanen esleipenaz eta kirol etxearen espedienteaz jardungo dute.

> ARETXABALETA

### Arantzazuko ibilaldira joateko izenematea luzatu egin dute etzi arte

Zapatuan, apirilaren 4an, Arantzazurako ibilaldia egingo du Donostiako Elizbarrutiak, urtero moduan. Erromesaldi horretara autobusez joan nahi duten aretxabaletarrek izena emateko aukera dute oraindik; hala, etzi, eguaztena, baino lehen eman beharko dute izena sakristian. Prezioa hamabi euro da.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA




Bariku arratsaldean korrika txikia egin zuten. SAN MARTIN ESKOLA

**ARAMAIO** > KORRIKA

# Euskararen alde korrika egin zuten etxeko txikiek

San Martin ikastetxeko 140 ikaslek herriko kaleak igaro zituzten, Korrika Txikiaren harira

**M.B.** > ARAMAIO

Korrika 16 dagoeneko Euskal Herria zeharkatzen dabil; kilometro asko ditu oraindik aurretik domekan, apirilak 5, Gasteizko helmugara heldu baino lehen. Aurtengo edizioan Aramaiotik ez du pasatzerik izango. Baina San Martin ikastetxeak Korrika Txikia berdin antolatu du.

Joan den bariku arratsaldean egin zuten euskararen aldeko lasterketa. Guztira, 140 ikaslek parte hartu zuten horretan. Ekimenari 15:00etan eman zioten hasiera ikastetxean, eta herriko kaleak korrikan eta umore onean igaro ostean, abiapuntura iritsi ziren berriro.

**LEKUKOAREKIN**

Lasterketak iraun zuen bitartean, korrikalariek lekukoa eraman zuten. Azken horren barruan, Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako ikasleek asteon mailaka asmatutako koplak zeuden. Korrika 16rako AEK-k aukeratutako mezua kontuan hartu dute koplak egiteko. Euskal Herrira heldu, euskara ikasi eta erabili eta belaunaldiz belaunaldi hizkuntza transmititu duten milaka familiak kontuan izan dituzte, hain zuzen. Helmugara iristean, lekukoa zabaldu eta koplak irakurri zituzten.

**URKIOLARA IRTEERA**

Korrika Txikiaz gain, biharko Korrikarekin zerikusirik ez duen beste ekimen bat antolatu dute ikastetxean. Lehenengo eta bigarren mailetako ikasleak Urkiolara joango dira egun pasa, inguruko fauna eta landaretza eta ingurune horretako kondairak ezagutzeko; tartean, Mariren gaineko kondairak entzungo dituzte paraje eder horretan.

**ANTZUOLA** > KIROL AZPIEGITURAK

## Hasi dira Eztalako futbol zelaia egokitzeko lanak, belar artifiziala ipini ahal izateko

Ekainaren erdialderako zelaia egokitu nahi dute, eta uztailerako belar artifiziala ipinita egotea da asmoa

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Joan den astean hasi ziren Eztalako futbol zelaia berritzeko obrak. Bota dituzte futbol zelaia inguratzen zuten egurrezko hesiak eta ateak kendu egin dituzte. Gainera, makina gertu dago laster hondeatze lanak hasteko.

Orain, neurketak egin ostean, obra zibilarekin hasi behar dute langileek, proiektuaren lehen fasearekin, hain zuzen ere. Lehen fase horretan zelaia gertatuko dute ondoren belar artifiziala ipintzeko, ureztatze sistema ere egokituko dute eta baita atletismo pista eta hesiak berritu ere. Lanok ekainaren erdialderako amaituta egotea espero dutela esan digu Pedro Iturbe alkateak.

Behin lanok amaitu ostean, bigarren fasearekin hasiko dira: zelaian belar artifiziala ipintzen, hain zuzen. Bi edo hiru aste beharko dituzte horretarako; hortaz, Udaletik uste dute futbol zelaia berrituta eta gertu izango dela uztailerako. Apirilaren 1eko udalbatzarrean landuko duten gaietako bat da belarra jartzeko obren kontratua.

**PARTIDUAK OÑATIN**

Obrak hasi dira, eta joan den martitzenean Eztalan egin zuten azken entrenamendua Antzuola Kirol Elkarteko futbolariek. Hemendik aurrera, ordea, Bergaran egingo dituzte entrenamendu saioak, Ipintzako futbol zelaian, hain zuzen ere. Partiduak, berriz, Oñatin jokatuko dituzte, Azkoagainen. Hortaz, denboraldi amaierara arte etxetik kanpora ibiliko dira futbolari antzuolarrak.

**ELGETA** > FONDO ESTATALAK

# Amaral enpresak konponduko ditu herriko hiru teilatu

Udal batzarrak egueneko osoko bilkuran esleitu zituen Madrildik jasotako dirulaguntzarekin egingo diren berritze lanak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Udaletxeko, Bolatokiko eta kirol instalazioetako teilatuak konponduko ditu Aretxabaletako Amaral de Sousa S.L. enpresak 186.015 euroren truke. Eguenean egindako martxoko osoko bilkuran esleitu zituen lanok udal batzarrak.

Zapaterok emandako Estatu Fondoko dirulaguntzarekin finantzatuko ditu Udalak berritze lan horiek. "Asmoa da teilatu horietan teila zaharrak kentzea, isolamendu termikoa ipintzea eta, atzera ere, teila berriak ipintzea", adierazi du Ricardo Landa udal aparejadoreak. 2009ko aurrekontuan Udalak onartuta daukan inbertsio garrantzitsuenen artean aurkitzen da honakoa.

**HIRU HILABETEKO EPEA**

Amaral enpresak lanok hiru hilabeteko epean burutu beharko ditu. Aurreikuspena da, beraz, jaietarako udaletxeko teilatua konponduta egotea eta beste biak uztailaren 15erako amaituta egotea. Lan horiek %100ean Madrildik etorritako dirulaguntzarekin finantzatuko ditu Udalak.



Udaletxeko teilatua jaietarako konponduta egotea aurreikusten da. J.A.

**LEINTZ GATZAGA** > AUTOBIDEA

## Autobideak ez duela aldaketarik ekarriko diote

Debalde den artean erabili egingo dela uste du Gatzagako Udalak, baina gero ez

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 6an, astelehena, zabalduko dute Eskoriatza eta Luku (Araba) arteko autobide zatia eta lehen hiru hilabeteetan debalde izango dela iragarri dute –Eskoriatza eta Arrasate arteko zatia zabaldu arte–. GI-3681 errepidetik, Gatzagako errepidetik, egunean 5.000 bat automobil dabiltza gora eta behera. Izan ere, Arlabango errepidea baino nahiago dute auto gidari gehienek Gatzagako errepide zaharra. Eta autobidea zabaltzerakoan auto gutxiago ibiliko dira GI-3681 errepidean. Askok hala uste badute ere, Gatzagako alkate Eusebio Villar ez dago horren seguru: "Bai, Gasteizera doazen gidari askok hartuko dute autobidea lehen hilabeteetan, debalde den artean, baina gero, ez dut uste. Ikusi egin behar da zenbat ordaindu beharko den, baina uste dut Eskoriatzakoendako ez dela oso erosoa, ia Ederlan lantegiraino joan behar dutelako herrira sartzeko gero".

**BIDE SARRERAK ZABALDU**

GI-3681 errepideak bihurgune asko eta tarte estuak ditu. Gainera, Gatzagako baserri batzuetara joateko sarrerak ez dira oso seguruak. Horregatik, sarrera horiek zabaldu egingo ditu Udalak, Landagipuzkoa egitasmoaren laguntzarekin. Errepide Saila egingo da lan horien kargu, eta, onartuta egon arren, oraindik ez diote jakinarazi Udalari noiz hasiko dituzten.

# Kirola



**> TXIRRINDULARITZA**
Mikel Landa irabazle Gorlako igoeran, kilometro bat faltan eraso egin eta gero > 22



**> FUTBOLA**
Aretxabaletako gazteak maila Nazionalera igo dira, liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan > 24



**> ESKUBALOIA**
Talde on bati irabazita, agurtu dituzte Ford Mugarrikoek Iturripeko zaleak > 25

**PILOTA** > UDABERRI TXAPELKETA

# Bergarak jokatuko du finala, Arrasateri 22 eta 20 irabazita

**PAREKATUA**
Ez zen alde handirik izan ibarreko bi bikoteen artean

**HUTSEGITEAK**
Partidu kaxkarra izan zen, nahiz eta tarteka tanto politak ikusi

**URIBARREN**
Arrasateko atzelaria min hartuta egon da, eta bera zigortu nahi izan zuten etxekoek



**MUGURUZA** Bi aurrelarietan Bergarakoa izan zen jokoan gehien sartu zena; argazkian, pilota jotzeko gertu.
JULEN IRIONDO

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Bergarako bikotea Muguruzak eta Larrañagak osatu zuten, eta Agirrek eta Uribarrenek Arrasatekoa. Neurketak hasiera txarra izan zuen. Hutsegiteen ondorioz erabaki ziren aurreneko tantoetan gehienak. Poliki-poliki hasi ziren aurrelari biak jokoan gehiago sartzen eta sartzen zirenetan gehiago asmatzen. 3 eta 0 aurreratu ziren markagailuan bergararrak, baina gauzak laster parekatu ziren eta bosgarren kartoian bat egin zuten bi bikoteek.

Ez zen partiduan alde handirik egon markagailuan. Gehienean bizpahiru tantokoa zen diferentzia; hori bai, beti etxekoen alde. 9 eta 6 aurreratu ziren berriz ere Bergarakoak. Oraindik ere huts egindako tantoak gehiago ziren, egindakoak baino. Erdilanetan 11 eta 10, etxekoak nagusi.

**URIBARRENEN BILA**

Tantoak pasatu ahala, gero eta garbiago ikusten zen bikote bakoitzak nola irabazi nahi zuen partidua. Uribarren gerrian min hartuta izan da denbora batez, eta Arrasateko atzelaria ez zegoen sasoi betean domekako partiduan. Horrela, bazirudien ez zuela neurketa larregi luzatzeko gogorik. Aukera zuenean bera saiatzen zen atzetik pilota jaisten, txapa gainean mozten eta zabaltzen. Agirre aurrelariak, berriz, ez zuen Uribarreni nahi beste laguntzeko aukerarik izan.

Bergarako bikoteak bazuen atzelari arrasatearrak berriki izandako arazoen berri, eta hura nekatzera jo zuen. Gero eta agerikoagoa zen Uribarrenen oinen pisua. Hala ere, dezente aguantatu zuen. Azkenerako ia oinez joaten zen pilotaren bila, baina etxekoek ez zuten berehalakoan tantoa egitea lortzen. Aurreko koadroetan, Muguruza Agirre baino gehiago sartu zen jokoan, eta tanto polit batzuk lortu zituen: ederra izan zen 13 eta 12koa, zabaletik zabalera moztutakoa.

15 eta 12 aurreratu ziren Bergarakoak, baina hamabosna eta hamaseina berdindu zuten arrasatearrek. Aurretik jartzea ere lortu zuten gainera: Agirrek ezkerrez txapa gainean moztu zuen txokoan, kanpokoen hamazazpigarrena egiteko. Beste bi alditan bakarrik ziren aurretik egonak, baina tanto bakarreko aldearekin, 6 eta 5 eta 12 eta 11. Aldea bikoa ere izan zitekeen, baina hurrengo tantoa berriz jokatuarazi zuen epaileak: Uribarrenek bi pareta egin zuen ezkerrez; pilotaren bila zihoala Muguruzak Agirrerekin egin zuen tupust; Agirre geldi zegoen. Horrelakoak gutxitan jokatuarazten dituzte berriro epaileek.

20 eta 17 jarri ziren aurretik etxekoak, baina berriz ere berdinketa jarri zuten arrasatearrek. Azken txanpan ere huts egindako tantoak izan ziren gehienak. Bergararrebn alde jausi zen tanto luze eta nekagarri baten ostean, sake errestoa gora joan zitzaion Uribarreni, eta 22 eta 20 amaitu zen partidua. Bergararrek Usurbilen kontra jokatuko dute finala, herrian bertan, datorren domekan.

ESANAK

**"Bagenekien Uribarren gerriko minarekin ibilia zela, baina uste baino gehiago agoantatu du"**

**"Guk huts asko egin ditugu; finala irabazteko hobeto jokatu beharko dugu"**

**Eneko Muguruza** > Pilotaria


Caja Ruraleko bi txirrindulari gainditu ostean, helmugara heltzear zela jo zuen erasoa Mikel Landak. GOIENKARIA

**AFIZIONATU MAILA** > GORLAKO IGOERA

# Naturgas taldeko Mikel Landa izan zen lehen txirrindularia Gorlako helmugan

Bigarren egin zuen Caja Ruraleko Garikoitz Bravok eta Seguros Bilbaoko Alberto Morrasek hirugarren

Taldekako Caja Rural izan zen lehenengo eta Naturgas Energia eta Seguros Bilbao ondoren

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
Eguraldi narratsa zegoen iragarrita domekarako eta hotza izan arren euriak errespetuz jokatu zuen txirrindulariekin lasterketan eta helmugan. Tanta batzuk jausi baziren ere, ateri egon baitzen denbora gehienean.

Gorlako gainean lehena aurten Soraluzeko lasterketa ere irabazi duen Naturgas Energia taldeko Mikel Landa arabarra izan zen 2:27:45ko denbora eginez. Denbora berarekin sartu ziren helmugan Landaren atzetik Garikoitz Bravo Caja Rural taldekoa eta Seguros Bilbao taldeko Alberto Morras. Taldekako sailkapenean Caja Ruralek lortu zuen lehen postua Naturgas Energiaren eta Seguros Bilbaoren aurretik.

San Martin plazan abiatu ziren goizeko hamarretan 129 txirrindulari. Lasterketa nahiko lasai joan zen hasieran eta ihesaldi txikiak baino ez ziren ikusi. Bergarako sarreran, Ondartzako biribilgunean, izandako erorketa batek, ordea, taldea luzatu eta lasterketa apurtu zuen, talde txikiak sortuz.

Gorlarako lehen igoeran ihesaldi txikiak izan ziren, baina talde nagusiarekiko apenas atera zuten tarterik eta Gorlako gainetik ere talde txikietan baina batera samar pasa ziren txirrindulari gehienak.

Elosu, Aizpurutxo, Urretxu eta Zumarragan barrenako ibilbidea egin eta Deskargako mendatetik Bergararako bidean txirrindulariak elkartzen hasi ziren eta lasterketa motza izanik Gorlako Igoeran gehienetan gertatzen den moduan domekan ere igoeran erabaki zen irabazlea; azken kilometroan gainera.

> **DATUA**
>
> **129**
>
> **TXIRRINDULARI**
>
> **Domekan, goizeko hamarretan, Bergarako San Martin plazatik 129 txirrindulari abiatu ziren 14 taldeta ordezkatuz. Gorlako helmugara, ordea, 64 lagun ailegatu ziren ibilbidea osoa eginda.**

**AZKEN KILOMETROAN ERABAKIA**
Gorlarako bigarren igoeran Caja Ruraleko bi txirrindulari abantaila apur batekin igotzen hasi ziren eta kilometro batzuk bakarrik egin bazituzten ere, atzetik zetorren taldean Naturgas Energiako txirrindulariak tiraka hasi eta gero irabazle izan zen Mikel Landak aurrera egin zuen Alberto Morrasekin. Azken kilometroan, ihes eginda zihoazen Caja Ruralekoak harrapatu eta Landak indartsu egin zuen aurrera helmugara lehenengo iritsi arte.

Sari banaketaren ostean, Mikel Landak ere hala azaldu zigun lasterketaren bukaera: "amaieran, ihesi joan dira bi txirrindulari eta atzetik lan egin behar izan dugu, eta azken kilometroan harrapatu ditut Caja Ruraleko bi txirrindulari eta hor jokatu da lasterketa, gogorrena izan naiz eta helmugan lehena".

Gustura zen emaitzarekin eta lasterketa "azkarra eta bihurria" izan zela esan zigun. "Hasieran bakarrik joan naiz baina gero taldekideak agertu dira eta oso ondo irten zitzaidan amaiera, zortea izan nuen".

Lehenengo Gorlako pasadan Caja Ruraleko bost txirrindulari eta Seguros Bilbaoko beste laurekin geldituzen Mikel Landa, bere taldeko txirrindulari bakarra. "Besteak aurkari gogorrak ziren eta ni bakarrik nindoanez, lasterketa zaila izan zen, tarte horretan batez ere. Baina taldekideak azaldu zirenean elkarlanean jardun genuen eta emaitza ona izan zen".

Irabazlea pozik eta baita antolatzaileak ere. Iaz baino partaide gutxiago izan arren maila onekoak izanik proba polita izan da.

IparProject
www.iparproject.com

Etxebizitzen ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa
Telleria 23, D5 pabilioia Labegaraieta Industrialdea BERGARA Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44

**AFIZIONATU MAILA** > GORLAKO IGOERA

# Hiru txirrindulari debagoiendarrek utzi egin zuten lasterketa

## Asier Penabadek erorikoa izan zuen Ondartzako biribilgunean; Iban Caballero eta Xabier Arnaiz Gorlarako aldapan erretiratu ziren

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
Hiru txirrindulari debagoiendarrek hasi zuten lasterketa domekan Bergarako plazan: Asier Penabad eta Iban Caballero Debabarrena taldeko bergararrek eta Bruesako Xabier Arnaiz oñatiarrak. Lasterketa aurrera joan ahala, ordea, hirurek utzi egin zuten.

Penabad eta Caballero osasunez motel ibili dira eta horrek izan du eraginik. "Zalantza izan dut irten ala ez, zapatuan sukarra izan nuelako. Irten naiz eta nahiko ondo nentorren arren, Ondartzako biribilgunean jausi egin naiz; kanbioak eta katea gaizki nituen, zapatila apurtuta eta atzean geratu naiz. Erabaki dut hobe zela erretiratzea eta ondo sendatzea, ezinean ibiltzea baino", esan digu Penabadek.

Iban Caballerok ere astean barrena ez du entrenamendu saiorik egin katarroa izan duelako eta sumatu du hori lasterketan: "Hasieratik izan da gogorra. Lauan asko kosta zait erritmoa hartzea; igoeran ere atzean hasi naiz eta ondorioak izan ditu horrek. Tropelean Gorlako hirugarren kilometroraino joan naiz eta gero behean gelditu naiz".

**LEHEN URTEA AFIZIONATU MAILAN**
Xabier Arnaizek Gorlarako lehenengo igoeran, erdi inguruan utzi du lasterketa. "Afizionatu mailan berria naiz eta gainontzekoek martxa hartua dute. Nik ezin nion erritmo horri ondo segi. Hala ere, erretiratu naizenera arte ondo ikusi dut nire burua lasterketan".


Asier Penabad bergararra Bergarako plazan lasterketa hasieran. I. AGIRREAZALDEGI

**DENBORALDIKO ASMOAK**
Gorlako lasterketa utzi arren , badituzte proba mordoa aurrerantzean. Penabadek esan digu sasoi aldetik nahiko ondo dabilela: "Aurrean ibiltzea nahiko zaila da , baina ihesaldietan muturra sartzen saiatuko naiz eta aukerak aprobetxatuz ahal bada postu politen bat lortzen".

Iban Caballerorendako denboraldia luzea da eta espero du uda partean gogor entrenatzen hastea. "Iaz ere uda pasa ostean hasi nintzen. Udara bitartean ikastea tokatzen zait bai unibertsitatean eta baita lasterketetan ere; eta lasterketetan ahalik eta gehien ematen ahaleginduko naiz".

Xabier Arnaizek denboraldi honetarako ez dauka asmo zehatzik: "Ahal dudana egitea eta etorri beharrekoa etorriko da. Gainera, kontuan hartu behar da lehen urtea dela niretzat eta oraindik aurretik baditudala urte batzuk maila hobetzeko eta egin dezakedana erakusteko. Orain tropeleko kideak nahiko gogorrak dira", esan digu oñatiarrak.

### Gorlako Igoerako sailkapena

| LEHENENGOAK | |
|---|---|
| 1. Mikel Landa | 2:27:45 |
| 2. Garikoitz Bravo | 2:27:45 |
| 3. Alberto Morras | 2:27:45 |
| 4. Arturo Ariño | 2:28:13 |
| 5. Igor Merino | 2:28:17 |
| 6. Higinio Fernandez | 2:28:17 |
| 7. Adrian Legasa | 2:28:26 |
| 8. Aitor Ocampos | 2:28:26 |
| 9. Francisco Javier Moreno | 2:28:26 |
| 10. Panlo Torres | 2:28:28 |
| 11. Jagoba Arberas | 2:28:40 |
| 12. Pello Bilbao | 2:28:40 |
| 13. Hasier Olea | 2:28:40 |
| 14. Borja Sanchez | 2:28:53 |
| 15. Mikel Bizkarra | 2:28:53 |
| 16. Jose Vega | 2:28:53 |
| 17. Josue Gonzalez | 2:28:53 |
| 18. Pablo Marcano | 2:29:04 |
| 19. David Gonzalez | 2:29:04 |
| 20. Sergio Ruiz | 2:29:04 |
| 21. Jose Miguel Fernandez | 2:29:18 |
| 22. Roberto Fernandez | 2:29:18 |
| 23. Antton Ibarguren | 2:29:18 |
| 24. Aritz Bagues | 2:29:18 |
| 25. Jon Urtizberea | 2:29:18 |
| 26. Jon Izagirre | 2:29:18 |
| 27. Jesus Maria Linares | 2:29:20 |
| 28. Imanol Iza | 2:29:20 |
| 29. Ruben Cuesta | 2:29:47 |
| 30. Ivan Gonzalez | 2:29:47 |

| TALDEAK | |
|---|---|
| 1. Caja Rural | 07:24:24 |
| 2. Naturgas Energia | 07:25:05 |
| 3. Seguros Bilbao | 07:25:29 |
| 4. Ibaigane Opel | 07:27:31 |
| 5. Bruesa | 07:27:54 |

**GAZTE MAILA** > UZARRAGAKO IGOERA

# Mikel Elortza azkoitiarra izan da indartsuena Antzuolan, eta herriko Xabier Aranzeta zazpigarren

## Ihesaldi ahalegin asko izan ziren, baina azken 15 kilometroetara arte ez zen talde ona sortu

## Uzarragan gora Elorzak eta Intziartek egin zuten hamarreko taldetik aurrera

**JULEN IRIONDO** > ANTZUOLA
Gazte mailako 82 txirrindularik hartu zuten parte Aiastui lagunarteak antolatzen duen Uzarragako igoeraren XXXV. edizioan. 81 kilometro izan zituen probak: Antzuola eta Oñati artean hiru joan-etorri, goian amaitzeko.

Ohi bezala, mugimendu askokoa izan zen lasterketa. Kontrol lanak egingo zituen talderik ez zegoen, eta asko izan ziren ihesaldi ahaleginak. Ez zuten, ordea, denbora askorik hartzea lortzen. Ihesaldi ona azken 15 kilometroetan sortu zen. Oñati eta Antzuola artean 40 segundoko aldea hartu zuen hamar laguneko talde batek, eta denbora horrekin hasi zuten Uzarragarako azken igoera. Aurrekoen batasunak, ordea, ez zuen asko iraun. Lehenengo maldetan erasoa jo zuen Mikel Elorzak, eta Unai Intziarte izan zen gertutik jarraitu zion bakarra. Bien arteko esprintean erabaki zen lasterketa. Taldetxoko gainerako kideetan batzuk harrapatu egin zituen tropelak, baina gehienek aurretik sartzea lortu zuten. Uzarragako igoera tropelean hasi zutenen artean, aurrealdean iritsi zen helmugara Xabier Aranzeta antzuolarra. Sumofic taldeko mutilak zazpigarren amaitu zuen, 32 segundora.


Ihesaldi ona hartu ezin, baina aurreko postuetan amaitu zuen Aranzetak; argazkian, 58 dortsalarekin. JOSETXO ARANTZABAL

### sailkapena

| UZARRAGAKO IGOERA | |
|---|---|
| 1. Mikel Elorza (Lan Mobel) | 2:03:44 |
| 2. Unai Intziarte (Azpiru) | d.b. |
| 3. Paul Usabel (Elorriaga) | 0:07ra |
| 4. Mikel Iturria (Andoaingo) | 0:07ra |
| 5. Jon Ander Insausti (C. Rural) | 0:17ra |
| 6. Mikel Mitxelena (Diproca) | 0:28ra |
| 7. Xabier Aranzeta (Sumofic) | 0:32ra |
| 8. Eñaut Pagola (Buruntzazpi) | 0:32ra |
| 9. Ioritz Urdangarin (C. Rural) | 0:32ra |
| 10. M. Madinabeitia (L. Mobel) | 0:59ra |

Mikel Elortza azkoitiarrak sasoi onean dagoela erakutsi zuen beste behin ere. Denboraldiko bigarren garaipena du Antzuolakoa; Otzaurteko gainean amaitu zen Zegamako lasterketa irabazi zuen aurreko asteburuan.

Uzarragako igoeran irabazlearen bataz besteko abiadura izan zen 39,28 kilometro orduko, eta lasterketa hasi zuten 82 txirrindularietatik 44k amaitu zuten. Gazte mailako egutegiak Deban izango du hurrengo hitzordua. Han jokatuko da datorren zapatuan Amaikak-Bat sariketa.

**GAZTE MAILA** > EUSKAL LIGA

# Nazional mailan ariko da UDA historian aurrenekoz

## Aretxabaletakoek igoera lortu zuten zapatuan; lorpen handia egin dute, bi denboralditan bi maila igo

ARETXABALETA
**4-0**
EL PILAR

**JULEN IRIONDO** > ARETXABALETA
Ikaragarria; bikaina; sinesteko zaila; mundiala. Horiek guztiak datozkio ondo Aretxabaletako gazte mailako taldeak denboraldi honetan egin duenari. Aurten egindakoari aurreko denboraldikoa batuta, zaila da egindakoa izendatzeko hitz aproposak aurkitzea. Zalantza barik, oso gutxiren eskura dago bi denboralditan bi maila igotzea; jokalari belaunaldi ezin hobe batek baino ez dezake hori lortu.

Igoerak ezustean harrapatu ditu taldeko kideak ere, bai jokalariak eta baita Iban Rodriguez entrenatzailea bera ere. Honela azaltzen du berak: "Denboraldi hasieran elkarrizketa egin genien, banan-banan, jokalari guztiei. Galdetu genien ea non ikusten zuten taldea liga amaieran. Jokalari baikorrenak adierazi zuen mailari eutsiko geniola. Hori baikorrenak. Baina denboraldia aurrera joan ahala aldatu egin da kontua".

**ATHLETICEKIN ETA REALAREKIN**
Denboraldi osoa egin du Aretxabaletak onenen artean. Bi partidu baino ez ditu galdu, eta liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan lortu du igoera matematikoki. Hiru talde igoko dira zuzenean Euskal Ligatik Espainiako Liga Nazionalera, eta hirugarren postua ziurtatu du Aretxabaletak. Leioa eta Sestao ere goian daude dagoeneko, liga nork irabaziko duen zehaztea bakarrik falta da orain: "Inork ez zuen halakorik espero, baina partidu guztietan izan gara lehiakorrak".

Historian aurreneko aldiz jokatuko du Aretxabaletak kategoria horretan. Realaren eta Athleticen gazte mailako bigarren taldeekin neurtu beharko dituzte indarrak, besteak beste.

Igoera lortzerako bidean azken urratsa erraz egin zuen UDAk. El Pilar azken sailkatua hartu zuten aretxabaletarrek zapatuan Ibarran, eta etxekoek eragozpen barik irabazi zuten partidua. Ezkibelek hiru gol egin zituen, eta Andresek bestea.



Jokalariek gogoz ospatu zuten garaipena. JOSETXO ARANTZABAL

**PREFERENTEA** > JARDUNALDI OPAROA

# Talde nagusiak ere tinko jarraitzen du igoerara bidean

**J.I.** > BERGARA
Preferenteko lidertzan jarri zenetik gero eta sendoago ageri da Aretxabaleta, eta gaur gaurkoz Igor Gordobilen taldea da 3. mailara igotzeko hautagai nagusia.

Trintxerperen zelaian partidu ona jokatu zuten aretxabaletarrek, eta agian jokoan markagailuak erakusten duen besteko alderik izan ez arren, merezita irabazi zuten. Bi taldeek izan zituzten aukerak, baina UDAk baino ez zuen asmatu.

Aurreneko gola lehen zatiaren erdi aldera egin zuen Espinosak kontraerasoan; bigarrena 59. minutuan iritsi zen, eta Haritz Igartua izan zen egilea. Penaltia huts egin zuten gero etxekoek, eta azken 0 eta 3koa Imanolek egin zuen faltaz.


Asier Ugartek sartu zituen Aloñaren hiru goletako bi. GOIENKARIA

**ALOÑA ETA MONDRA ERE ONDO**
Aloña Mendik 2 eta 3 irabazi zuen Hondarribian. Birritan egon zen atzetik Aloña, baina Ugarteren (2) eta Garmendiaren golekin irabazi zuten Oñatikoek. Mondra, berriz, 0 eta 2 egon zen irabazten Ondarroan. Lazpiurrek eta Arazkonagak egin zituzten golak. Etxekoek, baina, berdintzea lortu zuten.

**EMAKUMEAK**

# Multzoburu amaitzeko urrats handia

MONDRA
**9-0**
ANAITASUNA

**J.I.** > ARRASATE
Erraz irabazi zion Mondrak Anaitasunari emakumeen igoera fasean. Atsedenaldirako 4 eta 0 ari ziren irabazten, eta bigarren zatian beste bost gol egin zituzten joko onaren ondorioz.

Arrasatearrek lehenengo jarraitzen dute, Tolosarekiko alde handiarekin. Multzoko aurrenekoak beste multzoko onenaren kontra jokatu beharko du, eta partidu horretako irabazleak Araba eta Bizkaiko txapeldunekin.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Aretxabaleta** | **55** | 27 |
| 2. **Hernani** | **50** | 27 |
| 3. **Tolosa** | **49** | 27 |
| 4. **Pasaia** | **47** | 27 |
| 5. **Real Union** | **46** | 27 |
| 6. **Trintxerpe** | **45** | 27 |
| 7. **Berio** | **44** | 27 |
| 8. **Aloña Mendi** | **44** | 27 |
| 9. **Hondarribia** | **42** | 27 |
| 10. **Idiazabal** | **41** | 27 |
| 11. **Ondarroako Aurrera** | **35** | 27 |
| 12. **Euskalduna** | **29** | 27 |
| 13. **Mondra** | **27** | 27 |
| 14. **Mundarro** | **24** | 27 |
| 15. **Vasconia** | **23** | 27 |
| 16. **Anaitasuna** | **22** | 27 |
| 17. **Zumaiako** | **20** | 27 |
| 18. **Amaikak Bat** | **16** | 27 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Vasconia-Pasaia | 0-3 |
| Real Union-Berio | 1-1 |
| Hondarribia-Aloña Mendi | 2-3 |
| Ondarroa-Mondra | 2-2 |
| Amaikak Bat-Tolosa | 0-1 |
| Zumaiako-Astig.Mundarro | 0-0 |
| Hernani-Idiazabal | 2-1 |
| Trintxerpe-Aretxabaleta | 0-3 |
| Anaitasuna-Euskalduna | 0-2 |

**Hurrengoak**

UPV7EHU Vasconia-Anaitasuna
Pasajes-Real Union
Berio-Hondarribia
Aloña Mendi-Aurrera
Mondra-Amaikak Bat
Tolosa-Zumaiako
Mundarro-Hernani
Idiazabal-Trintxerpe
Aretxabaleta-Euskalduna

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Aretxabaleta-Eibartarrak | 1-1 |
| Mondra-Lagun Onak | 0-4 |
| Elgoibar-Bergara | 0-3 |
| Tolosa-Antzuola | 1-1 |
| BTLS-Orioko | 0-1 |
| **BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Landetxa-Bergara | 4-1 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara-Alaves | 2-2 |
| Aretxabaleta-El Pilar | 4-0 |
| **OHOREZKO GAZTEAK, KOPA** | |
| Aloña Mendi-Tolosa | 4-2 |
| **LEHEN MAILAKO GAZTEAK, IGOERA** | |
| Lengokoak-Mondra | 2-5 |
| **1. MAILAKO GAZTEAK, KOPA** | |
| Bergara-Amaikak Bat | 0-9 |
| Eibartarrak-UDA B | 4-4 |
| **OHOREZKO KADETEAK, IGOERA** | |
| Real Sociedad-Aretxab.Arizmendi | 4-0 |
| Sanse-Bergara | 1-2 |
| **OHOREZKO KADETEAK, KOPA** | |
| Aloña Mendi-Hernani | 0-2 |
| Arrasate-Zarautz | 0-1 |
| **KADETEEN 1. MAILA, IGOERA** | |
| Aretxabaleta-Mundarro | 0-2 |
| **KADETEEN 1. MAILA, KOPA** | |
| Zestoa-Arizmendi | 7-0 |
| Mutriku-Aloña Mendi | 6-2 |
| Ikasberri-Bergara | 6-0 |
| **EMAKUMEEN IGOERA FASEA** | |
| Zumaiako-Arizmendi | 4-2 |
| Mondra-Anaitasuna | 9-0 |

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Talde on bati irabazita agurtu dituzte etxekoek Iturripeko zaleak

Ligako partiduetan Arrasaten jokatu beharreko azkenekoan joko azkarra egin zuten Edu Orgazen mutilek, bizkaitarren defentsa ona gaindituz

FORD MUGARRI ARRASATE
**30-29**
ASKARTZA

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Iturripeko agurrekoan garaipena lortzeko alde baino kontra gauza gehiago zituztela pentsa zitekeen, baina horiek guztiak gainditu eta azken jardunaldietako bolada onarekin jarraituz etxeko zaleei garaipen polita oparitu zieten arrasatearrek.

Ford Mugarrikoek azken jardunaldietan ezer gutxi jokoan; Askartzak, ostera, liga aurreneko bi postuetako baten amaitzeko aukera oraindik. Eta gainera, lehen taldeko bederatzi jokalari baino ez zituen jokatzeko moduan Orgazek, bi atezainak kontuan izanda. Honela, aurreko partiduetan moduan, gazte mailako Kepa eta Mikel lehenengo taldearekin ibili ziren.

Baina eragozpenak eragozpen, partidu txukuna jokatu zuten arrasatearrek. Hasiera kanpokoena izan zen. Hiruzpalau goleko aldea izan zuten. Oso defentsa indartsua egiten dute Askartzakoek, eta arrasatearrek bazekiten bizkor jokatu ezean arazo asko izango zutela defentsa hori zulatzeko. Kontraerasoak behar zuen, beraz, etxekoen baliabide nagusia; eta lehenengo zatiko erditik aurrera iritsi zen emaitza. Partidua parekatu egin zen, eta hamahiruna berdinduta iritsi zen atsedenaldira.

**BIGARRENEAN ALDERANTZIZ**

Bigarren zatian lehenengokoaren kontrakoa gertatu zen. Berdinduta hasi zen, baina poliki-poliki joan zen markagailuan bizpahiru goleko zuloa egiten, oraingoan etxekoen alde. Azken txanpan gol bakarrera jarri ziren bizkaitarrak, baina puntuak etxean geratu ziren azkenean. 3-2-1 erako defentsan, presioan eta erasoko abiaduran oinarritu zuten Orgazen mutilek garaipena.

Bi partidu falta zaizkio Ford Mugarriri ligan: atzeratutakoa bat, Deustuko Unibertsitatearen kontra jokatu beharrekoa; Erromoren aurkakoa bestea.


Aitor Aldanondo oraingo zapatuan ere nabarmendu zen golak egiterako orduan. JOSETXO ARANTZABAL

### "Mailari eutsita iazkoa hobetzea jarri dugu helburu, eta jarrera bikaina izaten ari da"

Duela bost aste Gasteizen, Sucesores de Agirre taldearen kantxan galdu ostean Edu Orgaz Ford Mugarri Arrasateko entrenatzaileak ez zuen batere argi ikusten liga amaierara bitartekoa. Ordurako ia mailari eutsita, lehenengoekin egoteko aukerarik barik eta, lesioak eta bestelakoak tarteko, taldea dezente txikituta, Orgazek zioen luze egingo zitzaiela ligako azken txanpa. Partidu hartatik, ordea, dena emaitza onak izan dira arrasatearrendako: hiru garaipen eta berdinketa bat.

"Neu ere harrituta nago ikusita nola ari garen eusten liga amaiera honetan. Aspalditxo geratu ginen 11 jokalarirekin. Aurreko asteetan bi jokalarik erabat ondo egon gabe jokatu dute. Baina fisikoki oso indartsu gaude: bereziki landu gura izan genuen alor hori, gutxiago entrenatu dugu, eta partidu bakoitzean gai gara 40 minutu erritmo handian jokatzeko", zioen Orgazek zapatuko partidu ostean. "Mailari eutsita beste helburu bat behar genuen, eta iazko sailkapena hobetzea jarri genuen. Jokalarien jarrera bikaina izaten ari da eta lortuko dugu".


Edu Orgaz. GOIENKARIA

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

## Aloñak galdu egin du Zarautzekin, denbora asko bat gutxiagorekin jokatuta

Epaileak gogor zigortu zituen oñatiarrak bigarren zatian, eta zarauztarrak igoko dira gorriekin batera

**J.I.** > OÑATI

Aurreko astean lortu zuten maila igoera Verkol Aloñako neskek; beraz, Zarautzen aurkakoa ez zen hain partidu garrantzitsua oñatiarrendako. Etxekoek, ostera, igoerako beste postua matematikoki eskuratzea zuten jokoan. Eta lortu zuten; eurak igoko dira Aloñarekin batera. Igoera fasea amaitzeko jardunaldi bakarra falta da, eta hor erabakiko da bietako ze taldek amaitzen duen lehenengo, zapatukoarekin berdinduta baitaude orain sailkapenean.

**PARTIDU EROA**

Neurketa arraroa izan zen zarauztarren kontrakoa. Zortzi minutu kosta zitzaien oñatiarrei aurreneko gola egitea. Etxekoek aldea hartu zuten markagailuan, baina lehen zati amaiera ona egin eta atsedenaldian Aloña ari zen irabazten 8 eta 10. Lehenengoa moduan bigarren zatia ere kaskar hasi zuten gorriek, eta gainera epaileak bata bestearen atzetik hainbat jokalari oñatiar kaleratu zituen bi minuturako. Honez gain, zarauztarrek penalti asko izan zituzten alde. Defentsan partidu txukuna egin zuten gorriek; ostera, kontraeraso asko hutsegin zituzten.

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA

## Mailari eustea dezente zaildu zaio Ointxe MUri, Iruñean galdu eta gero

UPNA aurkari zuzenaren kantxan galdu zuten Arrasatekoek; beste emaitza batzuk, ordea, aldeko izan dituzte

**J.I.** > ARRASATE

Domeka goizeko 10:00etan jokatu beharrak eragin egin zien, antza, Arrasatekoei, eta Javi Zurbanoren mutilek lo hasi zuten partidua. Aurreneko bost minututan hamar puntutik gorako aldea hartu zuten UPNAkoek; MUko jokalariak iratzarri ziren, ordea, eta atsedenaldira 37 eta 40 joan ziren irabazten. Errenta handiagoak izan zituzten arrasatearrek ere, hamar puntutik gorakoak behin baino gehiagotan. Taldearen jokoa, ordea, ez zen ona, eta bigarren zatian etxekoek buelta eman zioten markagailuari; 79 eta 74 nagusitu ziren nafarrak.

**SALBAZIOA GARAIPEN BATERA**

Jaitsiera faseko sailkapeneko azken lauek galduko dute maila. MU eta UPNA berdinduta zeuden azken laugarren postu horretan. Orain, beraz, falta diren sei partiduetan iruindarrek baino bat gehiago irabazi behar dute Arrasatekoek haien aurretik geratzeko, eta Iturripen bi taldeen arteko lehian bost puntu baino gehiagoko aldearekin nagusitu.

Albiste ona da dagoeneko ia maila galduta dagoen Getxok irabazi egin ziola Mikeldiri, eta hauek ere MUrengandik garaipen bakarrera jarraitzen dutela.

**BORROKA**

## Unda, Europakoan domina lortzera

**J.I.** > BERGARA

Eguaztenean hasiko da Lituanian borrokako Europako txapelketa, eta bertan izango da Maider Unda oletarra. Izan bakarrik ez, otsailaren 28an hamaikagarren aldiz Espainiako txapelketa irabazi ostean, Europakoan ere dominaren bat lortzeko aukera badu Undak.

Azken Olinpiar Jokoetan, Beijingen, zilarrezko eta brontzezko dominak lortu zituzten Stanka Zlateva bulgariarrarekin eta Agnieszka Wieszczek poloniarrarekin neurtuko ditu berriro indarrak Undak egubakoitzean. Borrokalari arabarrak bosgarren postua lortu zuen jokootan, 72 kiloko mailan.

**OÑATI**

# Askotariko partiduak jokatu ziren Azkoagainen eta Zubikoan

**GIRO POLITA** Harmailak, beti bezala, beteta egon ziren Oñatin. Guraso asko joaten dira seme-alabak animatzera

**UMEZ GAINEZKA** Zapaturo ume ugari egoten dira kantxan eta harmailetan; kirola oso gustuko dute haurrek

**ATLETISMOA ARRASATEN** Datorren asteburuan, oñatiarrak Arrasatera joango dira, atletismoa egitera

**NEREA MENOR** > OÑATI

Aste osoan eguzkia izan zen arren, zapatu goizean euriarekin esnatu ziren Oñatiko gaztetxoak. Beraien jokaldiak jarraitu genituen zapatu goizean eta partidu asko ikusteko aukera izan genuen. 9:15etatik 11:45era arte, saskibaloian, aretofutbolean eta eskubaloian jokatu zuten neska-mutikoek.

Zubikoako kiroldegian hasi zuten goiza oñatiarrek. 3.mailako neska-mutilak saskibaloian aritu ziren lau txandatan. 6.mailakoek, Gipuzkoako saskibaloi txapelketarako sailkatzeko kanporaketak jokatu zituzten Arrasatekoen kontra. Zubikoan, saskibaloi partiduez gain areto-futbolekoak ere jokatu zituzten 4.mailako gaztetxoek.

Saskibaloian jokatu ez zuten 5. eta 6.mailakoek eskubaloian jokatu zuten Zubikoan. Mutilek hiru partidu jokatu zituzten goizeko 9:30etatik aurrera eta neskek beste hiru 10:30etan. Aipatu beharra dago, zapatu honetan Errekalde eskolako 6.mailako neskek eta 6.maila B taldeko mutilek ez zutela jokatu; baina datorren asteburuan Eskola Kiroleko ekintzetan sartuko dira berriz ere.

**HURRENGO HITZORDUAK**

Datorren zapatuan, Oñatiko gaztetxoak Arrasatera joango dira, Mojategiko kiroldegira, atletismoa egitera. Ondorengo bi asteburuetan, Aste Santua dela eta, jai edukiko dute, eta bueltan, apirilaren 25ean Udaberriko txapelketa jokatzen hasiko dira.



N.M.

**Aloña.** Asierrek, Adrianek, Aritzek, Jonek, Xabik, Gaizkak eta Mikelek osatzen dute taldea.



N.M.

**Oltza.** Zutik: Ander, Rodrigo, Aritz, Unai, Manex eta Ibai. Makurtuta: Josu, Julen eta Koldo.



N.M.

**Altza.** Desireek, Pamelak, Iratik, Saioak, Nereak, Jonek eta Aiorak jokatu zuten zapatuan.



N.M.

**Haritzak.** Inma, Arrate, Guadalupe, Helene, Ania eta Leire azaltzen dira argazkian.

## ZER EGIN ZENUTEN ZUBIAN?



**Manex Barrena eta Gaizka Maiztegi**
Aloña taldea

Saskibaloian jokatzen hasi aurretik aurkitu genituen bi mutiko hauek eta oporren gainean mintzatu ginen beraiekin. "Zubian, lagunekin jolasten ibili ginen Oñatin. Frontoia, futbola edota saskibaloia gustuko ditugu".



**Jon Anduaga eta Mikel Kortabarria**
Aloña taldea

"Ni Jakako etxera joan nintzen gurasoekin. Han gaudenean eskiatzera joaten gara, asko gustatzen zait", dio Mikelek. "Ni Oñatin egon nintzen jolasten. Futbola adibidez asko gustatzen zait", azaldu zigun Jonek.



**Josu Tijera eta Rodrigo Villanueva**
Oltza taldea

"Zubia herrian, Oñatin, pasa dugu biok. Lagunekin asko jolastu dugu, futbolean batez ere; gehien gustatzen zaigun kirola da", azaldu ziguten mutikoek. "Nik, zapatuan kanpoan bazkaldu nuen gurasoekin", dio Rodrigok.



**M. Lazkanoiturburu eta Nora Sagasti**
Iratxoak taldea

Aulkian eserita aurkitu genituen neskatilak eta euren eskubaloi taldea irabazten zihoala esan ziguten. "Kuadrilakoak gara eta lagunekin egon ginen zubian. Kirola baino gehiago berba egin genuen. Santana parkean ere egon ginen".



**Mirian Agirre eta Itziar Otamendi**
Zapuak taldea

"Asko jolastu genuen zubian. Lagunekin egon ginen eta hainbat gauzetan jolastu genuen", azaldu ziguten. "Ni izebarekin-eta zinemara joan nintzen, *Hotel para perrros* ikusi genuen, asko gustatu zitzaidan filma", dio Mirianek.

Ane Herrero> Akaba Bera Berako jokalaria

# "Jokalari bakoitzaren ezaugarri onenak ikusi eta hortik ikasten saiatzen naiz"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Ane Herrerok (Arrasate, 1991) lau urte daramatza eskubaloian jokatzen. Aloñan eman zituen lehen urratsak eta dagoeneko Euskadiko selekzioarekin kadete mailako txapelduna da, gazte mailako Espainiako selekzioarekin izan da eta Donostiako Akaba Bera Bera taldean jokatzen du. Ibilbide motz baina azkar eta on horren inguruan hitz egin dugu harekin.**



Ane Herrerok Bera Beran jokatzen du eta Espainiako selekzioarekin ere egin du debuta; kirolean lehen pausoak Aloña Mendin eman zituen. JOSETXO ARANTZABAL

**Zer moduz joan zen martxo hasieran Berlinen Espainiako gazte mailako selekzioarekin jokatutako txapelketa?**

Egia esan, sentsazioa arraroa izan zen: kirol arloan gauzak ez ziren behar bezala atera; izan ere, taldea askoz gehiago egiteko gai da. Baina, hala ere, esperientzia oso ona izan da, bai kirolean, baita pertsonalki ere. Taldekideak aspalditik ezagutzen dira eta hasieran ez da erraza selekziora joan berri batendako egokitzea, baina oso ondo hartu ninduten. Kirol arloan, berriz, uste baino minutu gehiago izan ditut eta gustura geratu naiz egindako lanarekin, baina hobetu daitekeela ere uste dut.

**Lehen aldia da Sagrario Santana hautatzaileak selekzioarekin jokatzeko deitzen dizula. Nola hartu zenuen hautatua izan zinela esan zizutenean?**

Klasean nengoen deitu zidatenean eta ezusteko handia hartu nuen. Banekien selekzioko zerrendetan nengoela, baina jende asko dago zerrenda horretan eta lan asko egin behar da hautatua izateko. Jokalari bat lesionatu zelako deitu zidaten, baina, hala ere, ez nuen espero.

**Azken lau urteak Aloña Mendin, aurten Donostiako Bera Bera taldeko gazte mailan jokatzen... Nola gogoratzen dituzu Oñatin igarotako urteak?**

Ezin dut gezurrik esan, Oñatiko jendea asko igartzen dut faltan, hasieratik laguntza eta konfiantza osoa eman zidaten-eta. Bertan jokalari bezala hasi nintzen eta oroitzapen asko ditut, jende ugari ezagutu nuen eta bakoitzak eskubaloiaz zekiena erakutsi zidan. Orain, Bera Beran egunetik egunera gauza berriak ikasten saiatzen naiz. Entrenamenduak gogorrak dira, batez ere teknikari dagokionez.

**Zein ezberdintasun dago Oñatin jokatzen ibiltzea eta orain Donostian jokatzen ibiltzearen artean?**

Bi desberdintasun nabarmen aurkitu ditut leku aldaketarekin: alde batetik, entrenamenduen erritmoan nabaritu dut, prestatuagoak eta garatuagoak daude, profesionalagoak; bestetik, errepidean igarotzen dudan ordu kopurutan nabaritu dut, astuna egiten da.

**Duela bi urte Euskadiko selekzioarekin kadete mailako Espainiako txapelketa irabazi zenuen; orain, gazte mailako selekziorako deitu dizute. Ez doa guztia nahiko azkar?**

Egia esan, berdina pentsatu nuen infantiletan jokatzeko hautatu ninduten lehenengo aldian, baina handik aurrera urtero deitu didate eta moldatu egin naiz. Ez dakit egindako lanaren ordaina den ala ez, baina benetan merezi duen gauza bat da eta beti egin izan ohi dut nire eskuetan zegoen guztia bertan egoteko.

**Arrasaten ikasten duzu eta Donostian entrenatu eta jokatu. Ez da gogorra egiten?**

Gogorra egiten da. Astean zehar hiru egunetan entrenatzen naiz; gainera, egun baten entrenamendu bikoitza egiten dut, lehenengo nagusiekin eta gero nire taldearekin. Etxera itzultzerako berandu da, nekatuta nago eta eskolako lanak egiten hastea gogorra egiten da, baina Donostiara joateko erabakia hartu nuenean banekien gogorra izango zela; beraz, lanean jarraitu beharra dago.

**"Oñatiko jende asko igartzen dut faltan; hasieratik konfidantza osoa ipini zuten nigan"**

**"Astean zehar hiru egunetan entrenatzen dut, eta egun batean bi aldiz"**

**Familiak nola hartu du Donostiara egiten dituzun joan etorriak, Berlinera selekzioarekin egin duzun bidaia...**

Aita ere entrenatzailea zen eta ohituta gaude bidaiak egitera, eta kirolak dakarren diziplina hori betetzera, baina pozik hartu zuten; izan ere, seinale ona zen eta pozik ikusten ninduten. Hasieratik animatu ninduten eta beti lagundu izan didate aurrera jarraitzen.

**Baina zuk txikitan ez zenuen eskubaloia aukeratu, baizik eta futbola...**

Egia da, bai, anaiak futbolean jokatzen zuen eta ni ere gauza bera egitera animatu nintzen. Bitartean, aita Arrasate Eskubaloiko entrenatzailea zen eta partidu guztiak ikusten genituen. Horrela, anaia futbola utzi eta eskubaloian hasi zen, eta, anaiarreba txikiek egin ohi duten moduan, anaia handiak egiten zuena egin behar! Beraz, eskubaloian hasi nintzen 13 urterekin, eta denboraldia bukatu eta gero, Oñatira joan nintzen. Txikitan aitaren partidu guztiak ikustera joaten ginen eta azkenean horrenbeste eskubaloi ikusi eta gero, jokatzen bukatu behar genuen.

**Zein postutan jokatzen duzu? Eta zeintzuk dira zure puntu sendoak eta ahulenak?**

Lehen lerroan jokatzen dut; hau da, hegaleko eta erdilari, nahiz eta partidu batzuetan edozein postutan jokatzen bukatu izan dudan. Horrenbeste eskubaloi ikusteak, azkenean, jokoa ikusten irakatsi dit, eta lehiakortasunarekin batera horiek dira nire ezaugarri nagusienak. Ahulena, aldiz, defentsa da, oso garrantzitsua da eta hobetu beharra daukat. Oso lehiakorra naiz, ez zait galtzea gustatzen, eta ego-era horrek batzuetan kontzentrazioa galarazten dit.

**"Aita ere entrenatzailea zen, eta ohituta gaude bidaiak egitera eta kirol diziplina betetzera"**

**"Josu Herrero nire anaia asko gustatzen zait; eskubaloia antzera ulertzen dugu"**

**Noizbait profesionaletara heldu gura zenuke?**

Bai, noski, baina horretarako lan asko egin behar da. Orain ikasten nabil eta hobetzen saiatzen naiz egunero, nire eskuetan dagoena egingo dut, eta ondo irteten bada guztia, agian aukera hori izango dut.

**Badago gustuko duzun eskubaloi jokalaririk?**

Ez dut jokalari berezi bat gustuko. Jokalari bakoitzaren ezaugarririk onenak ikusi eta hortik ikasten saiatzen naiz. Baina izen bat eman beharko banu, Josu Herrero, nire anaia esango nuke, asko gustatzen zait bere jokatzeko era. Eskubaloia ulertzeko modu antzerakoa dugu.



**Xabin Arriola**
> Irakaslea

Eguraldi ona, tenperatura epela eta eguna luzatzen. Haurren artean baloiak, patinak, eta bizikletak gero eta gehiago.

Zorionez, bizikleta sototik atera eta ekintza fisiko horrekin gozatzeko unea iritsi da.

Aurreko astean esandakoari jarraituz, gure osasuna eta bizi kalitatea hobetzearen bidaia honetan, txirrindularitza era egokian praktikatzeko arau eta gomendio batzuk emango dizkizuet oraingoan.

Kirol hori praktikatzen denbora daramazuenok hemen azaltzen diren kontzeptu eta eduki batzuk dagoeneko jakingo dituzue; baina zuei, hasiberriak zaretenoi, ea baliagarri suertatzen zaizuen ondorengoa. Izan ere, "musikak piztiak baretzen ditu; bizikletak gizakia".



Udaberri sasoian, eguraldiak hobera egiten duela-eta, oso kirol gomendagarria da bizikleta. ARIZMENDI

**KIROL JARDUERA** > BIZIKLETA

# Ekintza fisikoa eta osasuna: bizikleta

**BIZIKLETAREN ALDE ONAK**

Bizikletak zirkulazio aparatuaren funtzioak hobetzen ditu: urtero 150.000 heriotza eragiten dituzten bihotzeko gaitzak saihesten laguntzen du. Bestalde, kolesterol txarra (LDL) jaitsi eta ona (HDL) gehitzen du. Horretaz gain, bizkarreko giharrak indartu eta minak gutxitzen ditu.

Belauneko giltzadura babesten du; gorputzeko pisuaren %70-80 aulkiak xurgatzen duenez, belaunek ez dute pisuak eragindako gainkarga hori jasan beharrik.

Gainera, bizikletan ibiltzeak immunologia sistema indartzen du. Bihotza handitu eta indartu egiten du, haren funtzioak hobetuz eta bihotz taupadak jaitsiz. Eta, gantzak erre eta argaltze prozesuak martxan jartzen ditu.

**BIZIKLETAREN ALDE TXARRAK**

Istripuak edo erorketek eragindako lesioak: batez ere, errepidean dago arrisku handien.

Beste arazo bat dira tendinitisak: belaunean (errotulianoan) eta akiles zurdan ohikoenak.

Aulkiarekin izaten den frikzioak eragindako perineoko (ipurdi azpian) lesioak. Eta, azkenik, arruntak ez diren arren, liseriketa arazo txikiak.

**LAU GOMENDIO**

Garrantzitsua da aulkia neurrira egokitzea, belaunetako eta bizkarreko lesioak ekiditeko. Bestalde, pedalen garapen gogorrak ez erabiltzea komeni da, errotuliano tendinitisa sor dakizuke-eta. Noizean behin ipurdia aulkitik altxatu edo jarrera aldatu. Jakina, beti eraman kaskoa jantzita.

## ENTRENAMENDUAREN PRINTZIPIOAK

Txirrindularitza osasuntsuagoa egin nahi baduzu, ez itzazu ondorengo arauak alde batera utzi:

**> OSASUN AZTERKETA EGIN**
Denboraldi hasieran osasun azterketa eta esfortzu proba egitea komeni da. Zure gaitasun edo ahalmenen balioa emateaz gain (O2??? kontsumo gorena...), kirol praktika horretarako prest zauden esango dizute (bihotz maila, tentsio arteriala, gorputz egitura...) eta entrenamenduetan eraman beharreko erritmoak zehaztuko dizkizute.

**> SEGURU BAT KONTRATATU (FEDERATUA)**
Bizikletaz ibiltzean ere hobe duzu aseguratua egon, istripuren bat gertatuz gero babesturik egoteko. Gainera, antolatutako irteera gehienetan izena eman ahal izateko asegurua eskatuko dizute.

**> NORBAITI ESAN EGIN BEHAR DUZUN IBILBIDEA**
Irteera aurretik, betiere bakarrik bazoaz, norbaiti esan egin behar duzun ibilbidea, noiz itzuliko zaren... badaezpada!

**> ENTRENATZERAKOAN**
Noizean behin taldea utzi eta bakarrik entrenatu: taldean entrenatzea motibagarriagoa bada ere, zure entrenamendu karga pertsonalak gauzatu ahal izateko noizean behin bakarrik entrenatzea komeni da.

Entrenamendu programa bat jarraitu: aldizkari baten aurkitutako plan bat izan daiteke edo esfortzu proban ezarritako balioen araberako plan pertsonal bat; betiere, entrenatzerakoan programa bat jarraitu. Asko laguntzen du.

Gorputzari jaramon egin: planifikaturikoa errespetatu egin behar den arren, atseden hartu behar denean atseden hartu.

Egin beharreko irteera edo lasterketak planifikatu: irteera antolatuetan parte hartzeko asmoa izanez gero, horiek egutegi batean planifikatu.

Entrenamenduaren kontrola eraman: astean zehar burutzen dituzun entrenamenduen datuak erregistratu eta kontrola eraman; egindako kilometroak, egunak, sentsazioak... Pultsometroa eta kilometro kontagailua erosi eta erabiltzea gomendatzen dizut.

## Eraman beharrekoak

> Eskuko telefonoa.

> Puzgailua.

> Bidoia (urez edo beste edari batez beteta).

> Gurpilaren ordezko ganbera.

> Erremintak: ganbera ateratzeko giltzak, allen giltzak, katea konpontzeko erreminta, partxeak eta kola.

> Mendira joanez gero: motxila txiki bat, bertan oinarrizko botikina eta hotzari edo haizeari aurre egiteko arroparen bat (jaitsieretarako, batez ere).

> Ordubetetik gorako ibilbideetan, ura eramateaz gain janaria ere gomendatzen da. Absortzio azkarreko karbohidratoak dira komenigarrienak, IG (Indize Gluzemikoa) handia dutenak.

> Ezti eta zerealezko barritak.

> Galleta eta menbrilloa.

> York eta marmelada ogitarteko txikiak.

> Fruta: platanoa...

## Entrenamendu plana

Uda aldera lasterketa edo irteera garrantzitsu bat egiteko asmoa izanez gero, Quebrantahuesos famatua kasu, garaia da entrenamenduak egiten hasteko. Oinarrizko prestakuntzako entrenamenduak biltzen dituen hamabi asterako entrenamendu proposamen bat doakizu:

| | ASTEL. | MARTIT. | EGUAZT. | EGUE. | EGUB. | ZAPAT. | DOM. | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Gim | 40 | Gim | 50 km | Gim | 45 | 65 | 200 |
| 2 | Gim | 45 | Gim | 55 km | Gim | 50 | 70 | 220 |
| 3 | Gim | 50 | Gim | 60 km | Gim | 55 | 75 | 240 |
| 4 | Gim | 40 | Gim | Atsedena | Gim | 60 | 80 | 180 |
| 5 | 40 | Gim | 50 | Atsedena | Gim | 65 | 85 | 240 |
| 6 | 45 | Gim | 70 | Atsedena | Gim | 70 | 95 | 280 |
| 7 | 50 | Gim | 80 | Atsedena | Gim | 75 | 100 | 305 |
| 8 | 40 | Gim | 50 | Atsedena | Gim | 70 | 110 | 270 |
| 9 | 50 | Gim | 80 | Atsedena | Gim | 80 | 110 | 330 |
| 10 | 50 | Gim | 90 | Atsedena | Gim | 100 | 125 | 365 |
| 11 | 50 | Gim | 110 | Atsedena | Gim | 100 | 130 | 390 |
| 12 | 50 | Gim | 90 | Atsedena | Gim | 70 | 140 | 350 |

**INTENTSITATE MAILA**
**1-4 asteetan: % 65-70**
**5-8 asteetan: % 70-75**
**9-12 asteetan: % 75-80**

> Intentsitatea ehunekotan kalkulatzeko, erabili ondorengo formula:

**> Intentsitatea % 65 = (BM gorena – BM atsedenean ) x 0,65 + BM atsedenean.**

> BM gorena (Bihotz Maiztasun Gorena) kalkulatzeko: 220 – zure adina.

> BM atsedenean (Atsedeneko Bihotz Maiztasuna) kalkulatzeko: goizean esnatu ondoren neurtu bihotz taupadak minutuko (bost egun jarraian) eta atera batez bestekoa.

> Egin ariketa berbera gainerako ehunenekoekin. Zein pultsaziotan entrenatu behar duzun adierazten dizu.

## Datorren astean...

Korrika, igeriketa, gimnasioko entrenamenduak, kirol mitoak..

2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi ikastola PRO
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



**> MIRANDE**
Kabareta, musikala eta antzerkia batu zituzten egubakoitzean Aramaio kultura etxean **> 30**



**> ARITZETA**
Bergarako abesbatzak 30. urteurrena ospatu zuen zapatuan egindako emanaldiarekin **> 31**



**> ENBOSKADA**
Arrasateko musika taldearen agurra hunkigarria izan zen 3.60 aretoan. **> 32**



Zapatuko sari banaketa: parte-hartzaile, antolatzaile eta epaimahaikideak talde argazkian.
BEÑAT ZAMALLOA

# Kipula hiltzaileendako sari nagusia Huhezinemako rallyan

Zapatilla films taldeak eskuratu zuen lehen saria zapatuan, 500 eurokoa

Herri txikien *infernua* irudikatu behar izan zuten Oñatin eta Aretxabaletan

**J.B.** > ESKORIATZA

Kipula hiltzailearendako izan zen zapatuko lasterketaren lehen saria. Rally batekin eta aurkeztutako zortzi taldeekin, horrela, hasi zen Huhezinema II. jaialdia. Sormenarekin, umore handiz eta, batez ere, presaka, egin izan behar zioten aurre, hortaz, erronkari egun batez bat-bateko zinemagile izan zirenek. Formatu ondo dibertigarria da rallyarena eta lehia baino, jolaserako gertu zeuden partehartzaileak: gaia esan eta iluntzerako prest izan behar zituzten lanak, hiru minutu eta erdikoak, asko jota. *Herri txikia, infernu handia*, horixe gaiaren baldintza eta Oñatin eta Aretxabaletan kokatu behar izan zituzten istorioak. *Killer kipula* izeneko lana aurkeztu zuten Zapatilla films taldekoek eta haiek eskuratu zuten 500 euroko lehen saria, erritmo bizi eta misteriozko labur batekin, *Attack of the Killer Tomatoes* kultuko filma zuzenean omenduta. Bigarren (300 euro), aldarte serioagoarekin, Aukaretatukoak geratu ziren, mutil bikote batek jasaten duen destaina landuta, maskaren metafora batekin; eta azkenik hirugarren eta 200 euro poltsikoratuta, Erdizka taldekoak geratu ziren ekialdeko bahitzaile talde baten istorio ilun batekin.

Lau kidek osatutako epaimahaiak hartu zuen azaldutako erabaki hori: Jon Andueza ekoizleak, HUHEZIko bi ikaslek eta GOIENAko ordezkari batek, hain zuzen. Sari banaketan Martxelo Otamendi *Berria* egunkariko zuzendaria ere egon zen; hark eman zuen sari nagusia.

**IKASLEEN ORDUA GAUR**

Rallyko jai giroaren ostean, gaur HUHEZIko ikasleei egokituko zaie pantaila handian euren dohainak erakustea. Bihar, martitzena, MU lehiaketako proiekzioak iritsiko dira, eta lehiaketa ofizialeko lanak eguaztenean emango dituzte Arrasateko Kulturaten. Sari banaketa, eta, horrenbestez, jaialdiaren amaiera eguenean izango da Aretxabaletan, Arkupe kultura etxean.

## Jaialdiaren egutegia

> **Gaur,** 19:00. Fakultateko ikasleen lanen proiekzioak, Huheziko areto nagusian.

> **Martxoak 31,** martitzena, 17:30. MU lehiaketako lanen proiekzioa; 18:30. Mintegia BURPekoekin. Ekitaldi biak Huheziko areto nagusian.

> **Apirilak 1,** 19:00. Lehiaketa ofizialeko proiekzioa. Arrasateko Kulturate kultura etxean.

> **Apirilak 2,** 19:00. Sari banaketa eta sarituen proiekzioak Aretxabaletako Arkupe kultura etxean.

**MUSIKA** > LOS GALERNA, BLACK LAGUN ETA FIACHRAS

# Ezohiko proposamenek, arrakasta

**NON:** Arrasateko 3.60 aretoan.
**EGUNA:** Egubakoitza.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Hiru ordu pasatxo.



Iruñeako Black Lagun talde klasifikaezina 3.60 aretoko agertoki gainean. JOSETXO ARANTZABAL

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Orain dela bizpahiru urte, talde instrumentalek ez zuten arrakastarik gure inguruan, aspergarriak ziren jende gehienarendako. Zorionez, (nahiz eta batzuek kontrakoa dioten) gero eta musika gehiago entzuten da. Hala, gaur egun halako taldeak baloratu egiten dira; eta jende nahiko joan zen 3.60ra Los Galerna talde berria ikustera. The 5 Twisters eta Arrasateko beste musikariek osatutako proiektu berria gogor dator: surf eta rock-and-roll instrumentala egiten dute; batez ere bertsioak, baina baita kantu propioak ere. Distira izan zuen emanaldiak.

**TALDE KLASIFIKAGAITZAK**

Jarraian Mermaid taldeko Iñigo *Cabezafuego* eta Leroy *Starlight*-en azkenaurreneko burutazioa: Iruñeako Black Lagun (azkena Bizardunak da). Xabier Arzallus afro ilearekin irudi dutela, euskaraz abesten dute eta punka, folka, hard-rocka, post-hardcore, noise, erritmo aldaketak eta gura duten guztia sartzen dute koktelera berezi baten. Zelan definitu, egiten dutena? Euren erantzuna, punk progresiboa. Eta, jakina, umorea ezin falta: *Bi gardenia zuretzat, Jaio naiz guardiacivil, monobolumen aluak* eta beste.

Eta gaueko azken taldea, jarraitzaile gehien izan zituena: Fiachras. Iraganeko punk-rocketik paso eginez, Irlandako pubetako garagardo aparra eta malenkonia garraiatzen dute jotzen duten lekura; lagunartean abesteko eta konpartitzeko kantuak, modu xume, baina sinesgarrian. Eta ez hori bakarrik, tarteka Hertzainak-en hastapenetako kantuen amorrua duten bestelako piezak ere.


Ane Zabala eta Galder Perez kabareta biziberritzen. J.B.

**ANTZERKIA** > MIRANDE KABARETA

# Kabareta eta musika, pentsarazteko

**NON:** Aramaioko kultura etxean.
**EGUNA:** Egubakoitza.
**ZENBAT JENDE:** 60 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordubete.

**IKER ELEXPURU/I.B.** > ARAMAIO

Korrika Kulturalak eta Txirritola Euskara Elkarteak Mirande Kabareta eraman zuten Aramaiora. Edorta Jimenezek Andima Ibiñagabeitiak Jon Miranderi idatzitako gutun bat hartu zuen abiapuntu, eta II. Mundu Gerraren aurreko antzerkiaren ezaugarriak batzen saiatu dira.

Galder Perez eta Ane Zabala aktore ausartek hartu zuten protagonismoa; beste behin, erakutsi zuten edozein erregistrotan aritu arren, eroso egoten direla: ikuskizun horretan, antzerkiarekin kabaret kutsu handiko pasarteak uztartu zituzten. Are gehiago, musikak ere garrantzia handia hartzen du ikuskizun horretan: Txuma Murugarren eta Rafa Acevesen eskutik, atzoko eta gaurko hainbat klasiko birmoldatu egiten dituzte, askoren gozamen eta harridurarako.

Bestalde, musikaz eta hemen ezohikoa den kabaretaren intsinuazioaz gain, umorea barra-barra izan zuten eta baita gaur egungo gai askoren gaineko kritika zorrotza ere: egunerokotasunean eta guztion kezkatan oinarritu zuten antzezlana. Jakina, hori Mirande aintzat hartuta, ez da harritzekoa; hobe esanda, kontrakoa arraroa litzateke.


Txuma Murugarren eta Rafa Acevesen esku izan zen musika. J.B.

**IKUSLEEKIN HARTU-EMANA**

Ikusleei dagokienez, adin askotako jendea batu zuten. Aktoreek hasieratik egin zuten ahalegina *feed-back*-a lortzeko, eta baita lortu ere. Ikusleei keinu asko egin zizkieten, eta tarteka jende artera jaitsi ziren horiek zirikatzera eta guztiak ikuskizunaren parte egitera. Ikusleek eta aktoreek, biek, asko disfrutatu zuten; igarri zen.

**MUSIKA** > ARITZETA ABESBATZAREN 30. URTEURRENA

# Klasiko herrikoien ospakizuna

**NON:** Mariaren Lagundian.
**EGUNA:** Zapatua, martxoak 28.
**OSPAKIZUNA:** 30 urteurrena.
**IRAUPENA:** Bi ordu.

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Jendea gustura eta abesbatzakoak are gehiago. Ospakizunerako eta oroimenerako eguna izan zen atzokoa. 30 urtetan klasiko bihurtu dituzten kantuekin osatu zuten zapatuko errepertorioa Aritzetakoek. Lehen zatia teknikoagoa izan zen arren (*Esti dal* edota *Verso el cielo*rekin), berehala ekin zieten entzuleek gozatutako habanerei eta boleroei. Azkenik, bisean, *El abanico* abestu zuten, taldearen kuttunenetako bat. Klasiko zein herrikoi, gozatu ederra hartu zuten bai abeslariek zein Mariaren Lagundiakoek eliza bete zuten jarraitzaile eta lagunek.

Kontzertua baina ospakizunaren erdia besterik ez zen izan ostean afari legea egin zuten-eta abesbatzako kideek eta lagunek.

**ESKERTZA ZABALA**

Hain zuzen, Ibon Garitano lehendakariak azaltzen duenez, bereziki sukaldariei eskertu gura izan zieten urte guzti hauetan emandako laguntza. Umoreona elkartean egin zuten afaria eta lapiko artean jardunikoez gain. Mariaren Lagundiari, Juan Kruz Mendizabal abadeari eta Udalari luzatu gura izan zizkieten eskerrak, Garitanok azaldu moduan. Luis Laskurain margolariak ere detaile berezia izan du abesbatzakoekin, margolan bat oparitu die-eta.

ESANAK

**"Bereziki guk sukaldariei eskertu gura izan diegu, beti egon dira-eta prest guri eta gonbidatuei afaria egiteko"**

**Ibon Garitano** > Lehendakaria

**"Bisa 'El abanico' kantu ezagunarekin egin genuen, hori da Aritzeta abesbatzaren kuttunetako bat"**

**Ibon Garitano** > Lehendakaria

EMANALDIAK

## Hitzorduz beteriko urteurrena ospatuko dute

30 urte egin bai, baina atsedenerako gogorik ez daukate Aritzetakoek. Lehenik eta behin Garitanok belaunaldi berriei kantatzera animatzeko deia egiten die eta horrekin batera hurrengo hileetarako planak azaldu: "datorren astean Eibarrera joango gara Sostoa abesbatzaren urteurrenera eta maiatzeko zubian Burgosen bi emanaldi egingo ditugu". Uda aldean Santa Marina eguneko kontzertua dagoeneko klasikoa da eta zita berezia irailean izango da Orfeoiarekin batera Tirri-Tarraren ikuskizun ezagunean hartuko dute-eta parte abesbatzakoek.



Aritzeta abesbatza Mariaren Lagundiako elizan. JOSETXO ARANTZABAL



Concejo Abiertoko biolin jotzaileak klabezinarekin. J. A.



Donostiako KUP abesbatza Arrasateko parrokian. J. A.

**MUSIKA** > UDABERRIKO MUSIKALDIA

# Gazteak, profano zein sakro

**NON:** Arrasateko parrokian.
**EGUNA:** Barikuan eta zapatuan
**ZENBAT JENDE:** 100 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**J.B.**> ARRASATE

Sakrotik profanora eta barrokotik herrikoienera, hari instrumentuekin eta ahots indartsuenekin hasi da aurtengo Udaberriko Musikaldia. Concejo Abierto zazpikoteaeta KUP abesbatzaentzuteko aukera izan da oraingo asteburukoa. Errepertorio klasikoan eta musikarien gaztetasunean egin zuten bat bi emankizunek.

Antzinako musika egiten du Concejo Abiertok hari instrumentuekin, kablezinarekin eta soprano batekin. XVII. eta XVIII.mendeetako piezak jo zituzten hortaz. Alabaina, garai barrokora ez ziren soilik musikan gerturatu instrumentuak ere garai hartakoak edo haien erreplikak ziren-eta. Barrokoko soinuaren oparotasun harrandituaz gain, azalpenez jantzitako kontzertua izan zen gainera egubakoitzekoa. Azalpenak, batetik, jo zituzten zazpi obren gaiak kokatzeko eta argibideak, bestetik, scordatura teknika zertan datzan azaltzeko. Izan ere, biolinak eta biolak ohikoak ez diren moduetan afinatzen dituzte soinu eta akorde hainbat konbinazio lortzeko. Biber eta Pachelbech beraren lan sakroek izan zuten distira gehien. .

**ABESBATZA GAZTEA**

KUP abesbatza ere ahots gazteek jantzen dute. Zapatuan izan zen donostiar horien txanda eta emanaldi aberatsa eskaini zuten Brahmsen obra konplexuekin edo Waldenbyren ekarpenarekin. Sarasolaren *Neskatx' ederra* eta Donostiaren *Hiru txito* herrikoiekin amaitu zuten ekitaldi oparo eta landua.

### Asteon Musikaldian

**03, egubakoitza**
20:00 Arrasate Musikaleko Orkestra. San Juan Batailatzailearen parrokian.

**04, zapatua**
20:00 Goikobalu abesbatza eta orkestra.
San Frantzisko elizan.

**05, domeka**
20:00 Pablo Solozabal Haize Boskotea.
Kultur Ateko areto nagusian.

**MUSIKA** > ENBOSKADA TALDEAREN AZKEN KONTZERTUA

# Agurra goxoa eta luzea, goizaldera artekoa

**NON:** Arrasateko 3.60 aretoan.
**EGUNA:** Zapatua, urtarrilak 30.
**ZENBAT JENDE:** 450 lagun (agortuta)
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Talde berezia da Enboskada, atipikoa baina betidanik zaleen berotasuna eta animuak gertu izan dituena. Horren zalantzarik ez zen geratu zapatuko agur-kontzertuan. Sarrera guztiak egun horretarako salduta (ia 500 lagun kabitzen dira) eta jendetza jai gogoz. Agurra eta ospakizuna (konfeti eta guzti), biak izan ziren 3.60 aretoan. Agurra noski, hunkigarria.

**TALDE EZOHIKOA**

Atipikoak direla taldearen garapenarengatik diogu. 90 hamarkadan, Arrasateko oi!aren hirugarren eztandan lehertutako taldeetako bat izan zen eta ordutik zaleen babesak ez die huts egin. Hala ere azken urtetakoak dira euren bi diskoak (Never Surrenderrekin erdibanako bat eta *Zilegi al da?* luzea) baina zuzenean ere ez ditugu larregi ikusi. Beste patxada bat izan dute hauek, aldarte berezia. Edozelan ere, zapatukoa omenaldia izan zen, bai taldeari zein jarraitzaileei egindakoa. Sarrerak, bestela ezin, agortuta. Giroa gainera, lehenagotik ere bazetorren berotuta lagun arteko afaria egin zuten eta Uarkapen 80 bat lagun gonbidatuta. Gauak beraz, ospakizun-jai izateko beharrezko osagai guztiak zeuzkan bermatuta. Aretoa gainezka – ia arnasa eragozteko lain–, jarraitzaile sutsuenak eta lagunak ondo arduratu ziren lehen unetik agertoki pareko lehen lerroetan pilatzeaz.

**LAGUNAK ARETOAN ETA OHOLTZAN**

Zer esanik ez, lagunarteko agurra izan zela eta horietxen kolaboraziorik ez zela falta izan. Horien artean, tarte berezia izan zuten Never Surrenderrekoek, hainbat abesti elkarrekin jo zituzten-eta. Hain zuzen, haiekin erdibana atera zuten diskoa eta argi ikusi zen talde *anaia* dela hura eurendako.

Bi ordu luzeko emanaldia izan zen eta lagunak gonbidatzeaz gain, Zakarrak eta RIP taldeen bertsioetarako beta hartu zuten Enboskadakoek edo kideen ardurak trukatzeko eta Oxel abeslaria baterian ikusi eta *Kuki* abesten entzuteko, besteak beste. Izerditan, luze jota eta agertokira koadrila galanta gonbidatuta amaitu zuten eta festa on guztiek merezi duten moduan, ba, konfetiarekin. Festa, baina ez zen han bukatu; instrumentuak erretiratutakoan DJen aurrez aurrekoa egon zen. Moek eta Pottokok egin zuten dueloa goizaldeko ordu txikiak arte.

**AGURRA UNE GOZO BATEN**

Agurra ez zen edonolakoa izan. Hala ere, momentu goxoan erabaki dute taldea uztea, harrigarria, diskoa kaleratu berri eta jarraitzaileak oraindik sutsu dituztela. Gozatua behintzat inork ez die kenduko.



Bost taldekideak jarraitzaileen berotan. IMANOL SORIANO.



Pottoko eta Oxel, Enboskada eta Never Surrender taldeen aspaldiko adiskidetasuna irudikatuz. I. S.



Ama Say taldeko abeslaria kantu bateko puntu gorenean. I.A.

**MUSIKA** > YAKUZI ETA AMA SAY

# Intentsitatea eta zirrara batuta

**NON:** Bergarako gaztetxean.
**EGUNA:** Zapatua, martxoak 29.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ia hiru ordu.

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Ama Say taldea ikusteko jakinmin handia zegoen, eta Txapa Irratiak ibarrera ekarri zuen. Askotan taldeengan interesa pizten da desagertu direnean; orduan erribindikatzen dituzte askok eta ez bizirik dauden bitartean. Hamarkada luze baten lozorroan egon ostean, iaz hilean behin agertokietara igotzea erabaki zuten.

Ezkerraldeko talde *elebidunaren* aurretik, Elorrio aldeko musikariek osatutako Yakuzik berotu zuen gaua. Ezuste handia izan zen: Fugaziren pareko zehaztasuna zuen post-hardcore irmoarekin hasi ziren; gerora, giroekin jokatu zuten, U2ren *martzianada* handienak askogatik gaindituz; eta emanaldiaren beste zati bat *noise*-agoa eta distortsionatuagoa izan zen. Itzela!

Soinua, akoplatzeak, oihartzuna... guztia zuten neurtuta eta menderatuta; abilezia handia erakutsi zuten instrumentuekin eta kontzertu hotza (halakoa da emaitza), barnerakoia, baina oso intentsua eman zuten. Astuna edo gordinegia batzuendako, baina ezagutza eta praktika handikoa, gauzak oso argi dituzten seinale. Emaitza hotza, ia kantu guztiak instrumentalak direlako.

**IKUSLEEK ERE DENA EMAN ZUTEN**

Ama Sayk egiten duena ere ez da ohikoena, baina lelo eta melodia askoz gehiago dauka. Taldearen sasoian, 90eko hamarkadan, entzuleak harritu egiten zituzten halako melodia, distortsio eta gitarra bizien nahasketarekin. Askok euskal Pixies-ak izendatu zituzten, eta taldekideek ez zuten inoiz kontrakorik esan. Pixies, Sonic Youth eta pop izaera handiagoa duten taldeak izan dira euren erreferentzia garbiak.

Emanaldia bizia eta indartsua izan zen hasieratik bukaerara arte. Taldea oso sasoi onean dago, eta hastapenetako Karlos baxu jotzailea Zein? taldekoak ordezkatzen du. Bestalde, teklatua jotzen eta koroekin Jose Lastra soinu teknikari ezaguna daramate. Horiek dira aldaketa bakarrak. Bestela? Betiko kantuak, betiko *hit!*-ak, euskara eta ingelesa nahastuta... batzutan xuxurlatuz, melodien zirriborroak eginez, eta bat-batean eztanda egiten duten pieza borobilak.

Ikusleek ederto erantzun zuten dantzan, oihuka, kantuan... eta arrazoi horregatik bizpahiru aldiz irten behar izan zuten kantu gehiago jotzera, pozarren.

**Aitor Biain** > Ganbara Gazteko zuzendaria

# "Ganbara Gaztekoek duten ezaugarri nagusia lanerako gaitasuna da"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Oñatiko Ganbara Gazte abesbatza ETBko *Oh happy day* saioko finalaren atarian geratu da. Ez du azken izendapena gainditu. Apirilaren 25eko finalean abestuko dute berriro, ikusleen saria eskuratzeko asmoz. Aitor Biain zuzendariarekin egin dugu berba lehiaketaz, taldeaz eta finalerako sailkatu diren hiru abesbatzez.**

**Pena izan da, baina finaleko atarian geratu zarete. Errenteriaren aukako izendapena ez zenuten gainditu.**

Bai, hala da. Bagenekien Errenteriaren aurkako borroka oso gogorra izango zela, haiek ere talde gaztea dutelako. Bi abesbatzok gara ahots zurikoak, eta oso antzekoak, gainera.

Aurrera ez egin arren, gu oso gustura geratu ginen. Abesbatzako neskek eta mutikoek triste bukatu zuten, baina esperientzia itzela izan da guretako.

**Errenteriako abesbatzaren aurka lehiatu behar zenutela ikusita, aurrera egitea zaila zela pentsatu zenuten?**

Errenteriako abesbatza gaztea da, eta bagenekien oso zaila izango zela. Izendapena jaso genuen galan kritika zorrotzak jaso genituen, eta nahiko burumakur bukatu genuen. Baina azken galako kantua prestatzen hasi ginenean animuek gora egin zuten, eta saioa grabatu genuen egunean lehiaketan jarraitzeko esperantza genuen. Baina epaimahaiak ez zuen gure alde egin.

**Epaimahaiko kide batek esan zizuen kantuekin esperimentatzeko, eta azken saioan zuk egin zenuen bakarlari lana.**

Kantu lasaia aukeratu genuen, koreografia askorik barik eta arropa xumearekin. Bakarlaria aukeratzeko orduan esperimentatzea erabaki genuen, eta nik neuk abestu nuen.

Guk oso gustura bukatu genuen, baina epaimahaiko kide Iñigo Arbizari ez zitzaion askorik gustatu. Galdetu zidan ea taldean ez zegoen bakarlari lana egingo lukeen kiderik. Nik erantzun nion taldeko edonork egin zezakeela bakarlari lana kantu hartan. Bestalde, gure balorazioa egiteko orduan ika-mika izan zuten epaimahaiko kide Iñigo Arbizak eta Unai Zabaletak.

**Lehiaketaren parte dira, baina gogorra da epaimahaiaren kritikak entzutea?**

Bai. Kritikak entzun dituguneam aurpegi ona jartzea ez da batere erraza.

**Lehiaketatik kanpo zaudete, eta bederatzi asteko erritmoa jaitsi egingo duzue orain.**

Oso gogorra izan da. Bederatzi kantu eta koreografia prestatzeko lana gogor egin dugu, eta ezohiko orduetan entseatu dugu. Lehiaketa urtarrilean hasiko zenez, Gabonetan entsegu intentsiboak egin genituen. Hortaz, alde horretatik lasaiago ibiliko gara orain. Baina ez bakarrik abesbatzako kideok, baita inguruan lanean egon diren guztiok. *Oh happy day* lehiaketako partehartzea talde lana izan da: gurasoak, aitaita-amamak eta lagunak egon dira gure ondoan.

Lehiaketa utzi genuen saioan eskerrak eman nizkien laguntza emandako guztiei, eta lerro hauek aprobetxatu nahi ditut gauza berbera egiteko.

**Ganbara Gazte taldea telebistako lehiaketan parte hartzeko sortu zenuten?**

Ganbara Gazte taldea 2009-2010 ikasturtean sortu nahi genuen, Ganbara Txiki taldeko kide batzuekin. Baina ETBko lehiaketan parte hartzeko *casting*-a egin genuen ekainean, eta taldearen sorrera aurreratzea erabaki genuen. Irailean hasi ginen lanean, eta lehiaketa esperientzia hartzeko aukera paregabea izan da. Taldea asko hazi da.

**Zeintzuk dira zure taldeak dituen ezaugarri nagusiak?**

Asko ditu, baina bat aipatuko nuke guztien gainetik: lan egiteko duten gaitasuna. Gabonetan eta domeketan ordu piloa sartu ditugu, eta ez dira kexatu. Txalogarria da egin duten lana.

**Kanpoan egon arren, lehiaketak aurrera jarraitzen du. Bi saio geratzen dira finalerako.**

Zapatuko galan ez zuten talderik izendatu. Hurrengo zapatuan lau talderen artean lehen finalista aukeratuko dute epaimahaiko kideek, eta azken aurreko galan abesbatza bat kanporatuko dute. Hiru talde onenak sailkatuko dira apirilaren 25eko finalerako.

**Ze abesbatza sailkatuko dira finalerako?**

Nire ustez, Donostia, Bermeo eta Errenteria sailkatuko dira. Trapagaran kanpoan geratuko da. Are gehiago esango nuke, orain arteko eboluzioarekin jarraitzen badu, Donostiak irabaziko duela lehiaketa.



Ganbara Gazteko zuzendari Aitor Biain. JOSETXO ARANTZABAL

**Nola baloratzen dituzu azken txanpan sartu diren abesbatzak?**

Donostia talde oso ona da, ahots bikainak ditu eta errepertorioa oso ondo aukeratu dute. Bermeoko abesbatza gazteagoa eta freskoagoa da. Guk hartueman oso ona egin dugu eurekin. Errenteriako taldea gurearen antzekoa da: gaztea eta ahots zurikoa. Kide batzuek ahots oso onak dituzte, eta lehiaketa hasi zenetik eboluzio onena izan duen taldea dela esango nuke. Trapagarango taldea izan da lehiaketako ezustekoa. Kide gutxi dituzte eta saio onak eta txarrak tartekatu dituzte. Oso irregularrak izan dira. Hasierako saioetan nahiko larri ikusi nituen, baina aurrera egin dute.

**Lehiaketa alde batera utzita, Ganbara Txikiren bosgarren urteurreneko ekitaldiekin jarraitzen duzue.**

Bai, hala da. Hainbat ekitaldi egingo ditugu; besteak beste, maiatzaren 30ean *Kantua kalean* jaialdia egingo dugu. Herriko abesbatza ezberdinak kalera irtengo dira euren kantuak eskaintzera. Gainera, Ganbara Txikik Ataunen kontzertua egingo du eta Ganbara Gaztek Madrilgo lehiaketan batean parte hartzeko eskaera egin du, baina oraingoz ez dute erantzunik jaso.

**"Errenteria aurkari gogorra zela jakinda, azken unera arte esperantza izan genuen"**

**"Epaimahaikoen kritikak entzuterakoan aurpegi ona ipintzea oso zaila egin zait"**

**"Eskerrak eman nahi dizkiet proiektu honetan lagundu diguten guztiei"**

**"Nire ustez, Donostia, Bermeo eta Errenteria sailkatuko dira finalerako"**

**"Oso irregularrak izan diren arren, Trapagaran izan da lehiaketako ezustekoa"**

**"Ganbara Txikiren urtemugaren barruan 'Kantua kalean' jaialdia egingo dugu maiatzean"**



Ganbara Gazte abesbatzako kideak *Oh Happy Day* saioan Klaudio Landarekin. GANBARA GAZTE

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 90 metroko etxea, 20 metroko terrazarekin. Eguzkitsua. Hiru logela, egongela handia, bi komun, sukaldea eta trastelekua. Garaje itxia. Jantzia. Bi urteko erabilera. Maria. 608-46 45 88

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659-64 67 38

**Beasain.** 55 m2ko etxebizitza guztiz eraberritua. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Eguzkitsua, bi balkoirekin. Trastelekua. 194.000 euro. 615 73 59 18.

**Etxarri Aranatz.** Pisua salgai. Sukaldea, sukalondo edo errekozina, egongela, 3 logela eta 2 bainugela oso. Lau argiko etxea, erabat berrituta. Interesatuek hots egin 630 15 99 54 telefonora.

**Etxarri Aranatz.** 2008 urtekoa, bista ederrekin eta igogailuarekin. 75 metro karratu, bi logela eta bi komun ditu. Logela eta egongela begiratokiarekin, San Donatora begira. Trastelekua eta garajea etxe azpian. Ikusi nahi ezkero deitu 688 64 74 04ra.

**Uharte Arakil.** Sukaldea, hiru gela, komuna, egongela eta 13 metro karratuko trastelekua dauzka. 100.000 eurotan. Interesatuek deitu 659 74 5 6 24 telefonora.

**Ziordia.** 3 gela, 2 komun. Berria. Lehen 176.000 euro, orain 146.000 euro. Interesatuek hots egin 622 76 03 55 telefonora.

**Zumarraga.** Zumarragan baserria salgai. Deitu: 615 79 63 28.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Etxebizitza erosiko genuke erdigunean edo inguruan. 69 eta 90 metro koadro artekoa. Garajea baldin badauka, hobeto. Prezioa etxearen egoeraren arabera adostuko genuke.Idatzi mezu bat *konpuprest@gmail.com* helbidera edo deitu 693 34 58 69 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Jantzirik eta mustutzeko. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 637 20 96 62.

**Arrasate.** Bi logela eta egongela dituen etxebizitza ematen da errentan. 665 70 75 01.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Larrea plazan. 70 metro koadro. Bi logela, bi komun, egongela handia eta sukaldea. 656 75 00 94.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 696 72 27 00.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Simon Arrieta plazan. Berogailuarekin. Jantzia. 664 73 49 60 edo 656 73 99 66.

**Vieux Boucau.** Landetan 4 pertsonentzako estudio bat alokatzen da Aste Santuan eta Pazko astean. 943 37 05 34, gauez.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Etxebizitza nahi dugu errentan. Bikote arduratsua. 615 73 79 11 edo 669 12 25 63.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Presazkoa da. 669 12 70 98

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 610 91 33 40

**Bergara.** Familia batek errentan hartuko luke etxebizitza Bergaran, Antzuolan edo Oñatin. 645 72 92 87

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 93 59 29

**Bergara** edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke. 696 02 68 30

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko 1 edo 2 logela pisu baten bila nabil, . 658 70 19 53

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
***http://www.goiena.net/sailkatuak***

Eguenera arte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. 620 60 54 14.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 662 63 76 33 telefonora.

**Arrasate.** Gela ematen da errentan. Hiru gela, egongela, komun bi eta sukaldea. Etxe argitsua. 670 04 27 41

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 666 21 88 95

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukalde eta egongelarako eskubidearekin. Pertsona heldua bada, hobeto. 666 75 73 21

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. Oso egoera onean. Telebistarekin. 696 53 36 44

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Oso egoera onean dagoen etxebizitza da.616 05 97 92

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza batean pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 616 05 97 92

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalefakzioa eta argia) hilero. Unibertsitatetik gertu. 652 73 46 19

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan Bergaran. 690 97 44 32

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68

**Bergara.** Neska bat behar da Bergaran pisua osatzeko. 665 73 98 98

**Donostia.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Antiguan. 652 71 52 50

**Donostia.** Antiguon 2 gela osatzeko ikasle bila gabiltza. Pisua ondo hornituta dago. 652 71 52 50

**Lasarte-Orian.** Logela bat alokatzen da pisu partekatu batean. Harremanetarako zenbakia, 627 55 69 32.

**Oñati.** Gela ematen da errentan apiriletik aurrera. 617 14 39 41

**Zumaia.** Gela baten bila nabil, Zarautz, Zumaia edo inguruetan. 29 urteko mutil langilea Josu 635 70 71 27.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Etxarri-Aranatz.** Larrañeta elkartearen atzean dauden etxebizitzen azpian dagoen garaje marra bat saltzen da. Tel: 609 71 60 23 (Xabier)

### 203. ERRENTAN EMAN

**Lasarte-Oria.** Lasarte Oriako zentroan garajea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia: 686 67 45 52.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** 80 metro koadroko lokala erdigunean. Egoera onean. Elikadurarako ezin hobea. Komunarekin. 6.000 euro eskualdatzeagatik eta 500 euro hilean. 600 03 86 80 edo 943 14 84 67.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Lasarte-Oria.** Pertsona bat behar dugu ume txiki bat zaintzeko Lasarte-Orian, astelehenetik ostegunera 17:30tik 19:30ra. Harremanetarako zenbakia: 699 24 31 08

**Zarautz.** Adineko emakume bat zaintzeko norbaiten bila nabil. Egunean 4 ordu egiteko ( goizean eta arratsaldean banatuta). Ahal bada 40 urtetik gorako emakume bat nahiko nuke. Interesatuta baldin bazaude deitu telefono zenbaki honetara: 628 20 30 37.

**ARETXABALETA**

**Emakumea behar da jatetxean, sukaldean lagundu eta garbiketarako. 679 45 57 76**

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Altsasuko 50 urteko anderea astez nahiz asteburutan orduka lan egiteko prest dago (garbitasunean, sukaldean, zaintzanÖ). Interesatuek hots egin 948 46 77 36 edo 651 47 27 21 telefonora.

**Antzuola.** Arropen konponketak egiten ditut. 616 45 00 20

**Aretxabaleta.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke, goizez eta arratsaldez. Esperientzia daukat. Feli. 943 53 33 92

**Arrasate.** Emakumezkoa edozein lan egiteko gertu, goizez edo arratsaldez. Dorisegatik galdetu. 943 77 02 14 edo 646 86 43 89

**Arrasate.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18

**Arrasate.** Gizonezko gaztea gertu zerbitzari, garbiketa edo sukalde lanak egiteko, orduka edota jardun osora. 666 75 73 21

**Arrasate.** Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80

**Azpeitia-Azkoitia.** Umeekin esperientziadun neska, aste santutako oporretan haurrak zaintzeko prest. 606 42 64 14

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. Paperak ditut. 686 99 59 41

**Bergara.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke 24 orduan. Era berean, etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia daukat. 606 05 07 93

**Bergara.** Bergarako mutil gaztea sukaldeko lanak egiteko gertu: erosketak egin, jana prestatu eta sukaldea batu. Galdetu Manurengatik. 610 80 07 39

**Bergara.** Edozein lan mota egiteko gertu nago. Maria Eugenia. 628 23 50 55

**Bergara.** Bergarako emakume euskalduna lanerako gertu. Umeak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketan. Goizez. 665 70 03 74

**Bergara.** Emakume arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, plantxatzeko eta bazkariak gertatzeko. 667 00 89 40

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. Zerbitzari lanetan esperientzia daukat. 667 94 07 25

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Sukaldaritzako lanak egiteko prest: sukaldari, laguntzaile edo zerbitzari. 646 25 59 19

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. 647 87 28 31

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edota tabernan lan egiteko. Alejandra. 608 34 36 11

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 630 61 29 30

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. 5 euro orduko. 669 53 02 92 edo 943 79 70 59

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldean lan egingo nuke. Autoa daukat. 666 21 88 95

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Garbiketa lanak egiteko, helduak edo umeak zaintzeko. 679 98 37 47

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. 686 52 15 98

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. Adinekoaren etxean bizitzeko prest. 608 08 36 02

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 667 20 56 29

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 649 70 51 74

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Deitu 943 77 01 66 zenbakira.

**Debagoiena.** Lehen mailako igeltseroa gertu sukalde edo komunak egiteko. Adreilu lanak, tabikeak egin, lurrak edo azulejuak ipini, eta abar. Legezko paperekin. 650 55 14 28 edo 627 10 98 43

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. 647 25 04 61

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 627 21 08 93

**Debagoiena.** Garbiketak egin edo nagusiak zainduko nituzke, orduka. 679 06 12 99

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat.685 70 76 25

**Debagoiena.** Zerbitzaria lanerako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657 02 15 96

**Debagoiena.** Era guztietako jostun konponketak egiten ditut. 699 34 86 88

**Debagoiena.** Pertsona nagusien eta haurren zaintzarako gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka. Maria. 667 20 56 29.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost orduz. Ordutegi malgua. 943 71 21 15 edo 679 58 41 92.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672 25 92 20

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634 84 11 72

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu... Etxean bertan bizitzeko prest. Ana Luisa de los Santos.943 25 07 53

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo eginda. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak dauzkat. 628 40 58 27

**Debagoiena.** Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest.695 78 91 04 edo 695 78 41 14

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofiziala lanerako gertu. Esperientzia handia. 610 63 17 71

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 680 67 74 96

**Debagoiena.** Emakumea gertu, haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko gauez; Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna 618 00 08 28

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. Deitu 645 72 92 87 telefonora.

**Debagoiena.** Edozein desbrozadora-lan mota egiteko gertu. Euskalduna. Esperientziaduna. 658 73 79 02

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetarako gertu nago. Deitu 639 00 35 57 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeko. Deitu 678 24 94 24 zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ainhoa. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. Deitu 667 20 56 29 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko, Bergaran edo Arrasaten. Deitu 600 82 84 60 telefonora

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 m², berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 m², 2 terrazekin 60+30 m², eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Aranerreka, 95 m², oso ondo.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

inmobiliaria Etxebila
**Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA**
**Tel.: 943 44 61 66**

**ALOKAIRUAN**
**AMARA** 3Logela, sala, sukalde, 2bainugela. Igogailua. 825€
**GROS** Nafarroa Hiribidea. 4Logela, sala, sukaldea, 2bainugela. 1.100€
**GROS** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Hondartzan ondean. 1.000€
**EGIA** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. 750€

**SALMENTAN**
**INTXAURRONDO** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Kanpora. 25.960.000
**INTXAURRONDO** 3Logela, sala, sukaldea, bainugela. Kanpora. 29.950.000
**ALTZA** Logela, sala, sukaldea, bainugela. Jardina. Sartzeko. 19.990.000
**AMARA** 70m2. Igogailua. Terraza. 3Logela, sala, sukaldea, bainugela. 39.990.000
**AMARA** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. Eguzkitsua. 36.200.000
**AMARA** Atikoa. 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Terraza. 40.990.000
**AMARA** Isabel II. 3Logela, sala, sukaldea, 2bainugela. Terraza. 46.500.000
**GROS** Sagües. Logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. 37.000.000
**GROS** Zabaleta. 80m2. 3Logela, sala, sukaldea, bainugela. 72.500.000
**ZENTROA** Azkena. 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Terraza. Igogailua. 46.500.000
**ZENTROA** Arrasate K/. Azkena terrazakin. Kalera. Igogailua. 56.950.000
**ANTIGUO** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Terraza. Bistak. 41.950.000 MARTUTENE 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Kanpora. Sartzeko. 29.500.000
**EGIA** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Trastalekua. Kanpora. 34.990.000
**EGIA** 2Logela, sala, sukaldea, 2bainugela. Terraza. Igogailua. 46.500.000
**LOIOLA** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Berritua. 43.500.000
**ASTIGARRAGA** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Kalera. Bistak 31.300.000
**LEZO** Erdigunean. 3Logela, sala, sukaldea, bainugela. Berritua. 32.950.000
**PASAI SAN JUAN** 2Logela, sala, sukaldea, bainugela. Garajea. Trastalekua. 39.800.000
**PASAI SAN JUAN** 100m2. Duplexa. Terraza. Balkoia. Oso polita . 36.400.000

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izateko gertu nago. Deitu 663 65 78 43 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Bigarren mailako ofizial, ostalaritza laguntzaile edo garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu 649 62 88 22 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko, lisatzeko eta josteko. Deitu 628 23 50 55 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila edozein lanetan jarduteko gertu. Deitu 696 48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, edo bestela. Deitu 680 30 24 64 telefonoa.

**Debagoiena.** Zerbitzari lanak egingo nituzke asteburuetan. 617 73 09 02

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko prest nago. Deitu 606 64 16 09 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gazte eta langilea gertu eraikuntza arloan lan egiteko. Esperientziaduna eta alikatatzaile aditua. Deitu 663 72 37 44 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Deitu 618 34 09 35 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila prest lanerako. Nekazaritzako lanak, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 650 96 23 08 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan aditua eta esperientzadun neska lan bila dabil. Interesatuak idatzi helbide honetara *animilena1957@hotmail.com* edo deitu 943 79 04 69 telefonora.

**Debagoiena.** Neska euskalduna eta gaztea goizetan eta aste bukaeretan lan egiteko gertu. 697 41 66 24

**Debagoiena.** Langile gaztea naiz eta edozein jardueretan lan egiteko gertu nago. B gidabaimena daukat eta auto propioa. Gonzalo. 696 48 42 50

**Debagoiena.** Garbiketa edo bestelako lanak egingo nituzke. 650 55 14 28 edo 627 10 98 43

**Donosti.** Goizez lan egiteko prest nago. Taberna, harrera zerbitzuetan edo denda batean. Tel. 600 29 40 54

**Gernika Lumo.** Zure seme-alabak esnatu, jantzi, gosaria prestatu, gosaria eman eta ikastetxera gerturatzea eguneroko nahia eta era berean zure ezintasuna bada, deitu nazazu. 25 urteko neska euskalduna naiz, haurrenganako gizarte eta kultura animazioan dihardut eta gizarte hezkuntzan diplomatua naiz. Nere laguntzaren beharra izanez gero deitu 615 78 10 68 telefono zenbakira.

**Goierri.** Umeak edo adinekoak zaintzen, edo garbiketa lanetan lan bila nabil.Eskarmentu handiko neska naiz, eta erreferentzi onak dauzkat. Orduka edo egun osoz lan egiteko prest. Deitu 606 72 28 76 telefono zenbakira.

**Irura.** Giza elikadura eta dietetikan diplomatua naiz eta gai honekin zerikusia duen lanen bat biltzen dut. Irati 697 52 20 48

**Lasarte-Oria.** Pertsona adinduak eta gaixoak zainduko nituzke. Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Harremanetarako zenbakia, 680 98 35 27 (Carlos)

**Lasarte-Oria.** Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Tel.: 639 60 12 22

**Oñati.** Neska euskalduna gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko edota sukaldean lan egiteko. Esperientzia daukat. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92

**Oñati.** Neska euskalduna prest uztailean umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 651 70 85 13

**Pasaia.** Autonomoa eskaintzen da astean 2edo3 egunetarako esperientzia haundia lorazaintzan kamioi kartetarekin eta furgotarekin aukeran.Informazio gehiago *lorazain@ozu.es* edo 679 60 04 44 telefonoan.

**Tolosa .** 31 urteko neska euskalduna.Tolosa inguruan lan egingo nuke dendaren batean. Astelehenetik ostiralera arratsaldez.

**Tolosaldea.** Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. 627 653433

**Zarautz.** Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Ordutegi malgua. Deitu 690 34 82 24


## Euskarazko komunikazio enpresa batek KOMERTZIALA behar du Busturialdean

Eskaintzen da:
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Finkoz gehi komisioz osatutako soldata interesgarria.

Eskatzen da:
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Bermeon bizitzea hobetsiko da.
- Busturialdea ondo ezagutzea.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 31a baino lehen, 2009-KBU erreferentzia adieraziz, gizabaliabideak@jarduna.net HELBIDE ELEKTRONIKORA, edo, posta arruntez, Euskal Editorea S.L., Giza Baliabideak, Martin Ugalde kultur parkea, ANDOAIN (20140) helbidera.

## Euskarazko komunikazio enpresa batek KOMERTZIALA behar du Urola Kostan

Eskaintzen da:
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Finkoaz eta komisioz osatutako soldata interesgarri bat.

Eskatzen da:
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Urola Kostan edo inguruan bizitzea.
- Inguruak ongi ezagutzea.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 26a baino lehen, 2009-KUK erreferentzia adieraziz, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA edo postaz Euskal Editorea SM, Giza Baliabideak, Martin Ugalde Kultur Parkea, ANDOAIN (20140) helbidera.


## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dituen norbait behar dut.675 70 10 63

**Oñati.** Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dituen norbait behar dut. Deitu 635 70 91 12 zenbakira.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira Arrasate eta inguruetan. Taldeka edo banaka. Esperientziadun irakaslea. Maila guztiak. Deitu 635 12 87 82 telefonora.

**Arrasate.** Unibertsitateko ikasle euskalduna astelehenetik ostegunetara eskola partikularrak emateko eskaintzen da. Deitu 636 12 05 79 zenbakira.

**Arrasate.** Arrasateko neska bat LH eta DBHko ikasleei eskolak emateko prest. 628 51 20 64

**Arrasate.** Batxilergo, DBH eta LMHko ikasleei eskola partikularrak emateko gertu; bereziki, matematika, fisika, kimika, teknologia eta ingelesa. Ingeniaritza ikasita. 664 66 73 09

**Azpeitia.** Ingeniari teknikoa LH eta DBH mailako eskola partikularrak emateko prest, Azpeitian. Informazio gehiago: 637 11 39 09

**Debagoiena.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut, etxerik etxe. Maila guztiak. 619 38 62 56

**Lasarte-Oria.** Matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Deitu 646 71 76 76 telefonora.

**Oñati.** Urte askoko esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. LH eta DBH. Ordutegi malgua, nahi dituzun orduak (aste osoan, astean ordu bat...) eta talde txikiekin. Deitu 943 78 28 43 zenbakira.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW M3 E-30 salgai.** BMV M3 E-30 salgai, 1989 urtekoa , 130.000 km , Full Equip. 15.000 euro. 659 21 61 59

**Quad-a salgai.** Quad berria salgai YAMAHA RAPTOR 660, 2005 urtekoa, lehen errueda jokuarekin, 500 km. 659 21 61 35

**Volskwagen Crafter 2.500 TDI** furgoneta. 136 ZP. 2006ko urrikoa. 45.000 km. Kristal-jasogailu elektrikoa, aire egokitua, itxiera bateratua, trakzio kontrola eta 3,21 metro luzeko kaxoia. 14.000 euro. Deitu 620 62 83 41 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Cocker ingelesa** salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrita dauzka. 200 euro. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

**Labrador txakurkumeak.** Pedigreea duten labrador txakurkumeak saltzen ditugu. Beltzak eta hare koloretakoak. Zoragarriak. Urtarrilaren 30ean jaioak. Oso prezio interesgarria. Deitu hona 607 28 04 83

**Setterrak.** Hilabete eta erdiko setter txakurkumeak salgai. Aita-ama ehiztariak. 80 euro. 649 33 38 01.

**Basurdeak** salgai. Orozkon. Deitu 678 72 75 72 zenbakira.

### 702. EROSI

**Basurdeak erosi.** Basurde ar handiak erosiko nituzke. Deitu 678 72 75 72 zenbakira.

**Behietako zezen limousina erosiko nuke.** Behitako zezen limousina erosiko nuke. 3-4 urtekoa. Harremanetan jartzeko deitu 658 73 08 08 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**5-6 urteko landareak salgai:.** 'Thuja alicata' pinua eta 'Buxus' (espela) arbustua.667 91 55 90

**Agenda elektronikoa.** PDA, eskuko agenda elektronikoa salgai. WIFI, Bluetooth, GPS... HP iPAQ 114 Classic Handheld. Berri-berria, zozketa batean irabazia dago, kaxatik atera gabe. 230 euro. 615 72 47 43

**Altzariak .** Zaharberritzea behar dute. Oso merke. 615 74 13 47.

**Altzariak.** Egoera onean dauden altzariak salgai. Prezio interesgarriak. 2 logela eta sofa berri berria. Deitu 650 17 71 73 (Miren)

**CPUa salgai.** 40 GBko FAT 32 disko gogorra, 128 MBko RAM memoria, Microsoft Windows 98, Lg DVD_ROM, Sony CD-RW, teklatua eta sagua, Office instalatuta eta pantaila barik. 943 76 29 34

**Dendarako altzariak** salgai. Esekitzekoak, manikiak, bustoak eta bitrinak. 627 96 19 22

**Egongelako mahaia .** Altzairuzko gorputza eta kristalezko gaina du. Neurriak: 37 cm (altuera), 120 cm (luzera) eta 70 cm (zabalera). 635 72 58 14

**Egur-galdara eta bi hozkailu.** Bakaikuko elkartean. Interesatuek deitu 646 25 96 87 telefonora.

**Erremolkea.** Kostaprezioan eta mustutzeko. Interesatuek 639 33 46 88 telefonora hots egin.

**Errepideko bizikleta.** 54 neurrikoa. 628 00 76 62

**Eskiak eta botak.** Eski alpetarrerako eskiak eta botak salgai. Eskiak: Dinastar 1,78 metro (60 euro) eta Head 1,70 metro (60 euro). Botak: 43 zenbakia (60 euro). 617 61 58 01

**Etxetresna elektrikoak.** Urtebetez erabilitako hozkailua, garbigailua eta gasezko labea daukan pieza bateko sukaldea. Erositako erdi prezioan. Deitu 695 78 48 25 telefonora.

**Jaunartzeko jantziak salgai.** Mutilentzako jaunartzeko jantzi berriak eta oso prezio onean saltzen ditut, 60 eurotik aurrera. Tel.: 688 66 79 82.

**Jaunartzeko soinekoa salgai.** Merke. 635 75 54 30

**Josteko makina industrialak salgai.** Bata, Refley etxekoa, automatikoa. Bestea, Jack etxekoa, 757 modeloa. 677 04 26 73.

**Kanpin denda salduko nuke.** Salewa markako iglu familiarra. Behin erabilita. 150 euro.605 72 72 39.

**Karabana salgai.** Karabana salgai. 4 plazatakoa. 1.700 euro. Deitu 946 16 85 74.

**Lowepro CompuDaypack.** Edukiera: Reflex argazki kamera digitala, 2 edo 3 objektibo (tamainaren arabera), flash bat, 17 hazbeterainoko ordenagailu eramangarria, etab. 667 95 73 16

**Marinel jantzia salgai..** 11-12 neurrikoa. Berri-berria. 90 euro. Narruzko oinetakoak barne. 679-74 00 61

**Mendiz etxeko errepideko bizikleta.** Ultegra osagaiak. Aurrealdeko urkila eta tija, karbonozkoak. 460 euro.656 75 13 43

**Nintendo DS Lite zuria, jokoen kopiak erabiltzeko txipa.** 2 GByte MicroSD (30 joko sartzen dira). 'Guitar Hero' jolas originalarekin. Funda, aurikularrak, garantia,... Nahi dituzun jokoak eta Interneteko wi-fia. 199 euro. *konpuprest@gmail.com* 693 34 58 69

**Ordenagailua.** Pentium 3. Windows 98. 256 MB RAM. Word, Excel, Access, Microsoft Publisher programak. Teklatua, sagua, CD irakurgailua, inprimagailua eta bozgorailuak. 150 euro.666 24 86 40

**Ordenagailuko jokoak. .** Ordenagailuko jokoak. Jatorrizkoak eta dibertigarriak. «Los Sims, magia potagia», «Los Sims de vacaciones», «Cesar's trivial» eta «Battle chefs». Bakoitzak 15 euro eta denak hartuz gero 40 euro. 943 53 27 60

**Scalextric C4.** Oso gutxi erabilia. Prezio onean. 669 00 89 61 edo686 81 03 23

**Umeendako karroa.** Silver cross etxekoa. Urdina. Oso egoera onean. 300 euro.615 74 13 47

**Snow taula.** Nitro Pro 59 etxekoa eta Drake fijazioak. 370 euro. 42.5 43 neurriko botak ere bai. 120 euro. Behin bakarrik erabiliak.645 72 25 24

**Trialeko bizikleta salgai.** Trialeko bizikleta salgai. Monty etxekoa. Bi urte baino gutxiago dauka. 250 euro.943 79 54 21

**Ukendua.** fistula edota erredura arazoak, zirujia gabe. dena naturala. deitu konpromezu gabe. Deitu 618 62 83 11 telefonora edo idatzi mezu bat *garitxu70@hotmail.com* e-postara.

**Umeendako kuma.** Ohe bikoitza eta umeak eramateko motxila salgai. 688 80 13 38.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate** inguruan lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu. Deitu 696 32 63 13 zenbakira.

**Kanpin denda familiarra erosiko nuke.** 2 logelekin nahiko nuke.deitu 692055860

**Klarinetea erosiko nuke.** Klarinetea. Umeendako egurrezko klarinetea erosiko nuke.655 74 89 19.

**Lursaila.** Oñatin lursaila erosiko nuke. Deitu 656 79 88 12 telefono zenbakira.

**Nintendo DS.** Kargadorea erosiko genuke.605 72 72 39.

### 803. EMAN

**Biberoiak** esterilizatzeko ontzia eta titietatik esnea ateratzeko aparailua opari egiten dira. Deitu 653 71 64 79 telefonora.

### 804. HARTU

**Altzari zaharrak eta sofak.** Bila joaten gara. 943 03 87 24

**Eskiak eta botak.** Metro bateko eskiak eta 27 30 zenbakiko botak erosiko nituzke. 608 77 38 59.

### 806. GALDU

**Motxila**. Joan zen asteartean, 17an, Arrasateko Munarreko parkean motxila bat galdu genuen, laranja kolorekua eta loreduna. Barruan txankletak eta lepoko bat zeuden eta izena ipintzen du: Nahia I. Norbaitek topatuz gero, deitu mesedez:619 87 57 48

**Betaurrekoak** galdu nituen Aretxabaletako Beroa okindegian. Armani etxekoak. Funda gorriarekin.943 79 16 24

**Eguzkitako betaurrekoak Besaiden.** Martxoaren 20an, zapatuan, eguzkitako betaurreko graduatuak galdu nituen mendian, Besaiden. Aurkitu badituzu, deitu. 619 33 72 95

**Eskumuturrekoa galdu nuen Arrasaten..** Urrezkoa da eta Urtarrilean galdu nuen.652 70 23 50

**Graduatutako betaurrekoak.** Otsailaren 26an, herri erdian galdu nituen. Deitu 685 70 85 87 telefonora.

### 807. AURKITU

**Argazki Kamera digitala.** Zarugalde kalean aurkitu dut.Deitu 639 88 85 63 telefono zenbakira.

**Fiat auto baten mandoa edo giltza.** Fiat auto baten mandoa edo giltza topatu da Etxarri Aranatzen. Jabea pasa dadila Beleixe irratitik.

**Mexikar txanoa.** Mexikar txanoa aurkitu nuen Oñatiko plaza inguruan ihauterietako asteartean. Txanoan izena idatzia dago. Deitu 658 75 64 65 telefonora.

**Txano buff-a.** Aloña inguruan txano-buff grisa aurkitu dut.670 61 77 27

**Txanoa Eskoriatzan.** San Juan kalean txanoa aurkitu nuen. Galdu duenak dei dezala 943 71 46 50 telefono zenbakira.

**Zilarrezko erlojua.** Otsail bukaeran Gabiria dorrearen inguruan zilarrezko erlojua aurkitu nuen. Galdu duenak dei dezala 943 76 26 82 zenbakira.

## 9/ HARREMANAK

### 901. AGURRAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Neska polita ezagutzeko irrika.** Ez al dago neska erakargarriren bat Irun, Donosti, Hernani edo inguruko herrietan? Nik 33-39 urte bitarteko neska erakargarri bat ezagutzeko gogo itzela dut, modelo bat ez, ni ez naiz eta. Animatu zaitez eta ez pentsatu gehiegi, denbora azkar doa eta, eta ez du merezi. Tel. 628 55 37 35./ *antxon.u.b@hotmail.es.*

**Neska zoragarri atxabaltarrari.** Aurreko zapatuan galdutako txaketa marroia ekarri zidan neska zoragarri atxabaltarrari, eskerrik asko bihotz-bihotzez.

**Pertsonak ezagutu.** Iruñea edo ondoko herrietako pertsonak ezagutu nahi ditut, Sakanakoak barne, lagunarteko harremanetarako. 28 urte ditut. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 652 97 45 24.

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate-Gasteiz joan-etorria.** Egunero Arrasatetik Gasteizera joaten gara. 08:00etarako etortzen gara eta 17:00etan irten. Interesatuz gero deitu. Automobila banatzeko zerbitzua *www.compartir.org* webgunean edo 635 20 33 14 telefono zenbakira deituta.

**SASI-musika - Ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat.** Ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat: Inprobisaketa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: Ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informazio gehiago: *sasimusika.blogspot.com.*


AEGON Salud
OSASUN ARLOKO ENPRESA BATEK KOMERTZIALA BEHAR DU
Eskatzen da: •Erdi mailako ikasketak izatea
•Autoa edukitzea
•Euskara jakitea kontuan hartuko da
Harremanetarako pertsona: Ixone Goiburu
ags.salud@gmail.com / 649-39 16 98

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
ALDIBATEKO LANA
943-16 20 48
Senpere,7 (zentru komertziala)
BEASAIN
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

Jarduna
administrazio zerbitzuak
KONTABILITATEA • ZERGAK • NOMINAK • KOBRANTZAK
bai euskarari
zerbitzua eta lana euskaraz
Euskara denon kontua da kontuak ere euskaraz
Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen dizugu:
Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN
Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net
www.jarduna.net

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Informatika.** Kanpoko Merkataritzarako Espainiako Institutua, ICEX. Informatikako ICEX bekak 2009-2010. 64 beka indibidual, Espainiako Enbaxaden Ekonomia eta Merkataritza bulegoetan nazioartekotze-gaietarako informatika-adituak prestatzeko. Epea: apirilaren 3a.

**LANA**

**> Dinamizatzailea.** Arrasateko Udala. Arrasateko Udalean, Emakume Txokoan, dinamizatzaile-lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: apirilaren 11.

**> Delineatzailea.** Hernaniko Udala. Hernaniko Udalean delineatzaile-lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: apirilaren 14a.

**> Hezitzaileak.** Kiriketan. Uztailean aisialdiko begiraleak behar dira Donostian lan egiteko eta euskara jolasen bidez lantzeko. Epea: ekainaren 5a.

**> Hezitzaileak.** Irun Iruten Euskara Elkarteak Solas-Jolas 2009rako hezitzaileak hartzeko deialdia luzatu du. Epea: apirilaren 8a.

**EKINTZAK**

**> Korrika.** AEK. Tuteran gaur bertan hasi eta 11 egunez luzatuko da; egun horietan herri ezberdinetatik igaroko da gelditu gabe. Ibilbidea ezagutzeko: *www.korrika.org*

**> Gazteriaren epaimahaia.** Donostiako Zinemaldian gazteriaren epaimahai kide bezela parte hartzeko aukera 17-21 urte bitartekoentzat. Epea: ekainaren 15a.

**> Udalekuak 2009.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Oñatiko Gazte Informazio Puntuan, Arrasateko Gazte informazio Bulegoan eta Bergarako Gazte Gunean informazio gehiago. Epea: martxoak 25etik Apirilaren 3ra.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 30



**> Felix-Baltistan Fundazioa elkarteen tartean**
**19:45**

Txomin Madinak zuzentzen duen elkarteen gaineko tartean Felix-Baltistan Fundazioko kide bat izango da gaur.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Arte irekia: Joxan Aizpurua..
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wazemank
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Huhezinema.
**00:00** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Martitzena, 31




**> Huhezinema saioan fikziozko lanak**
**23:00**

Txomin Madinak aurkeztuta, Huheziko ikasleek egindako fikziozko lanak erakutsiko dituzte martitzenean, 23:00etan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Txokolate bizkotxoa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Huhezinema
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskal Herria lau haizetara.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Katixa.
**23:00** Huhezinema.
**00:30** Goiena Magazinea.
**01:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 1



**> Ikasys proiektua 'Goiena Magazinea'-n**
**19:45**

Hainbat ikastolek abian ipini duten proiektuaren berri Arizmendiko Aintzane Gardokiren eskutik, eguazteneko *Magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira: Harrobia.
**14:15** Jazz
**14:45** Berriak.
**15:10** Huhezinema.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur: Ahoko tratamendua albaitariarekin.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea: Arabako bertso txapelketa.
**23:00** Mugaz kanpo.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 2



**> Musika kontuak 'Musikantoi' saioan Arregirekin**
**20:45**

Maider Arregiren eskutik, musika kontuak hizpide eguenero bezala, Goiena Telebistako *Musikantoi* saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Estetika
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Musikantoi.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea: San Franciscoko euskal festa.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 3



**> Ibarreko Kultur agendaren berri 'Magazinea'-n**
**19:45**

Jon Berezibar kazetariaren eskutik jasoko duzue egubakoitz honetan ere, Debagoieneko kultur jardueren berri.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Jazz
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide: Maitane Salinas.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Korrikako materiala zozketatuko da Irratian**
**10:30**

Asteroko ohiko opariekin batera, oraingo honetan, Korrikaren astea dela-eta, irratiak ere parte hartu gura du eta entzuleen artean korrikarekin lotutako materiala zozketatuko du; kamisetak, petoak eta beste. Gainera, Jose Luis Abuin masajistarengana joateko bonuak ere zozketatuko dituzte.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**TELEBISTA** > ABENTURA

# 'Al filo de lo imposible' saioa garai berrietara egokituta

Itxura berrritu eta eduki berriak landuko ditu La2 kateko saioak

Denboraldiko lehen saioan, Himalayara egingo dute

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Espainiako telebista kateko *Al filo de lo imposible* saioak etapa berri bat hasiko du, goiburuak eta sintoniak aldatuz eta eduki berriak landuz. Horrekin, irudi berrituarekin itzuli eta saioari beste ikuspegi bat ematea lortu gura dute zuzendariek. Denboraldi berriko lehenengo erronka ez da erronka makala izango; hain justu, Edurne Pasaban tolosarrarekin egingo dute Kangchenjungara (8.598 metro) igoera. Munduko hirugarren mendi altuenerako espedizioa gaur bertan irtengo da. La2 kateko saioko zuzendari Carmen Portillak eman du jakitera aldaketokin istorioak beste era batetan kontatzea bilatzen dutela, kirolarien narrazioei garrantzia gehiago emanez. Gainera, irudiaren eta soinuaren kalitateari dagokionez ere eman gura dituzte aurrerapausoak, irudiak bereizmen altuko formatuan hartuz eta soinuaren kalitatea igoz. Portillak gaineratu du saioak erronka pertsonaletan, talde lanean eta solidaritatean oinarritutako istorioak kontatzen jarraituko duela aurrerantzean ere.

Horiek horrela, nahiz eta eduki aldetik aldaketa batzuk izango dituen, saioak jarraituko du mendiaren eta abenturako kirolen aldeko apustua egiten.

**KANGCHENJUNGA ERRONKA**

Esandako moduan, denboraldi berriko lehen atalean Edurne Pasaban tolosarrak Kangchenjungara egingo duen espedizioa da eskainiko dutena. Pasaban gaur bertan abiatuko da Nepal eta India artean kokatzen den munduko hirugarren tontorrik altuena igotzen saiatzera. Horretarako, TVEko hiru kameralari profesional izango ditu lagun, eta baita mendigoizale esperientziadunak ere: hala nola, Juanito Oiarzabal, Ferran Latorre, Alex Txicon, Asier Izagirre eta Jorge Egotxeaga.

**TELEBISTA**

# La Sexta kateak ez du fusiorik baztertzen

**M.A** > ARRASATE

Krisiaren eragina alde guztietan nabari da eta telebista kateak ere ez dira krisiaren eraginetik kanpo geratuko. Hain justu, joan den astean La Sextako kontseilari delegatu Jose Miguel Contrerasek adierazi zuen La Sextak ateak zabalik dituela beste eragileekin gauzatu daitezkeen fusio eta antzekoei begira.

Contrerasek gaineratu du euren telebista kateak hasi dituela dagoeneko komunikazio taldeekin elkarrizketak eta guztiekin izan omen dituzte Vocento taldearekin izan ezik. Haren esanetan, lehenengo mugitzen diren telebistek aukera gehiago izango dute.

## zorion agurrak



OÑATI
**Ixiar Txintxurreta**
Martxoaren 23an, 12 urte. Zorionak, Ixi *wapixima*! Ondo pasatu eguna, merezi dozu-eta! Eta patxo handi-handi bat kuadrila osuan partetik!



ARRASATE
**Magali Armendariz eta Kiara Dorronsoro**
Magalik martxoaren 25ean, 6 urte eta Kiarak apirilaren 1ean, 4 urte. Zorionak familiakoen partetik; bereziki Kaiet eta Anerren partetik.



BERGARA
**Maialen Fernandez Lezeta**
Martxoaren 25ean, 6 urte. Zorionak etxekoen partetik eta bereziki Andoniren partetik!



ARETXABALETA
**Amaiur Lonbide**
Martxoaren 26an, 20 urte. Zorionak *prexioxi*! Oso ondo pasatu zure egunien eta jarraittu betiko moduen, xalada! Patxo izugarri handixa eta urte askotarako! Itzi



ARRASATE
**Ekain Lopez Gomez**
Martxoaren 26an, 4 urte. Zorionak, Ekain eta ondo pasatu zure eguna, etxekoen partetik.



OÑATI
**Aitor Freire**
Martxoaren 27an, 5 urte. Zorionak, potxolo! Patxo handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Oier Guerreiro**
Martxoaren 27an, 5 urte. Zorionak, Oier, *potxolo*! Ondo pasatu ostiralian zure laguntxo eta familixakuakin.



OÑATI
**Maren eta Ihart Galfarsoro Garro**
Martxoaren 27an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat aitita-amama, guraso eta Izaroren partetik!



ARRASATE
**Ixone Garitaonaindia Uriarte**
Martxoaren 27an, 5 urte. Zorionak zure bosgarren urtebetetzean etxekoen partetik; bereziki Urki eta Hodei. Patxo handia.



OÑATI
**Markel Biain Zumalde**
Martxoaren 28an, 7 urte. Zorionak aita, ama eta Leireren partetik.



OÑATI
**Maite Garcia**
Martxoaren 28an, 22 urte. Zorionak *guapisima*! Oso ondo pasatu zeure egunian eta bihar dan mouan zelebrau 22 urtiak! Patxo handi bat kuadrilakuan partetik.



ELGETA
**Nora Etxabe**
Martxoaren 28an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat Gloriaren etxekoen partetik! Laster hamar urte!



ARETXABALETA
**Kepa Errasti**
Martxoaren 29an, 28 urte. Zorionak, guapeton! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian eta egongo gare, belarrixetatik tiratu eta kafia hartzeko! Harrapauko zaittugu lehenau edo beranduau. Laguna.



ARETXABALETA
**Karla Zabala**
Martxoaren 29an, urtebetetzea. Zorionak, tio. Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi bat. Oinatz.



OÑATI
**Haritz Olabarria Urionabarrenetxea**
Martxoaren 29an, 2 urte. Nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak, nekez bere lurra zuhaitzak... Zorionak zapaburu! familixia eta lagunak.



ANTZUOLA
**Nora Lasa Oncala**
Martxoaren 29an, 3 urte. Zorionak, polita! Aitatxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
**Axun Porras**
Martxoaren 29an, 44 urte. Ondo pasatu zeure eguna, senide eta lagunen partetik. Patxo handi bat.



ARETXABALETA
**Ager Lanzos**
Martxoaren 29an, 5 urte. Zorionak, *guapisimo* zure bostgarren urtebetetzean. Ondo-ondo pasa zure eguna eta patxo handi bat etxeko guztien partetik. Aupa Erreala!



ARRASATE
**Ane eta Nerea Valle, Hodei Ercilla eta Alex Altuna**
Ane eta Nereak, 6 urte martxoaren 27an. Hodeik, 4 urte martxoaren 26an eta Alexek, 6 urte martxoaren 30ean. Zorionak Sanvi Txikiko lagunen partetik.



ELGETA
**Nerea Sarasua**
Martxoaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak, Nerea! Ondo ospatu dezazula eguna.



ARRASATE
**Naroa Balerdi Berezibar**
Martxoaren 31n, 3 urte. Zorionak sagutxo! Pablo, Aner, Malen, Martin, June eta Noraren partetik.



OÑATI
**Leire Biain Zumalde**
Martxoaren 31n, urtebete. Zorionak aita, ama eta Markelen partetik.



OÑATI
**Leire Ibarrondo**
Martxoaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak zure egunean, aita eta amaren partetik.



ANTZUOLA
**Ur Irizar**
Martxoaren 30ean, 3 urte betetzen ditu. Asko maite zaitugulako, etxekook opa dizugu eguna pozik igaro dezazula. Zorionak!



BERGARA
**Olatz Arregi Eguren**
Martxoaren 31n, 4 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat,etxekoen partetik.



ARRASATE
**Lia eta Maike Axpe Agirrebeña**
Martxoaren 31n, 3 urte. Zorionak eta patxo mordo bat etxekoen partetik. Ondo-ondo pasatu eguna.



ARETXABALETA
**Aitor Romero Ortiz de Zarate**
Martxoaren 31n, 8 urte betetzen ditu. Urte askotan egun on asko! Anaia Asier, guraso, amama Mari Carmen, aitaita-amama Iñaki eta Lali eta etxeko guztion partetik.



OÑATI
**Iñaxio Inza**
Martxoaren 31n, 60 urte betetzen ditu. Zorionak eta urte askotarako, aitta! 60 urte eder horreikin hasten dozun etapa barrixa osasunez eta zoriontasunez betia izan daixela. Patxo pila bat etxekuon partetik.



OÑATI
**Agurtzane Etxeberriarteun**
Apirilaren 1ean, 29 urte betetzen ditu. Zorionak, Agurtzane! Patxo handi bat etxekoen partetik eta oso-oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



ARRASATE
**Maren Beltran de Gebara Zabarte**
Apirilaren 2an, 7 urte betetzen ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta patxo bat. Jarraitu halako txintxo.



OÑATI
**Unai Sanz**
Apirilaren 2an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu eta kandela denak itxungiz zure desioak bete daitezela. Zure etxekuen partetik.



ARRASATE
**Marian Duque**
Apirilaren 2an urtebetetzea. Zorionak ama, ahizpa eta koinatuaren partetik.



ARRASATE
**Unax Gonzalez**
Apirilaren 3an, 2 urte betetzen ditu. Mila kilo zorion eta besarkada handi bat etxeko guztion partetik. Ondo pasatu eguna, txiki!



BERGARA
**Julen Murgiondo Izagirre**
Apirilaren 4an, 8 urte betetzen ditu. Zorionak etxekoen partetik.



BERGARA
**Naia Unamuno Martinez**
Apirilaren 4an, urtebete. Zorionak etxekoen partetik eta txokolatezko patxoak.



ESKORIATZA
**Martin Berezibar Arevalo**
Apirilaren 5ean, 4 urte. Zorionak, Pirata! Pablo, Malen, Naroa, Nora eta Maialenen partetik.



ANTZUOLA
**Inar Cabo Mundiñano**
Apirilaren 5ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat gure mutiko bihurriarentzat, etxekoen partetik



BERGARA
**Maria Edroso Rueda**
Apirilaren 10ean, 8 urte. Zorionak etxekoen partetik eta bereziki Mikelen partetik! Egun ona pasa eta patxo handi bat.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez!
Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali sailkatuak@goiena.com helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

## asteburuko albuma



**Gaztetxetik sagardotegira.** Antzuolako gaztetxekoek sagardotegira irteera antolatu zuten zapaturako. 20 lagun inguruko taldea joan zen eta esan digutenez giro politean ibili ziren gau partean. Ordu aldaketa egon arren, ez zen eurendako arazo izan, eta parrandarako ordubete gutxiago izan bazuten ere, ondo aprobetxatu zuten. Sagardotegian bapo afaldu eta kupeletik nahikoa sagardo probatu zuten lehenengo eta Hernaniko jai giroan jarraitu zuten gero, Antzuolara goizaldean bueltatu zirenera arte.



**Kantu afaria.** Jardun elkarteak antolatutako kantu afarian 50 lagun inguru elkartu ziren egubakoitzean Artatsen. Afal aurretik trikipoteoa egin zuten eta bapo jan ostean, kantu liburuxkak banatu eta giro onean, Aitor Astorkia, Aritz Alustiza eta Ekaitz Otxoaren trikiti doinuak lagun, euskal kantuak abestu zituzten eta goizaldeko ordubatak baziren, amaitu zutenerako.

## jaiotakoak



**Aitor Vitoria Herranz**
Arrasate > Martxoaren 16an. Gurasoak: Maider (Arrasate) eta Iker (Arrasate). Argazkian, Aitor jaioberria, sehaskan lo.



**Andoni Rodriguez Alvarez**
Eskoriatza > 3,360 kilo. Martxoaren 25ean. Gurasoak: Elisabeth (Eskoriatza) eta Antonio (Eskoriatza). Argazkian, Andoni jaioberria, amama Mariarekin.



**Julen Arrieta Piñeiro**
Ermua > 2,920 kilo. Martxoaren 26an. Gurasoak: Silvia (Ermua) eta Ricardo (Ermua). Argazkian, Julen jaioberria, sehaskan lo.



**Maialen Maillaut Beloki**
Aretxabaleta > 3,750 kilo. Martxoaren 24an. Gurasoak: Ainhoa (Aretxabaleta) eta Frederic (Aretxabaleta). Argazkian, Maialen jaioberria, aitarekin.



**Martxelo Etxabe Eraña**
Arrasate > 3,200 kilo. Martxoaren 26an. Gurasoak: Eider (Aretxabaleta) eta Mikel (Aretxabaleta). Argazkian, Martxelo jaioberria, amarekin.



**Aiora Fernandez Alvarez**
Bergara > 4,060 kilo. Martxoaren 21ean. Gurasoak: Aloña (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Aiora jaioberria, amamarekin.



**Miren Bermejo Mager**
Oñati > 3,400 kilo. Martxoaren 25ean. Gurasoak: Herta (Oñati) eta Mikel (Oñati) . Argazkian, Mikel jaioberria, sehaskan lo.



**Ugazi Fernandez Martin**
Oñati > 3,600 kilo. Gurasoak: Ana (Oñati) eta Jose Luis (Oñati). Argazkian, Ugazi jaioberria, sehaskan loak hartuta.



**Urko Garcia Arce**
Arrasate > 2,810 kilo. Martxoaren 25ean. Gurasoak: Sonia (Arrasate) eta Javi (Arrasate). Argazkian, Urko jaioberria, amama Aurorarekin.



**Uxue Iriondo Igarza**
Bergara > 3,380 kilo. Martxoaren 22an. Gurasoak: Nekane (Bergara) eta Jon (Elgoibar). Argazkian, Uxue jaioberria, amarekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-03-30

**Xabier Solano**> Musikaria

# "Trikitia uztekotan egon nintzen 11 urterekin"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Neguko atseden txikia hartuta, prest da atzera ere Xabier Solano Euskal Herriko bazter eta txoko guztiak dantzarazteko. Hain zuzen ere, Esne Beltza taldearekin zuzenekoetara itzultzeko irrikan, disko berrirako abestiak prestatzen ere badabiltza. Hori, baina, uda osterako utziko dute.**

**Dantzarako abestiak egin bai, baina abestiak dantzatu?**

Oso-oso lotsatia naiz, nahiz eta agertoki gainera igotzerakoan lotsa guztiak kendu. Hala ere, festan ni lehenengoetarikoa izaten naiz dantzara irteten, eta gustatu egiten zait, gainera.

**11 urterekin trikitia utzi izan bazenu, nolakoa izango litzateke zure bizitza orain?**

Ba, askotan nire buruari egin izan diodan galdera da hori. Adin horretan uztekotan egon nintzen eta gurasoengatik jarraitu nuen. Orain, imajinatu ere ezin dut egin bizitza musikarekin jarraitu ez banu, egunerokoan ere musika irakaslean naiz-eta. Egun guztia musikarekin.

**Orain trikitia gainetik kendu ere ez duzu egiten, ala?**

Beti daramat soinua nirekin, autoan eramaten dut edonora jotzeko edo baita ere abestiren bat bururatuz gero, badaezpada ere. Gainera, beti autoan badaramat, badakit ez zaidala ahaztuko, ze gertatu izan baitzait norabait jotzera joan eta trikitia ahaztea.

**Zurekin asko bidaiatu du trikitiak. Japonian ere ibili zarete jotzen.**

Ikaragarria izan zen han jotzea. Daukaten guztia ematen dizute, baina oso *friky*-ak dira. Kontzertuetan adi-adi begira egoten zaizkizu zuk ze mugimendu egiteko zain, 500 japoniar zure gauza bera egiten dabiltzala ikustea benetan bitxia da.

**Iaz moduan aurten ere bira potoloa egingo duzue?**

Euskal Herrian asko joko dugu, baina dagoeneko Estatu mailan badauzkagu hitzorduak lotuta eta Japoniara ere joango gara. Disko berria ere prestatzen gabiltza, baina udazkenerako planarekin. Lehengo diskoarekin jarraituko dugu, oraingoz.

**Etzakit, KS, Lau Itzal, The Solanos, Esne Beltza... proiektu askotan ibilia zara.**

Bai; momentuko gauzak dira, baina antzerako jendea gabiltza guztietan bueltaka. Esne Beltzarekin, hain zuzen, Etzakiteko kideak gabiltza. Neu ere nire aldetik banabil bestelako zerbait prestatzen, gitarra akustikoarekin eta ukitu intimoagoarekin. Laster aterako dut hori ere. Orain arte egindakoaren oso desberdina da proiektu hori.

TESTA

**Herria:** Hernani. **Adina:** 33 urte. **Ogibidea:** Musikaria eta DBHko musika irakaslea. **Instrumentuak:** Trikitia eta gitarra. **Taldea:** Esne Beltza da nire egungo taldea, fusioa egiten dugu; zuzenekoei ekingo diegu berriro. **Bidaiatzeko leku bat:** Japonia erotzeko modukoa da, eta baita Jamaika ere. **Zuriek badakite beltzen musikarik egiten?:** Jamaikara joan ginenean *flipatu* egiten zuten gurekin. Gu guztiz integratu ginen han.



**MUSIKA** Eguna musikaz inguratuta egiten du Solanok. JON BEREZIBAR

## ai, ene!



### Hori arrautza parea!

Arrautz egosiakbritainiarren eguneroko gutizia izan ohi dira. Egunero, ostera, ez dituzte aurkitu ohi arrautza baten barruan beste bat, oskol eta guzti, aurkitzea. Erresuma Batuko Sommerseten hartu zuen ezustekoa emakumeak.

http://www.reddit.com

## biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

### Hileta zibilak direla eta...

Aurreko asteko *Goienkaria*-n hileta zibilei buruz artikulo zabala eta interesgarria azaldu zen. Hainbat jenderengan interesa piztu duen gogoeta. Baita fededun eta apaizon artean ere. Baina ñabarduraren bat egin beharrean aurkitzen naiz. Lehenik, ez da egi osoa hileta erlijiosoak egitera "derrigortuta" gaudenik. Halako ustea izan dezakegu pentsatuz Elizak berak derrigortzen duela hiltzen diren guztiei elizatik pasatzera. Nolabaiteko sormena falta da gizarte zibilak bereak izango diren liturgiak proposatzeko. Liturgiarekin hauxe esan nahi dut: hildakoari zer eta nola esan behar zaion, non egokitu eta agurtzeko protokoloa da liturgia. Sormena behar da eta udal bakoitzak egokitu beharko luke leku aproposen bat. Gu, apaizok, honen alde gaude.

Bestalde, hileta zibil batean ez dago kristauon Jainkoa aipatu beharrik, horixe egiten baitugu hiletetan. Gure uste eta simismenean horixe ospatzen dugulako. Baina ez da hori hileta zibila eta erlijiosoa bereizten dituena. Batek Jainkoari buruz hitz egiten duelako eta besteak, berriz, pertsonari buruz. Apaizok familiarekin hildakoaren bizitzako pasarteak aipatzen ditugu, hildakoaren sinismenarekin uztartzeko.



Hauxe dago gaur egungo gizartearen eskuartean: sormena beharko dugu orain arte ez zegoena sortzeko eta beharrei erantzuteko. Ni erabat ados.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
| --- | --- |
| +9 | +5 |

Haizea, hotza eta zaparradak izango ditugu hizpide. Arratsaldean eguzkia ikusteko aukera izango dugu.

www.euskalmet.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira
SMS bakoitzeko : 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Real Union | UNION
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU
Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

1,2,3,4...Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu...Ansar | ANSAR
Hartu...Argentinarra | ARGEN
Hartu...Mexikarra | MEXIKO
Hartu...Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA




OHARRAK
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri** Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.